

## Naturako Nahimena

Ezagunak dira Pio Barojak beti egiten zituen Schopenhaueren aipamen errespetuz eta eskerronez beteak, gure literatoen artean; Euskal Herrikoen artean alegia, jeneralean filosofoak anitz interesatu izan ez diren bazter honetan, hainbat gutxiago metafisikoak. Nobelista donostiarrak hastapenetan esperientzia txarra egin bide zuen filosofiarekin, Unibertsitatean Letamendi gisako profesore putz berritsuekin eta, ukondoak ahalegindu arren, tutik ulertu ez omen zuen Fichte bezalako autoreekin, bere irakurraldietan. "El leer el libro Parerga y Paralipomena me reconcilió con la filosofía", aitortzen du bere gaztaroko oroitzapenetan (aitortza berdina, Gidek egiten zizun). Schopenhauer, edo haren titulu danganinoko aipatu liburu horixe doiago, iragazubi guztiz egokia gerta daiteke, gertatu ere, zientziaren edo literaturaren mundutik etorri eta, filosofian sarturik, metafisikan murgiltzeko. Apenas egongo da, gero, beharbada Nietzschekin, literatoek maiteago izan duten beste filosofo bat, egon, Aro Garaikide osoan: Tolstoi, Turgeniev; Zola, Gide, Proust; Kafka, Thomas Mann, eta abar luzea, Schopenhaueren oso zalea izan da.

Euskarazko baratzetxora bilduta, Seber Altube, Txillardegi, Krutwig eta besteren batzuk aipatu ahal izango genituzke. (Baina gehiago lehen, nik uste, gerra ostean, literatoak oraindik pentsamenduaz nahikoa kezkatu ohi zirenean, egun baino). Jean Etxepare doktoreaz "Schopenhauer-en ganik atxiki zue[la] bizi-modu serio eta garrantz baten beharra", jakinarazi digu behin Lafittek. Halere, mediku saiogileak, gorputzekoaz adina herikideen arimako osasun onaz arduradun sentituz apika bere kontzientzia gurbila, nahiago izan zuen filosofo haren ideiekin irakurle euskaldun-fededun gaixoak ez gaixoagotu, eta golkoan zituenak golkoan ezkutu gorde. Eskrupulo horiek gabe Mirande ibili bait zaigu, bera nola ibili dugun ikusita, bestearen ez ibiltzea zein zuhurra izan zen, sobera frogatu da. Bere garaian Schopenhauerek saio bat idatzi zuen homosexualitateaz eta "horrela aitzakia bat eskaintzen dizuet, pederastia defendatzen eta gomendatzen dudala ziurtatuz, difamatu ahal nazazuen", esanez bukatu zuen testua. Ez dakit Alemanian "filosofiako profesoreei egin nahi izandako fabore txiki" hau bera izan ote den, izpiritu santularioak probokatzeko, euskaldun "zintzoei" Mirandek egin gura izan dien faborea Haur Besoetakoa-rekin. Ia seguru nagoena da, esate baterako Miranderen Jainkoa, hots, Jainkoaren falta, oroz gain Schopenhaueren metafisikak esplikatzen duela.

Schopenhaueren Jainkoa munduaren barruan dago. Ez dago munduaren kanporik, hobeto esan; eta, beraz, munduaren kanpo hartan ez Jainkorik ere: ez mundua baino lehenagorik, ez geroagorik; ez goikoago eta ahaltsuagorik, hots, ez dago kreaizorik eta ez inor kosmoaren erantzunekorik. "Ya el universo no tiene comienzo en el tiempo ni límite en el espacio; todo está sometido al encadenamiento de causas y efectos; ya no hay causa primera; la idea de causa primera, como ha dicho Schopenhauer, es la idea de un trozo de madera hecho de hierro", arrazonarazten dio Barojak El árbol de la ciencia-ko protagonista bati. Itxaropen edo ilusio xumeen argia itzalita geratzen da munduarentzat, "y la vida aparece como una cosa oscura y ciega, potente y jugosa, sin justicia, sin bondad, sin fin, una corriente llevada por una fuerza x".

Zeru gainetik unibertsoa erregetzen zuen maiestate galanta, Unamunoren "Jainkoa, edo Unibertsoaren Kontzientzia" ere, orain kosmo barruan gal-gal dago bizi-borroka atsedengabea, azkengabeko agonian, batbedera izatera behar itsuan, norberari eutsi ezin herioan, jario eternoan bere burua dariola. Ezer ez da. Dena doa izatera eta desizatera bidean, deusek ez du iraunik. Jainkoaren ametsak gara gu eta Jainkoa gure guztion ametsa. Velazquezen gurutzean dago, fondo guztiz beltz batean jausten edo

eternalki handik irten ezinda, bere inesistentzia betierekoa pairatzen. Aita Handiaren bakerik ez dago jada izartegietan zabal argi. Dena gerra da munduan, gerra da diren eta ez diren aita bakarra, eta "Dios está empeñado y sumergido en la batalla", Ferrater Morak azaltzen duen eran (Unamuno: bosquejo de una filosofía, 1985). "¿No cabría afirmar inclusive que es la propia batalla, o cuando menos su símbolo? En todo caso, tan pronto como tratamos de colocarlo en un reino transcendente, más allá, y por encima, de toda lucha, corremos el riesgo de despojarlo de su existencia. Esta presupone un sufrimiento constante al modo de Schopenhauer, que probablemente influyó en este respecto sobre Unamuno. Presupone una congoja que es 'el único misterio verdaderamente misterioso', una congoja que parece ascender, como una savia, desde la materia inorgánica para pasar, a través del hombre, a esa Persona sumergida en la materia que es su infinita y eterna conciencia. Casi podría concluirse que cada hombre, cada cosa, cada actividad, cada acontecimiento, e inclusive cada concepto, es miembro de una especie de 'cuerpo místico' estremecido por el dolor y la congoja que son partes esenciales del 'Dios que sufre' y al cual consuelan sus propias criaturas tanto como éstas son por El consoladas".

Seguruenik ez da asko ulertzen hori dena, testuinguru batere gabe gorri-gorri irakurrita (bestela ere, Unamunoren asko gauza, ez da asko ulertzen); baina, kontuok gerotxoago hobeto ulertu ahal izango direla aparte, itxaro dudanez, orain, euskaratu, nik dakidala lehen aldiz egiten den autore hau, pentsa zitekeen baino presenteago eduki dugula aspaldion gure letretan, erakutsi nahi nizun bakarrik. Nietzschek iragarri bezala - hark filosofian izan duen dizipulu bakarrak: eta, xuxen, apostata bera- Schopenhauer, munduari zentzua Jainkoa gabe, edo ez Jainko pantokrator estatiko izarigainezko eta lekorako batekin, h. d., bizitzaren sentidoa zein sentido falta, munduan bertan eta lazeria artean gatazkan aurkitu nahi zutenen maisua eta hezitzailea izan bait da: askatzailea.

Mundu agerikoa nahia dela bere baitan

Heraklito eta filosofia grekoarekin has gindezkeen, baina beharbada gaur, arazo honetan sarbide aproposagoa, Carl F. von Weizsäckerena izan daiteke haren Munduaren imagina fisikoa-ren planteamenduan, hots, gauzak nola ez diren gauzak berak, h. d., nola gauzak zer diren, ez den egoten gauzetan bertan, baizik, beti, berak baino piska bat haragoko (esplikazioan) beste zerbaitetan. Adibidazten hasita, Islandiako espato-kristal bat hartzen du von Weizsäckerrek eskuan: solidoa da, trasparentea, txit erregulariki taiutua, halako tamainakoa, bere pisua dauka, etab., kristalaren propietate ohizko horiek ditu alegia. Kristal puska hau, partikula batzuez dago osatua: horiek ere partikula gardenak, txukun-txukun josiak, etab., espato-kristal txikiak dira berak ere, propietate berdinekin. Baina, gero, partikula horiek, atomoen daude osatuak; atomoak berak, elektroien batzuez eta nukleoaz daude osatuak; nukleo hau bera, protoi eta neutroien dago oraindik osatua..., eta, bistan da, atomoen gero beranduenik, hau ez espato kalziko, ez kristal eta ez ezer dela, gure begiekin ikusten genuen hartakorik, eta, propietateen mailan ere, beste mundu batean sartu dela gure behaketa. Errealitate batetik beste batera lerratu gara. Kristala zirudien hura, "errealki", kalzio atomoak eta karbono edo oxigeno atomoak da; edo, agian, "errealki"...

Zer dira, azken-azkenean, gauzak? Bere barruenean, funtsenean, zer da mundua? Zer da, gauza desberdinak, desberdinak izatea eragiten eta erroenean denak (mundu) batbera izatea, egiten duena? Zerez dago egina, zer/zeinek? Zein/zerk darama, nora? Zer da, ororen jario, izartegi azkengabe, atomo txiker, anizkortasun egonezin guztiaren atzean dagoen Bat-a?

Gizadia betisamardanik urduritu duten galderak dira horiek. Erlijioek, beren tresna kontzeptual-sinbolikoen erantzun dituzte. Filosofian, Platonek, Nietzschek hain

gorroto zuen "bi munduen" berezkuntza egin du, bat esperientzia arruntezkoa (itzal hutsa, kopia) eta ideala bestea, zerugaindarra (hots, "meta fisikoa"), errealki erreal bakarra bera omen dena. Baina, Platonen eta platonismoaren madarikazioak gorabehera, Fisika modernoan ere, aski da edozer gauza mikroskopioan behatzea, esperientzia arruntaren mailan errealitatea iruditzen zaiguna (hori beti indibiduala da, etab., etab.), inoiz ez da zientzia mailan egiazki erreal kontsideratzen dena. "Erreal ote da errealitatea?", itauntzen du zirtoka Paul Watzlawick psikiatraren titulu popular batek. Txit serio, baina, "A la recherche du réel", Bernard d'Espagnat fisikoaren beste batek. Gainera, von Weizsäcker oso tertzio onean erreparatzen duen eran aipatu liburuan, Fisikak nolabait lortzen duen errealitatearen edo munduaren imagina bera, hoberena izanda ere, bat da, eta bestelako beste batzuk badira alboan, gutxienez hura bezain bidezkoak eta zientifikoa denak, baina eskema eta kontzeptu zeharo diferentekin diseinatuak (biologia, etab.). Zientzien problema hauei, filosofiaren historiako propioak, erantsi beharko genizkieke, Kantez gero "azken errealitatearen" diskurtsu baten posibilitateaz dauden arazoak alegia, Schopenhaueren saioa hor kokatzen da-eta batez ere. Alde guztietatik zailtasunak: "eta ez dago zientzien multzo ezberdinak bil ditzakeen unibertsoaren imagina amankomun bat (...). Inondik ez da diziplina guztiok batera ditzakeen filosofiarik somatzen. Gure izpiritua, ordea, batasunaren bila eta bila dabil" (C. F. von Weizsäcker).

Beraz, zer da, azken finean, errealitatea? Izan eta desizan, etorri, joan, aldatu, ikusten dugun guzti horren mami-mamizko funtsa? Errealitate ororen azken funtsa, errealitate erreal, errealitate ageri oro agertarazten eta betetzen duena, hori, nahia besterik ez da, erantzuten du Schopenhaueren filosofiak. Heraklitok, barruenean dena sua dela, esan omen zuen. Su metafisiko bat, noski, suaren antzera pentsatzeko zer bait. Bistan da Schopenhaueren nahia ere, ageri direnak oro eta bakoitza zer bere baitan dena, mineral bat adina galaxia bat eta Julio Zesar edo Mozart, ezin ulertuko dela, hiztegieta gizakioi eskusiboki aitortu ohi zaigun fakultatea legez, giza nahimena, Axularrek dioen borondate "alde batera edo bertara itzultzeko librea", haren analogon bezala baizik, den denaren barneko bizi eta indarra, physis, natura, kreatura guztiak denboran eta espazioan pizt eta itzalarazten dituen, bera ber denaz bezanbatean inoiz ezein izakiren ageritasunean agertu gabe. Nahia dena da. Nahia da dena.

Bere baitan, azken-azken eta funtsezko errealitatean, unibertsoa den nahi "jainkozko" hondargabe horretatik, banako bakoitzaren errealitatera, mundu honetan zuk eta nik eta txepetx batek inkarnatzen dugun nahi ttiki-ttiki baina perfektura, eskala bat dago, bilakaera bat, kontzeptu hierarkia bat, nahia bere orokortasun guztizkotik nola doan forma hartzen geroz eta definituagoa, indibidualagoa.

Beherean materia dago, nahi hutsetik fenomenorako zubi antzera, oraindik ez fenomeno, baina ontologikoki fenomeno edo errepresentazioaren ordenuko jada, agerkizunen ager-baldintza, izakien eskalaren eustazpia. Hurrengo, [a] ordenu kosmikoan: naturako indar orokorrenak letozke, dela materia/gorputz ororen propioak (grabitatea, sartzintasuna), dela gorputzen batzuen propioak (elektrizitatea, magnetismoa, elastikotasuna); eta [b] ordenu bizitarrean: bakoitzaren aiurri naturala, berezkoa, gero zer izango eta ihardungo ezartzen duena. Hauek nahiaren adierazpen artekogabeak dira, h. d., ezin dira atzeman berak beren baitan, igarri ahal soil baizik haien azalpenak diren egintzetan eta heren bitartez (Spinozaren atributuekin gertatzen den modura): nahia beste oinarririk ez daukate berak eta berak dira oinarria fenomeno guztientzat. Ez daude arrazoi askitasun printzipioaren aginpean (fenomenoak bakarrik daude hori), ezin kontsidera daitezke hortaz "gauzak", "objektuak"; ezpada munduan gauzak, eta kausak eta efektuak, egon ahal izateko baldintzak, berak dira, ex parte rei, materiaren determinaziook. Beraz honela, ez dago zuzen esana, "grabitatea da harria

erortzeko kausa": kausa, egiaz, lurrarekiko hurbiltasun konkretu horko horixe bait da, harria beregana erakarrit. Lurra gabe, harriak ez leukake zer erori, grabitateak izaten jarraitu arren. Grabitate indarra bera, indar bezala, lekora dago kausa eta efektuen kateatik, denbora suposatzen duenetik, denboratik ere lekora dagoen era berean. Aldaketa partikular batek beti beste aldaketa partikular bat izaten du kausa, ez indarra bera, baizik honen agerpen konkretu mugatu baten forma. Hain zuzen edozein kausak bere indarra nondik hartzen duen hartu, ager daitekeen kontaezin ahala kasutan, indar natural batetik da, zeinek beste oinarririk ez duen, h. d., kanpora dagoen erabat kausen kateatik eta, orokorki, beharbesteko arrazoi printzipioaren eremutik: filosofikoki nahiaren objektibitate inmediatea bezala ezagutzen da, naturaren bere osotasuneko "bere baita" izaki, jatorrizko indar bezala egiztatua etiologian -Fisikan kasu honetan-, ageritasunaren osteko qualitas occulta bezala alegia.

Bere okultotasunetik, ostentasunetik atera eta, gar hau, nahia, formak agertaraziz doa behetik gora, bere objektibazioak, natura inorganikoa, bizidunak, izarrak eta galaxiak, izadi kikirriki osoa, erpin-erpinean indibiduotasuna garatzera helduz, gizatiarra bereziki, pertsonalitatea, Schopenhaueren ustez fisionomian bertan (eta gorputz tankera guztian: objektibatzea, gorpuztea bait da) nabaria izaten omen dena, nahiaren objektibazio forma bikainena. Bestelako ezein animaliak darakus indibiduotasun fisikorik neurri honetan. Halako pertsonalitate edo bakoiztasun zantzuren batzu, animalia garaietan bakarrik somatu ahal izaten dira, heintxo batean; ordea horietan ere guztiz nagusi espeziearen aiurria izaten da eta, handik eta halatan, oso gutxi markatua egoten da fisionomia indibiduala.

Schopenhaueren adierazpenek izakien sare eta hierarki eskala antzeko bat zirriborratzen dute, edo iradokitzen dute, hainbat pasartetan (ik. hementxe, "Landare-fisiologia" kapitulua, erdi aldetik atzerako guztia); baina ez dut uste, gero, zehatz eta errigoroski xehetasun guztiekin trazatuta inon utzi duenik naturako zurubi galant hori. Beharbada ezinezkoa litzateke eta, edozein kasutan ere, noragabeko ariketa alferra seguruenik, literatura edifikanterako izan ezik. Ezaguna da, izan ere, naturaren ikuskera erromantikoa Edward Young poeta ingelesak eduki duen eragina. "Begira natura, dena gradazio garbia. Bai maila ximenez hedatzen duela bere eskala! Izaki bitartetar bakoitza bere bi aldeetatik estekatuta dago, goikoa behekoari... " Izaki naturalen eskala hori unibertsoan ("The Great Chain of Being": Arthur O. Lovejoy, III. kap.), natur lege hori, mailaz-maila perfekzio altuagoetara beti gorantz behartuz, materiazko esferaren gainetik izpirituen esistentzia ezinbestekoaren eta arimaren hilezkortasunaren beraren frogarako argumentu logikoa bihurtzen da hor, zeruraino igotzeko eta jeisteko Jakoben eskalaren antzera (Night Thoughts, VI). Ordenu kosmikoaren honelako irakurketa erlijiozko batek, ez dago esan beharrik, sentidorik batere ez lukeela Schopenhauerren aurretiazko epistemikoekin. Alta kriterio baliagarria, mailak artez berezteko, indibiduotasun agerpenaren horretan aurki genezake. Nahiaren legea da bere burua gainditzen etengabe borrokatzea, permadura horretan forma beti garaiagoak ekoiztea bere baitatik. Natura, ez Jainkoaganaino (naturaz gainetik!), baizik indibiduoetaraino goititzen da: indibiduo izango da, hobe pertsonalitatea, are, naturaren sorkari pitxienetan, artista eta, guztiz gain, jeinua, nahiaren objektibazio gorena. Handik behera, beherago eta indibiduotasun gutxiago. Buru bakoitza, espeziean urtuago eta galduago, berdinago, jitean hala fisionomian. Espeziearen izaera ezagutuz gero, ezagutua dago pieza bakoitzetik zer itxaron. Kuriosoki, animalietan apenas, landareetan ja deusez eta mundu inorganikoan ezta pentsatu ere, omen dagoena, hain zuzen lehentxeago von Weizsäckerrek miratuta kontenplatzen zuen kristal-formazio harrigarri txit simetrikoetan ediren ahal uste du Schopenhauerek (WWV II, § 26), indibiduotasun eginkorra, nolabait nortasuntxo bat; baina horren karia aztertzen orain ez daukagu pausatzerik.

Bere baitatik handios altxatzen den tenplua dirudi honela unibertsoak, guztiz armonikoa bere atal guztietan mailaz maila. Edo jauziturri erraldoi bat ezerezetik izadi-txorroak dariola espazioan, non gero izaki-tanta denak, esistentziako espektakulan bakoitzak bere diztiratxo eskaini eta, etorri ziren iturrira bait doaz jausiz berriro, berriro etortzeko eta joateko, "Ortziren ttuntunak" ezartzen duen erritmo eternalean (Mirande). Armonia guzti honen kondizio basikoak dira: [a] izaki denak esentzialki ekai batberekoak izatea, zer bera izatea beren baitan: linterna magikoak mila irudi ezberdin ikustera ematen duen bezala, baina beti argi bat izan ikustekotasuna ematen diena irudi guzti haiei, hala mundua beren koexistentzian betetzen duten fenomenoak, edo beren joairan bata bestea desplazatzen duten gertakariak guztiak, nahi bat eta bakarra da beti agertzeraz ematen dutena, gauza guzti horiek haren agerikotasuna eta objektibazioa bait dira, aldakuntza guzti horien artean hark berak aldakaitz dirauela. Gauza guztietan hura da gauza bere baitan eta, aitzitik, objektu oro agertasun soila da ("Erscheinung"), edo mintzaira kantianoan esateko, fenomeno. Eta [b] izaki guztiak izatea sortuak indar jatorrizko beraren eraginez, lege natural berdinen efektuz: natur legeak ez bait dira esentzia beraren agertasun eginkorrak besterik halaber.

Unibertsoak hain ezberdina eta ugaria ematen du, hain lege konplexuek gobernatua, barrentezina; eta funtsean dena gauza oso sinple bat da, nahia. Nahi azkengabe bat, hori bai, bere manifestazioetan horregatik txinpart-anizkortasun mugagabea pizten eta berpizten duena unibertsoan.

#### Erlijioa, zientzia, metafisika

Harrimena dela filosofiaren sorburua, esan ohi da: baina filosofoak, gauza diferenteek harritu ahal ditzakete. Hortxe datza zerk berezten dituen filosofo faltsua eta egiazkoa: egiazkoa, dio Schopenhauerek, munduak berak betetzen du harriduraz; faltsua miratzen duena, eskuan daukan libururen bat izaten da, edo ikasten ari den sistemaren bat. Ikusi hor aurrean gauzak eta, diren bezalakoxeak direlako txunditzea, ez da mundu guztiaren ahalmena: gehien-gehienentzat ikuskizun arrunta eta esanahigabea da. Jendeak ez du gauzen izateaz problemarik egin nahi. Gauzak holaxe dira, nolakoak ikusi halakoxeak izan, eta kito. Metafisikoaren ardurak eta pentsuak zentzugabeak begitانتzen zaizkio gehiengoari. Hori ez da jaten.

Diferentzia honek ez dauka, eskolatua izatearekin edo ez izatearekin, zerikusirik: Schopenhaueraren eritzian, begiespen metafisikoa, eskolatuen artean adina, ezjakin eta xumeen artean ematen da, eta berdin haren absentsia.

Bestetik, aldiz, kezka metafisikoaren labe apala, historian sekula itzaltzen ez dena da, kultura guztietan aurkitzen da (Kant errepikatzen ari gara noski), barneneko gizadiaren irrika naturala da inondik ere.

Zerk jartzen du gizakia, munduari, soluzioa eskatzen duen problema bati bezala, begiratzeraz? Hainbat esperientziak, zalantza gabe. Schopenhauerek heriotzaren esperientzia orokorra gailentzen du, h. d., bizitzaren iheskorra, miseriak, sofrimendua. Ez izaterako ate beltz horrek, beti begieran, izatea zinez zer den, arazoa planteatzen du. Bizitzak sofrimendurik ez balu, eta azkenik ez balu, inori ez zitzaiokeen ausaz bururatu izango, bizitzarik eta mundurik zergatik dagoen, eta zergatik den bezalakoa den, bere buruari galdezka hastea. Horrek esplikatzen bide du, zergatik beti arrakasta handiagokoak izaten diren, heriotz osterako esistentzia bat ziurtatzen dakiten filosofoak.

Hori da erlijioaren iturburua ere, filosofiaren bera, esistentziaren esplikazio baten beharra. Honek ez ditu erlijioa eta filosofia ezertan berdintzen, baina erakusten du, zergatik iraganeko filosofoak hain erlijioen hurko eta kideak izan diren askotan, "herrikoia" izan nahi bazuten. Hain zuzen erlijioak "herriaren metafisika" bezala funtzionatzen du ("Volksmetaphysik", itxuraz hitz hau herria plazan entretenitzen duen

"Volksmusik"en kalko antzera dago asmatua): baina herria ez da arrazoitzeko gauza, sinesteko baizik, eta orduan, errebelazioa behar du, pentsamendua irakasteko, eta autoritatea behar du, mirariez eta zeinuez, irakatsitako ideien zuzentasuna gotortzeko. Erlijioak, ezjakintasunean eta superstizioetan bizi den jende arlotearentzako ideiekin oratuak egoten dira eta, esaten dutena, ez da balioetsi behar egia edo faltsia bezala (gehienetan, razionalki garbi samar kontzebitu ere ezin litezkeen doktrinak, edukitzen dituzte), alegoria edo "ipuin" kontsolagarri eta lagungarri moral gisa baizik herriarentzako. Haien interesa, mundu fisikoaren atzean egon behar duela, gizadiak ilun barruntatzen duen, mundu metafisikoari, hizpide ematean dago. Nolakoxea ematen duen, ez da gero espantatzekoa izanen, kontu egiten bada, erlijioetan esperientziaz haraindikoa nahi dela zer-nolakoa den argitu; adierazpenotan ez esperientziaren eta ez arrazoiketaren (filosofiaren) baliabidez ibiltzea dagoela hortaz: ez da itxuragabekoa, esperientziaren barrutian eragabea eta absurdua, hango istorioetan itxura guztizkoa iruditu ahal izatea. Ipuinok alde batera uzten baditugu, nolanahi ere, erlijioek metafisikaren atariraino ekartzen gaituzte.

Hori bera egiten dute zientziek ere, Schopenhauerek deritzenez: naturaren ikerketan geroz eta sakonago zulatuz, fenomenoek mugaraino barrendu, metafisikarekin jo arte. "Fisikak, hau da, Natur Zientziek oro har -irakurriko duzu liburu honetan bertan-, beren adar guztietan dagokien bideari jarraituz, azkenean esplikazioak amaituko zaizkien gune batera heldu behar dute, eta horixe da hain zuzen ere metafisika, fisikaren muga gisa hautematen duena, zeinetatik irteten ezin daitekeen; hor gelditzen da fisika eta metafisikari eskuratu dio bere objektua". Zientziak, morfologikoak izan daitezke, objektuak ordenatu eta klasifikatu egiten dituztenak (botanika, adibidez), ala etiologikoak, fenomenoak zer ez baino zergatik diren, arakatzeko dutenak, mekanika, fisika, fisiologia, etab., beren objektuen kausak eta arrazoiak xerkatuz. Baina beti ere zientzion muga da, hauteman dezaketen zerbait beste hauteman litekeen zerbaitekin harremanduz aritu beharra dutela, beti azalean, fenomenoek mailan: eta ez erruz ibiltzeagatik eta korritzeagatik munduaren azalean, iristen garela deus haren barrurago; eta izar eta planeta guztiak zeharkatuta ere urrats bat ez garela urbiltzenago ortze metafisikora. Gizarteko festa batera gomitatutako izan eta lagunarte ezezaguna aurkeztzen digutenean bezala da: hau halakoren laguna, besteren semea, hurrengoaren ahaidea, denen arteko erlazioak zeharo ikas genitzake, eta ezer ez dakigu lehen baino hobeto zer/zein den inor bere buruarentzat, bakoitza zer den bere baitan. Zientifikoak, katea kausalezko bere azalpidearen fronteran, nahi duen izen esoterikoz bataiatuko ditu ("bizi-indarra", "bulkada sortailea"), "naturaren indarrekin" egiten du topo, errealtate mugatar horiek, erlijioan bezalatsu, kontzeptu analogiko edo alegorikoez deituko bait ditu besterik ezinean ("azalpen oro amaitzen deneko qualitates occultae " antzera), baina ezingo ditu inoiz gainditu, errealtate fisikoaz bestaldera jauzi egin eta beren baitan atzemateko, ezpada beren operazioetan eta efektuetan bakarrik ahal izango du harrapatu haien errealtate bere baitan misteriozkoa. Hori metafisikoak argituko du. Alegia, zientziak ere metafisikaren mugaraino gakatza, eta hor uzten gaitu.

Hau dena beharbada gaur berriro ez da bereziki onarkaitza gertatzen zirkulu intelektual argitxozaleetan. Zabalduxea egon daiteke, egon ere, Tractatus 6.52 perpausa (ez ditu erlijioan bakarrik eragiten autoritateak mirakuluak): "Daitezkeen zientzi galdera guztiei erantzun ondotik ere, gure bizitza-arazoak ez ziratekeela ukituak ere izanen sumatzen dugu". Schopenhauerek idazten dueneko giroa presente edukitzea komeniko da, gutxitan eman da-eta gizadiaren historian beste halako irakinaldi eta lehia bolkan bat.

[1] Erlijioak, Estatu konfesionalak alegia, bere menpe nahi ditu agresiboki zientzia eta bai filosofia, zintzo askoak gainera, bera ordea kritika ororen gainetik

dagoela, ordenuaren estabilitatea berak ziurtatzen bait du, Kanten Fakultateen gatazka-k salatu duenez (ulertu behar da, erlijioa Land eta Printzerri aleman ezberdinetako Estatu ideologia dela, "cujus regio" printzipioaren arabera).

[2] Aurrerapen zientifikoek eta horiekin garatu zen zientziaren kontzeptuak, momentuan, bai erlijioa eta bai filosofia pikutara bidaltzea mehatxatzen zuten lotsagabeki, zientzia bakarrik geratzeko. Giro honetan, zientziaren burgoikeriari mugak ezartzen zizkion edozein filosofiak, ikusi dugun modura, erlijioa defendatzen zuela, ematen zuen. Egiaz, Schopenhaueren liburu honetan bertan ez da falta "arrago eta saioldi arteko jaun horiekin" polemika, hots, zientzian ezkutatzen den hondoko sasifilosofia materialistarekin (ohargarria izango da, esaterako, adimenaren ala nahimenaren lehentasunaren kontura, ariman sinesten ez duen honek, "arima" mekanismo fisiologiko soil batzuetara murrizten omen dutenekin dakarren eztabaida). Polemika bera dakar, ordea, "filosofiaren mantupear teologia" ostendu nahi dutenekin, aginteari leial zerbitzatu eta beren kurruskoa irabazi beste asmorik ez omen duten filosofoei buruz ezer ez esateko. Zientziaren aurka, Schopenhauerek filosofia defendatzen du; baina ez du defendatzen, gero herrialdeko katiximaren ancilla jartzeko ("filosofoak, ezer baino lehen, fedegabea izan behar du").

[3] Filosofiak bere aldetik, gutxiago ez izatearren-edo hegemoniako gerra honetan, izpirituaeren erreinuan maiorazko eta nagusi bera bakarrik izateko burujope berdina altxatzen zizun harro beste bien aurka. Erlijioarekiko bere menpegabezia (teorikoa), definitiboki emana zion, Ilustrazioaren ondoren, Kantek; zientzia "ilustratuaren" (kartesiarraren) aurka, oster, naturaren ikuspegi erromantiko berriak eskuratu dizkio armak. Ondo soegiten bada, Hegel, Schelling, etab., ikusiko da, tenore honetako filosofia guztiek, funtsean orohartzaileak, zientzia, erlijioa, filosofia eta dena, izan nahi dutela (eta segi: estetika, zuzenbidea, etika, logika, etab.), "zientzia absolutua". Filosofiak biltzen eta esplikatzen du dena. Diziplina guztien gainetik dago.

"Physis" berria eta teleologiaren auzia

Physis [Natura] grekoak, berak sortzen zituen jainkoak eta gizakiak eta gauzak. Ez zuten jainkoek egin mundua, baizik munduak haiek; ez ziren izan jainkoak, baizik mundua, betierekoa. Physis grekoan, Heideggerek ohartarazi zuen legez, dena barnehartzen da: zerua, lurra, haitzak zein landareak eta animaliak, gizakiak eta historia gizakion eta jainkoen arteko obra gisa, jainkoak berak halabeharrak zorrotz gobernatuta beti. Ordenu eternorik zuzenenak arautzen duenaz lekora ez da ezer esistitzen. Filosofia grekoa natura horren gogoetan, "Perí physeos" traktatuetan, jaio zen. "Physis" kontzeptuaren hagitz adiera zabala, "natura" itzuli izan da (De natura rerum), baina berdin izan daiteke ahalmena, boterea, potentzia, indarra, bizitasuna, edo objektu zehatz baten izaera, aiurria: "phyo" aditzaren errotik dator etorri eta honek egin, eratu, hazi, sorterazi esangura lezake (aita, umearen sorterazlea, "physás" da). "Physis" edo natura grekoa, hortaz, kreatzaile eta kreazio (ekintza) eta kreatura dena batean, esistentziaren iturria da, kreazioko aktoa, den oro izaerazten duen indarra eta bultzada, mugimenduaren printzipioa, izan eta ez izan; ekaia da, errealtatearen sustraiko elementu "arjé" nagusi jaun hori alegia, zerezkoak izan funtsen-funtsenean zeru-lurrak, hilkorrak eta hilezkoak eta gauzak, esistitzen den guztia; eta unibertsoa da, bere baitatik etengabe sortzen, jariatzen, ostentasunetik agertzen presentziara (eta, hein honetan, "egiazko physia" beti agergabea datza, berriro Heideggerekin ohartzeko, agerkizunean bertan ere). Physis sustraitzen dira izatea zein bilakatzea.

Arazoimen modernoak Descartesez gero -kristaua bait da- Jainkoa, Pentsamendu edo Izpiritua, Mundua, hiru sustantzia autonomo (eta neurri handian kontrario) berezi eta urrunduko ditu. Partikularki Natura, hedadura hilotz, mintzaira

matematikoa idatzitako testua izango da berarentzat, ez physis bizi gainezkor baten kreaio aberatsa bere-bere errailetatik, baizik adimen arkitekto arrotz baten laborategiko kalkulu mekaniko eta geometrikoa: h. d., Ernazimentuaz gero, unibertsoaren irakurketa erlijiosoa, poetikoa, zientifikoa, bakoitza berjabetu egin da, ez daukate bata-bestearekin zerikusirik, eta egiazko errealitatea, erreala, zientziaren monopolio bilakatu da. Galdu egin da mundu-ikuskeraren batasun zaharra, mitoan, zientzian eta tragedian elkar osatzen zuena: Natura eta Izpiritua orain etsaiak dira (natura eta grazia luteranoak legeztu), elkar menperatu nahita dabilta borrokan, etab. (bien arteko adostasuna, gainetik, Jainu Ahalguzti egizale batek bakarrik garantizatzen du, eta hori ere zientzia matematikoa bakarrik), unibertsoa bere buruarekin konfliktoan ari da.

Guzti honen aurkako erreakzioa izan da Idealismoa, h. d., berriro natura zaharrera itzultzeko saio kementsu bat. (Irakurleak hementxe aurkituko duenez, idealismo hori, "Europar zenbait filosofo eskergaren paradoxa seriotan nekez har litekeentzat jotzen dena, Asian herri-fede izateraino mamitu da": Hegelentzat, ezaguna da, batez ere Grezia izango dela erreferentzia). Kant ondoko filosofia guztiak ezaguarazten dituen nabaritasun bat, guztion joera monistak dira -ez Spinozaren sakaldi itzela gabe ("Pantheismusstreit")- zatikatu eta alienatu diren esferen "kontziliapen" bila berriro. Errealitatearen batasun bila berriro. Beraz, "natur-filosofia erromantikoa", ohi deritzenez (nahiz Goetherentzat berdintsu balio lezakeen, esaterako), Naturan atzera izpiritua sartu nahiko da, Ideia, bizitza: bien artean ez da egongo oposiziorik, lotutasuna eta jarraitasuna baino. Natura eta Jainkoa ez da bi, natura eta izpiritua ere ez da bi; Jainkoa ezin izan daiteke esistentziaren buruz-buru - haren kanpoan- ezer. Jainkoa, materia bilakatu eta, naturan barrena iristen da izpiritu, kontzientzitarra. "Natura, Ideia bere bestelako izaeran" da, Hegelen esanean, "Ideiaren bestelakotasuna". Denak berriz Bat izan behar du. Natura ez da hedadura kartesiarra, bizitza da; materia, edo espazioaren betetasuna, ez da energia besterik (Schelling berdinketa honek Einstein aitzinatzen zuela, nahi izaten dizute miresle batzuek - orduko diskurtsu filosofikoa da hori, Schopenhaueren "Nahia" ere hor kokatzen bait da). Naturak izpirituaren legeak gauzatzen ditu; izpiritua, naturak lorarazten du bere baitatik; naturan garatzen eta gauzatzen da izpiritua; izpirituan burutzen da eta aurkitzen du zentzua naturak: denak bere baitan zirkulatzen du. Eta filosofiak berriro unibertsoaren interpretazio zientifikoa, erlijiosoa, poetiko-artistikoa eta metafisikoa izan nahi du batera, edo guztion esplikazioa bederen. Ikuspegi totala.

Esan gabetsu doa, proiektu filosofiko honek buruz-buru talkatu behar zuela, euforikoena orduantxe ari zen, bere gustuarentzat ordea dena prozesu mekaniko, elektromagnetiko eta kimikotan ederki argitzen zuen, natur-zientziarekin. Puntu eskandalagarri entzutetsu bat, gaitzulertze trokotz baten ondorio, "naturako teleologiarena" izan da, batzuentzat eta besteentzat zentzu arras bestelakoa zeukan printzipioa, baina izen berarekin (ik. "Anatomia konparatua" kapitulua). Schelling eta Hegelen azalpenetan, ez da izaten estrainoa, "adimen inkontziente baten xedeez" eta, irakurtzea, "izpiritua-z bere kanpotasunean" adina, Kanten "helburu gabeko helburu edo asmoetz" bezalatsu alegia, zientifikoek oso nekez uler zezaketen diskurtsu bat hain zuzen. (Teleologian, teologoek mutur-sartze bat zuten beldur zientifikoek, nahiko eskarmenturekin halakotan; baina Schopenhauerek ez du gutxiago ekidin nahi filosofian interferentzia hori). Labur: naturako teleologiak ez du adimen bat kreatzaile eta Jainko baratzezainik auresuposatzen. Schopenhaueren kasuan behintzat, adimenik batere ez.

Schopenhaueren Nahia jainko bat da, baina jainko itsua. Nahi du, baina ez zerbait, ez du inolako helbururik. Nahi huts-hutsa da, ezagutzarik ez du. Halere haizu dela, uste du, objektu naturalen (izakien, organoen, funtzioen) "asmo" edo "karia" eta "xedeez", hots, naturako teleologiaz mintzatzea (berak behin eta berriro esplikatu duen



Kanten adieran). Gauza bakoitza munduan, pinu bat adibidez -Schopenhaueri segitzera goaz- Ideia baten gauzapena da (pinutasunarena, esan dezagun). Ideia hori, pinu desberdinek desberdinki gauzatzen dute. Ideia bera bakuna eta bakarra da, zati gabekoa eta diferentzia gabekoa, espazio gabekoa; kontrara, gauzapenak zatiak izango ditu espazioan (sustraiak, enborra, adarrak) eta diferentziak kasu batetik bestera. Har dezagun pinu bat: zatiok, azkenean ez beste edozer gauza (txalupa bat), baina pinu bat itxuratu ahal izateko, pertsegitu behar duten helburua, pinu-osotasuna edo ideia da. Osotasuna, bada, ez da osagaien batuketa soilak (agian kuantitatiboki hala dirudi, baina ez formalki), batuketaren molde edo forma konkretua "jomuga" gisa zein izan determinatzen duena baino. Ez inoren adimeneko programatan, baina pinu-zation naturan dagoen "helburua" (teleologia barrutarra). Era berean, probidentziaren interbentzio gabe, gauza guztien bata-bestearekiko menpetasuna eta egokitasuna esplikatzeko da naturan, otsoa, ardia eta belarra, denak helburutasun perfektuenean armonizatuta agertzeraino (teleologia kanpotarra). "Naturako zati denak adosten dira heren artean, nahi bat delako guzti haietan agertzen dena" (WWV, II, § 28).

Kasu, baina: Schopenhauerek hemen, "les causes finales, ou ce qui est la même chose, la considération de la sagesse divine dans l'ordre des choses", Leibnizen xalotasuna kontsideratzen duena, ateratzen du diskusiora (WWV II/I, kap. 26). Teleologiak, filosofiaren historian, Jainkoaren esistentziaren froga deboto baterako ere balio izan bait du, tradizio biblikoaren ildoan: munduaren armoniak eta ederrak, kreatzaile guztiz adimendutsu baten esistentzia erakutsiko luke. Argumentu klasiko bat izan da (Voltairek berak ontzat ematen zuen). Schopenhauerek -ikusiko duzu- arrazoiketa hori arras arbuiatu du, "zeren ez baitzaio ezer hainbeste kontrajartzen Naturaren eta gauzen esentziaren ikuspen zuzenari, berorien horrelako kontzepzioa adina, zeinak kalkulu zuhurraren ondotik buruturiko obra bailiran". Ordenua eta helburuak, gizakiak ezartzen ditu naturan, eta gero harrimen handiz harritu egiten da, berak lehen ezarritakoa gero hantxe aurkituz. Mundua ez da adimenaren laguntzaz eta kanpotik egin, baina bere barrutik eta nahiak bakar-bakarrik. Adimena ez da naturaren aurrekoa eta egilea, ondokoa eta ekoizpena baizik, haren interpretatzailea, "izaera sekundarioa" eta organismoaren "parte baten [zerebroaren] funtzio organikoa, biziaren emaitza bat, gure izatearen barne-gunea eratzen ez duelarik".

Gure eta den guztiaren barne-gune eratzaile hori nahia da, esan bezala ("Nahimena, aldiz, primarioa da, organismoaren prius-a, beronen baldintzatzailea"). Schopenhauerek ez du abisatu gabe uzten irakurlea, bere originaltasunaren maratila hortxe daukala, "nire doktrinaren ezaugarri gailena, orain arte izandako guztiekin kontrajartzen duena". Eta, egiaz, izadia eta gizadia beren kontu guztiekin, "adimenaren historia" izatetik "nahiaren arkitektura" izatera dakartza Schopenhauerek. Nahiak okupatzen du orain bai Jainkoaren eta bai arimaren (adimenaren) lekua. "Nire doktrinaren, gizonarengan betiko eta suntsiezin dena, beragan bizi-printzipioa eratzen duena, ez da arima, baizik eta, adierazpen kimiko bat erabiltzeko, arimaren radikala, nahimena ". Merezi zuen abisatzea: kolpe honekin eten da, eten ere, arrazoimenaren lehentasuneko tradizio mendebaldar bimilurtezkoa. Jarraitzen duena, Nietzsche eta Freud izango da.

"Mundua nahimen eta errepresentazio gisa" eta "Naturako nahimena"

Obra nagusia, Mundua nahimen eta errepresentazio gisa (WWV), 1818, Dresdenen burutu zuen Schopenhauerek, amarekin betiko hasarretu eta Weimartik aldegin, hogeita hamar urte bete gabe oraindik. Schopenhauer, esan daiteke liburua bakarreko autore dela (B. Magee); eta hori liburua, ideia bakarreko liburua dela, berak esaten zuen. (Espero dezagun, lehenbailehen euskaraz irakurri ahal izatea). Bukatu, inprimarazi, eta, alai-alai, kulturako mundua seko utzi behar zuela sinestuta,

urtebeterako bidaia abiatu zuen Italiara. 1819ko udaberrian, "Oroigarri bat eraikiko dit geroak", abesten zion poematxo batean bere buruari, Napoli eta Erroma artean. Venezian amodiotxo baterako ez zuen galdu abagunea ("Theresa" bat). Interes handienaz ikustatu Italiako artea eta hiriak, eta etxera itzuli zen.

Liburua, urte eta erdian, ez zen saldu ehun ale. Eritzi publikoak, bereziki akademikoak, erreparatu ere ez zion egin. Inolako oihartzunik ez. Goethek berak, pertsonalki bidalia bait zion autoreak ale bat berari, perpaus jendetasunezkoren batzuk marmartu zituen kosta-kostarik eta horrekin salbatu zen. Fiasko hutsa alde guztietatik. Gainera finantzalki ere Schopenhauertarrak estualdi batean erori ziren orduantxe, familiako ondasunen entpresak porrot eginda. Ahots txiki positibo bat bakarra entzun zen desertu handian: Jean Paul [irakur: Xan Pa-ul] nobelistarena, Schopenhauerek ez bait dio ukatu bere eskerronezko aiputxo bat liburu honen konklusio hitzetan. (Itzulpen espainolean Jean Paul hori ez dakit zein "Juan Pablo" txingote bihurtua dabil gaixoa hiruzpalau aldiz).

Naturako Nahimena (WN) ez zen egundaino publikatu izango, gauzak bere idazleak espero bezala ibili izan balira, dio Schopenhauerren obren birrargitalpen kritikoaren arduradun Angelika Hübscherek. Autore bezala frakasatu eta gero, aurrena irakasle gisa ahalegindu da Schopenhauer lehiatsu bere filosofiari zabalkundea ematen jendaurrean (Berlingo Unibertsitatean: entzule gabe geratu da, geroago Nietzsche Basilean bezalaxe). Itzultzaile bezala bigarren, horrela bere filosofiarentzat publikoan ateak irekiko zituelakoan oneritzirako. Eta bere obraren egiztatzaille eta betegintzaille desesperatu bezala hirugarren, luzaro, Frankfurteko erretiro saminean. Urteak eta urteak egon da, WWV-en bigarren argitaldi baterako materialak biltzen eta biltzen, azkenean bildu materialok liburua baino askoz bolumen handiagoa zuten arte, eta anartean bigarren argitaldi beharrik somatzen ez horizontean inondik. Orduan, "hamazazpi urteko isilaldia etenez", WWV lau liburutan partitua dago, eta bigarren liburuari gehigarriak eta oharak, liburutxo honen forman argitaratzea erabaki zuen, "nire filosofiari arreta zuzendu dioten gutxiei hura ezagutzen ez zuten enpiriko aurriritzigabeengandik jaso dituen berrespen batzuk aurkezteko" (1836). Hasieran arrakasta ez zen izan ordura artekoa baino faborezkoagoa. Izan ere Schopenhauerren ezagutza eta interesa publikoan Parerga-rekin hasi da (1851). Orduan bai, WN-ek ere irakurleak ugari aurkitu ditu, 1854ean bigarren argitalpena lortuz; hirugarren argitalpenerako ere oharak egiten eta materialak biltzen jarraitu du Schopenhauerek, baina heriotzak lehenago eraman du. Euskarazko itzulpen honetan, nolanahi ere, kontutan eduki dira eskuzkribuetako nota horiek.

Schopenhauerren testu irakurrienetakoa ezezik, autorearen kuttunenetakoa izan da Naturako Nahimena, haren ustez bere "metafisikaren muina" beste inon baino bipilkiago azaltzen bait da berton. Bere zuzentasunaren froga ere hementxe ikusten da. "Nire metafisika zientzia fisikoekin ukigunea duen bakar gisa agertzen da, eta hauek beren bitarteko propioez biltzen dira gune horretara, halako molde, non beren baitan hartzen duten, berarekin komunztatuz (...). Eta hortik dator nire sistema, aurreko guztiak bezala airean flotatzen ez gelditzea, baizik eta errealitatearen lurtzoru irmoraino jaistea, non zientzi fisikoek ikasleari abegi egiten dioten". Zientziek bere metafisikaren berrespena ekarri dute, beraz, filosofian beste inorekin -Kantekin ere- gertatu gabekoa, izadia bere baitan nahimena delakoaren froga alegia. Kapitulu kapitulu ikusiko ditu froga horiek irakurleak. Eta Schopenhauerek bere garaiko zientzia eta beharbada ez zientzia adinako batzuentzat -magiarentzat, adibidez, gure Miranderen antzera- nolako ikusmina zuen, kausituko du halaber.

Uler gaitzen: zientziek (enpiriak) propioki ezin lezakete metafisikarik berretsi. Egin lezaketena da, ikertzailea metafisikaren mugaraino eraman eta, zorte onarekin,

"beren azter-eremua mugatzen duen gortinan barrena itzalgaizka begiratu bat egitea" permititu, hori aski froga bait da, bestelakorik ezin den barrutiotan. Metafisikoa eta zintzilari enpirikoa "lurraren barruan bi galeriatan lanean ari diren bi meatzariren aldartean aurkitu[ko dira horrela], zeinak beren artean urrun dauden guneetatik abiatuz, gune berean aurkituko diren, lurpeko ilunpetan azpilanean ibili ondoren, sestraz eta iparorratzaz bakarrik fidaturik, eta zeinek azkenean bata bestearen mailukadak entzutearen poz irrikatua sentitzen duten. Zeren ikertzaile horiek ezagutu egiten baitute orain alferrik hain luzaro bilaturiko Fisika eta Metafisikaren arteko topagunera heldu direla, zeinek zeruak eta lurak bezala ez zuten inoiz elkartu nahi, eta beren lotunea aurkitzean bi zientziek elkarren arteko adiskidetzeari ekin dioten. Baina garaitzapen hori lortzen duen filosofi sistemak, bere egia eta zuzentasunaren kanpotiko egiaztapen hain sendo eta frogatzailea hartzen du, non handiagorik ezin den". Zentzu honetan, Asiako kultura guztiak ere berretsita sentitzen da Schopenhauer, natur zientziez beste (ik. liburu honetantxe "Sinologia" kapitulua).

Metafisikaren arazoa hau da, "esperientziaren osotasuna" argitu nahi duela; baina osotasuna bera denaz bezanbatean, ez dela hura erdietsi ahal zatien argiketen bitartez, hots, zientzia partikularren suma bezala. Osotasuna eta batuketa bi gauza da. Horregatik, beharbada kosmo ikerketaren batuketak aurrerapen handiak lortzen ditu egunotan, osotasunaren esplikazioari (metafisikari) ez zaio gehiago hurbiltzen horrekin.

Beraz, zientziek berretsi ere ez dute metafisika hipotesi enpiriko bat berrets daitekeen moduan egiten. Errealitate molde diferentea tratatzen duten bezala, diferenteak dira nahitaez beren metodoak, esplikazio moldeak ere bestelakoa izan beharko da zientzietan eta metafisikan (filosofian). Beraz honela, munduaren esplikazio metafisiko baten egizta edo gezurtapenak, bere baitatik bakarrik etorri ahal izango du finean.

Schopenhauerek hieroglifo edo kriptograma baten asmaketarekin konparatu du metafisika. Hain zuzen, 1799an Armada napoleonikoko ofizial batek ustegabeen idorotako "Rosetteko Harria" (Brit. Museum), 1822an lortu zuela J.-F. Champollion egiptologo frantsesak dezifratzea, gomutatu behar dugu, bapatean hieroglifoaren kultura egiptiar enigmatiko guztia argitzeko giltza errebelatuz. Esperientziaren osoa, dio Schopenhauerek, hieroglifo edo grafia sekretu batean idatziriko testu bat bezalakoa da; eta filosofia, haren dekodapenean datza (WWV II/I, kap. 17). Alfabeto ezezaguneko idazki bat aurkitzen denean, interpretazioa saio-saioka saiatu beharra dago, hitz solteak berregitea lortzeko aurrenik, esaldi osoak hurrena, testu guztia eta grafia molde hartako edozein testu azkenik. Dekodapen giltza hori daukagunean, ezerk ez du frogatzen giltza horren zuzentasuna, berak berberak baizik; bigarren, ordea, logikoki ezin da frogatu, testuak ametitzen duen dekodapen sistema posible bakarra horixe denik eta besterik absolutuki ezin egon daitekeenik. Beraz, munduaren irakurketa filosofikoaren ziurtasun tipoa ezin izango da sekula ezagutzaren tipo logiko edo matematikoaren gisakoa. Baina bai ziurtasun razional oso-osokoa bere tipoa. Zuzentasunaren froga eta egiztapena, bere koherentzia eta errealitateko fenomeno guztiekin bere adostasunean dago. "[a] Das Ganze der Erfahrung gleicht einer Geheimschrift, und die Philosophie [b] der Entzifferung derselben, deren Richtigkeit sich [c] durch den überall hervortretenden Zusammenhang bewährt". Metafisika hori beti ere esperientziaren eremu barruan geratzen da, Kantek esigutu bezala ("sie ist demnach Erfahrungswissenschaft") eta esperientziarekin bat etorri behar du puntuz-puntu. Metafisikak argi batez eta berdinez argitzen ditu esperientziako gertakari denak eta detaile guztiak txiki-txikienetaraino. Ulertzen da, hortaz, Schopenhauerentzat natur zientzien "berrespenak" zuen garrantzia txitezkoa, bereziki natura inorganikoaren ikerketek bere ustean ekarri ziotena (ik. "Astronomia fisikoa"). Aitzitik, Leibnizen optimismoa, Spinozaren fatalismoa, Wolff

metafisika kristaua, gizadiaren aurrerapidearen teoria betegintasunera, etab., baztertu beharrekoak ageri dira denak esperientziarekin adostezintzat. Bere "munduaren nahi eta errepresentazio" filosofiak argitu du azkenean munduaren enigma. Harro senti zitekeen, beraz, "datorkeen aroko filosofiaren" aita.

Naturako Nahimena filosofiaren historia modernoan liburu arrakastatsuenetakoa izan bide da irakurlerian. Schopenhauerren filosofia guztia da, bere zientziaren, erlijioaren eta filosofiaren gogoetarekin, interes franko aurkitu izan eta aurkitzen duena oraindik, filosofian interesatuak direnen eta bestela izan ohi ez direnen artean ere, Naturako Nahimena honek zientzilari artean adibidez. Dirudienez liburu honen irakurketak egundoko zirrara egin zion bihotzean Unamunori eta itzuli egin zuen (1889), beronen itzulpena bait da espainolez oraindik argitaratzen dutena. Salatu beharra legoke, haatik, Unamunok orohar Schopenhauerren filosofia ongiegi ez duela ulertu<sup>1</sup>, eta batzutan haren hitzak<sup>2</sup> eta perpausak<sup>3</sup> berak alderantziz erabiltzen dituela, zenbait

---

<sup>1</sup>Erabat filosofia absurdua da: "No un intelecto, sino la naturaleza del intelecto es lo que ha producido la Naturaleza"; esan ere Schopenhauerek ez bait du esan inoiz holako itxuragabekeriarik, itxuroso asko hauxe baino: "Nicht ein Intellekt hat die Natur hervorgebracht, sondern die Natur den Intellekt", ez du sortu adimenak natura, naturak adimena baizik.

<sup>2</sup>Adibidez: "Bueno será decir, sin embargo, a todos esos señores de Francia y de Alemania, que es la filosofía para algo distinto que hacerle el juego al Papa" (!) (*den Pfaffen* - pluralean gainera). Nik ez dakit Unamunok nola suposa zezakeen, Hegel eta konpainia, ezertaz bai eta "de hacerle el juego al Papa" salatu behar zituela Schopenhauerek. (Zer ulertu ote du Unamunok, WWV-an Schopenhauer "jener abscheulichen Englischen Pfaffenschaft" hartaz burlatu denean? Zenbat ote ziren Ingalaterrako Aita Santuak, eta zeintzu?). Dena den, itzulpen honek lortu du, Alianza Editorialeko argitalpenen hitzaurregile Santiago González Noriegak (1982, 8), honela esplikatzea Schopenhauerren lekua bere garaiko filosofoen giroan: "su aislamiento en los medios académicos es visto como el resultado de una conjura de los filósofos de oficio que pretenden hacerle el juego al Papa". (Gainera, ez dakit zergatik, Alianza-k liburuaren titulu alemana bera "korrijitu" nahi izan du: *Über die Wille* (sic!) *in der Natur*). Berdin, Hegelen jarraitzaileak barregarriak edo

kasutan behintzat testuaren eta pentsamenduaren perbertsio grabeetarako. "(...) Se cita el imperativo categórico de Kant con estas palabras: debes, luego puedes (du sollst, denn du kannst)"<sup>4</sup>. Justu alderantziz da. Magiaren munduan sartuta, Unamunok bazuen edozein maratoi aisa irabazteko metodo partikular bat ere nonbait: "Y así ha de entenderse también del andar; lo deseo, me lo propongo, y se mueve mi cuerpo, y, cuanto más rápido mi pensamiento, corro con mayor rapidez"<sup>5</sup>. Benetan, alemanerako kasuen eta generoen zehaztasunak enbarazo egiten bazion, antza, ahal izatearekin, behar izatearekin eta nahi izatearekin, ez zen batere ongi moldatzen gure Unamuno.

Schopenhaueren bizitzaz eta garaiaz

Arthur Schopenhauer Danzigen jaio zen (Poloniako Gdansk egun) 1788an; Frankfurt a M.en hil zen 1860an.

Jaiotzako tenorea, beraz, Kanten aktibitate filosofiko bizkorrenarena izan da (Arrazoimen Praktikoaren Kritika haren jaiotzaren urte berekoa da); Frantziako Iraultzarena eta -Napoleon, etab.- jarraiko Europa osoaren nahasmendu politikoarena, Schopenhauer familiari laster Danzigetik Hamburgora emigraraziko diona. Dinbidanba, sozial zein intelektualki, Europa osoa iraulbidean doa sutsu etorkizun fierretarantz. Hil denerako, aldiz, filosofia idealista lurrean datza eroria, sendo errestauratua dago berriz Europa, Estatuak bermatuta, zaharra nonahi berrituta, "periodo iraultzaileak" eta esperantza sozialak aldi baterako itzalita; kulturalki zientziaren nagusigo aroa eta literaturan naturalismoa goititzen ari dira, XIX. mendearen bigarren erdiko beste klima gotor hori, aurren erdiko filosofia ausartak eta erromantizismoak

---

dibertigarriak izan litezke, ez dira "endiosados" ("*ergötzlichen* Adepten der Hegelschen Mystifikation"), etab.

<sup>3</sup>"La posteridad juzgará a cada cual según sus obras, aunque no sabrá quiénes de sus coetáneos han aceptado las mías". Alegia: "Wer die Einzelnen waren, wird die Nachwelt an ihren Werken sehn; an der Aufnahme, die diesen geworden, aber nur, wer die Zeitgenossen". Euskaraz zuzen: "Ondorengotzak zer izan den bakoitza bere obren arabera epaituko du, eta atxekitasunaren arabera, denborakideak zer izan diren".

<sup>4</sup>Zuzen euskaraz: "Hitz hauekin aipatzen da Kanten inperatibo kategorikoa: behar duzu, ahal duzunez gero".

<sup>5</sup>Ondo: "Horrela ulertu behar da ibiltzea ere: desiratzen dut, proposatzen dut, eta mugitzen da nire gorputza, eta zenbat eta ziurragoa [sendoagoa, bortitzagoa] nire pentsamendua, hainbat eta ziurragoa korrika egingo dudala". Hain zuzen ideia zentral bat da Schopenhaueren filosofian, nahiaren eta gorputzaren identitatea ulertzeko.

garaituta. Erreferentzia bat edukitzeko, Darwinen Espezieen jatorria, ikusmolde berri baten adierazten duen garaipen definitiboarekin, Schopenhauer hil aurreko urtean argitara da. Kant eta Darwin artean koka liteke Schopenhaueren pentsamendua beraz.

Wilhelm Gwinner, haren aurren ikertzaileak kontatzen du, Schopenhauerek ez zuela nahi, bere biografiako xehetasunak biltzera inor arta zedin, jantzita eraman eta gero botatzen den soineko baten antzekoa ei delako hura. Izan ere bera, egiaz izan, omen bait zen, "Mundua nahimen eta errepresentazio gisa idatzi duena, eta esistentziaren problema handiari eman duena soluzio bat, beharbada orain arteko guztien ahazkarria, hurrengo mendeetan pentsatzaileak enplegatuko dituen edonola ere". Puntu. Horixe zuen bere biografia. Ez bide zuen ohartzen, ohartzen digu Gwinnerek guri, zein hertsiki loturik doazen haren esperientzia pertsonalak eta pentsabideak. Biografo guztiek seinalatzen dute gauza bera. Baina pertsonari ez daukagu zergatik elkarrekikotasun horietaraino begiratu - liburu honek behintzat ez du horren beharrik. Nahikoa izango da, filosofia modu hau sortu deneko inguru-minguru giroa azaltzea piska bat, Ipar Europako burgesia handiaren bizieran eta, gero, pentsamenduaren alorretan, iragaitz une horretan.

Schopenhauer (irakur: "xópen-", azentu bortitzez) "hiri libre" alemanetako ekoizpen hansatar tipiko bat da, horrelakorik egon daitekeen neurrian. Burgesia merkataria handiko leinu handizua ziren Schopenhauertarrak. Gogora daiteke, aitonak bere etxean ostari eta gomit eduki zituela Errusiako Ksar Peter Handia eta Ksarisa Katerina; eta aita, Prusiako Frideriko Handiarekin pribatuki solastu izan zela zuzemen asmotan, honek interes bizia zuelako merkataria harremantsua Berlinera erakartzeko. Harreman gorenetakoa etxea zen, hortaz, belaunez belaun. "Point de bonheur sans liberté" zuen familiak ikurritza, frantsesez noski ("atsegintasunik ez askatasun gabe"). Izpiritu gorbizi hau jarauntsiko du filosofoak. Poloniaren bigarren partiketan Danzig Prusiari esleitu izanik, aita jaunak, errepublikano ilustratu porrokatuak, ondasun guztietatik hamarrena galdu behar izan arren horregatik, familiarekin Hamburgora aldatu zuen bizitokia derrefente, Hansa hiri libre berau ere, askatasun bila (1793: gure autoreak bost urte zuela). Hamburgon ere, Klopstock, Reimarus, eta Lord Nelson eta Lady Hamilton bezalako jendea, politikoak, artistak, literatoak, Schopenhauertarren etxean gomitak izan dira.

"Arthur" izena, izen guztien artean aita artos-artoski aukeratua izan da, Alemanian, Frantzia eta Ingalaterran berdina delako eta idatzi ere hiru mintzairetan berdin idazten delako. Heinrich Floris Schopenhauer jaunak puntu guztietan enpeinurik atzar-atzarriena ipini du, merkataria iaioa espero zuen bere semea munduko hiritar gisa ongi prestatzeko txiki-txikitatik (egin zituen eginahalak umea Ingalaterran jaio zekion ere, baina, ama haurduna ondoeztu eta, ezin izan zuten haraino bidegin). Gurasoek maiz irteten zuten atzerrira eta semetxoa berekin eramaten zuten. Bederatzi urte zuen orduko, bidaia baten ostean Frantziara, Le Havreko merkataria lagun baten etxean utzi zuten mutikoa bi urte (1797-1799), adin bereko haren semearekin batera eskola frantsesean ibiltzeko (filosofoaren bizitzako bi urte zoriontsuenak, bere esanean). Etxera itzuli zenean, frantsesa osoki menderatzen zuen; alemana atzenduta zeukan, jasez mintzatzeko zailtasunekin. Laster beste hiru hilabeteko bidaian atera ziren Karlsbad eta Praha aldera. Hamburgon irakasle partikularrekin ikasi zuen beti. Ikasgura asegaitzekoa, halere, hamabost urterekin, Institutuan ikasketak erregulariki segitzeko gogoia agertu zuenean -hori ez bait zen merkataria trebea izateko behar zen formazioa-, aita, maltzurki, aukeratzeko eman zion: eskola hori, ala bi urteko ikas-bidaia bat Herbehereak, Ingalaterra, Frantzia, Suitza eta Austrian barrena, gero familiako entresan merkatal karrerari ekiteko. Mutilak bidaia hobetsi zuen. Aita nahi zuen hezkuntza kosmopolita guztiz konplitzeko, Wimbledonon pastore baten barnetegian

geratu zen hiru hilabetez, gurasoek uharte iparraldea bisitatzen zuten artean, ingelesa perfektzionatzen, eta xirula jotzen eta santukeria ingelesaz burlatzen ikasten. Schopenhauerek ingelesa, frantsesa eta alemana bere ama-hizkuntzak bezalatsu menderatzen omen zituen hirurak, eta oso ongi omen zekitzan gainera italiera eta espainola, eta latin eta greko klasikoak, hizkuntza guztietako literaturen ezagutza zorrotzaz.

Urteak geroago, atzera begira, gazte baten hezkuntzarako bi urte itxuraz osoki galduon irabazi paregabea nabarmendu du Schopenhauerek: gure baitan gizona iratzartzen ari den adin horretan, dio berak, nerabearen izpiritua jakinminena denean, eta nondinahiko inpresioei eta gauzen ezagutzari ireki-irekiena dagoenean, ez ninduten, ohi den eran, termino hutsalez eta oraino ezin atzeman daitezkeen azalpenez okitu, adimenaren jatorrizko zorrotzasuna kamustuz eta aspertuz horrela; ezpada gauzak berak diren-direnean oharrikasten ikasi nuen aski goiz, eta berba ikasiekin soil ez kontentatzen gauzen lekuan.

Arthur Schopenhauerren karrera unibertsitaria aita hil eta gero hasi da, merkataritza eta familiako entresa utzi ahal izan zituenean eta bere senipartea jaso, adinez nagusitu zenez gero (berriz ere irakasle pribatuekin eginez Unibertsitatean sartzeko prestakuntza ikasketak). Filosofiarako interesa geroago sortu zaio: hogeitabat urteko gaztea zientzietarako zegoen irrikituena eta, Göttingengo Unibertsitatean matrikulatu zenean, 1809an, Medizina estudiatzeko egin zuen, beti legez denetarik saloketaz irakurtzen jarraitzeaz gain, aurreneko urtean fisika, mineralogia, historia naturala eta botanikako eskolak hartuz. Filosofiarako Fakultatera aldatu eta gero ere natur zientzietako klaseetara joaten jarraitu zuen, fisiologia, astronomia, etab., bai Göttingenen eta bai gero Berlinen (zoologia, ornitologia, etab.). Osoki filosofiari lotzea erabakita, Berlingo Unibertsitateara aldatu da (1881), Fichte han zegoelako irakasle, Alemaniako filosofo sonatuena momentuan. Baina bere itxaropenak maisu harengan arras fundituak geratu dira laster. Handik hara, tesi doktora aurkeztu (Jenan) eta, Dresdengo erretiroan (1814-1818), bere filosofia propioa eraikitzeari ekin dio. Handik aurrerakoa goian ikusi dugu.

Schopenhauerren biziarteko denboran hiru korrante zabal berez daitezke kultura alemanean, beti ere hemen harekiko erlazioa interesatzen zaigula, zein giro intelektualetan umotu den pentsamendu hori ulertzeko:

1. "postkantismoa" orokorki deituko genioke lehenari, ahalik neutralena izendatzeko, propio alor filosofikoan. Izan ere, Kanten ondoko filosofo denak dira Kritikaren Maisuaren zordun, jarraitzaile, nolabait osatzaile, baina beren artean elkarri ukatu egiten diotenak horixe izatea. Maiz tonu txit garratzetan, Schopenhauerek bere burua edukiko du Kanten filosofia transzendentalaren ulertzaile eta jarraitzaile zintzo bakartzat Alemanian, besteak haren arerio maltzur edo interesatutzat salatuz ("jaun horien ganbelari hondealana egin zielako").

2. natur zientzien aitzinamendu azkarra eta zientifismoa edo fedea zientzian. Renanen deklarazio sonatuak (1848: Manifestu Komunista-ren urtea bestalde) ebakor aski dienez: "Zientzia erlijioa da; zientziak bakarrik soluzionatzen dizkio gizakiari, beronen naturak soluzioa premiatsuki galdatzen duen, problema eternoak". Eraginik erabakiorrena mentalitate aldakuntzan aurrerapen biologiko, anatomiko, fisiologikoez izan dute (transformismoak, etab.), hots, morala, pentsamendua zer diren, gizatasunaren misterioa, zientifikoki argi zitekeela, ustearazi duten aurkikuntzek. Gero, unibertsoaren nondik norakoa zientifikoki -Jainko eta Biblia gabe- osoki esplikatzeke fedea ere beroa izan da tenore honetan. Zientifismoa bi frontetan borrokatu da hortaz: batetik filosofiaren aurka, zientziak gaitortutza jotzen bait da "espekulazio" hori (Cournotek aitortuko duenez, "egia filosofiko hutsa" ez da interesatzen ezertarako); erlijioaren aurka

bestetik, edo "Bibliaren aurka", beharbada hobeto, filologiak, epigrafiak, arkeologiak eta historia kritikoak lagunduta: Genesi-ko lehen kapituluak eta "Jesusen bizitza", bi gai guztiz polemikoak izan dira XIX. mende osoan. Hain zuzen, irakurleak eskuetan duen liburua, bigarren edizioaren hitzaurrea, zientzien "materialismo" zarpail horrekin polemikan hasten da. "Ez legoke gaizki arrago eta saiodi arteko jaun horiek konturatzea kimika hutsak botikari izateko gaitzen dituela, baina ez filosofo izateko". Ordea Schopenhauer bera materialista erradikaltzat hartu ohi da, bestetik, filosofian. Zientziaren eta filosofiaren alorrak ongi mugatzea izango da Schopenhauerren egiteko bat liburu honetan.

3. erromantizismoa aipatu behar hirugarren lekuan, nahiz ez daukagun, horrekin zer ulertu agertzera sartzerik zehazki. Nolanahi ere, Mozart 1791an hilik, Beethovenen Heroikoa-k mende gaztea iratzarrita (maiz erkatzen bait dira musiko hau eta gure filosofoa), espinetari edo biolinei barik aurrerantzean konfidentziak pianoari egingo zaizkiola; pinturak, poesiak, naturaren kontenplazioan esperientzia estetiko eta mistiko pertsonal bat bilatzen dutela, ez Arkitekto Handiaren geometriak; lehen erdi hori ehunurtean izpiritu erromantikoaren susperraldikotzat hartu ohi da arrunt letra nahiz arteetan (Schopenhauer baino hilabete bakarrik lehen jaio da Lord Byron; alemanaren obra filosofiko printzipalaren pareantsu argitara dira literato ingelesaren Manfredo eta Don Juan) eta hori aski guretzat, zorroztasun gehiago gabe, Nahimenaren filosofia hau nolako atmosferatan bururatu zen lekurtzeko. Schopenhauerren ama, Johanna Schopenhauer, "andre nobelista" erromantikoen artean aipatzen da beti. Askorentzat erromantizismoaren gailur-gailurra eta "filosofo erromantikoa" bera antonomasiatz Schopenhauer genuke (B. Croce, etab.); zenbait besterentzat idazle eta estilista arras klasikoa da, ordea, filosofo erromantikoa izateari utzi gabe (E. Friedell); kontzeptu horiek piperrik ez omen dute balio Schopenhauerentzat, lardasteko ez bada, Thomas Mannen esanean.

Gero, erromantizismoa, edo hori dena, nola baloratzen den, dago kontua. Orain urte batzuk itzal handia izan zuen Euskal Herrian Georg Lukácsen El asalto a la razón liburuak. Autore horrentzat Schopenhauerren filosofia ezezik pertsona ere kapitalismoaren irrazionalkeria guztien inkarnazioa bezalatsu da, "erreakzio burgesaren gorakadaren" espresioa. Haren doktrina, alegia pesimismoa eta irrazionalismoa, errestituzio prusiarraren adierazpen teoriko garbia, progreso ororen ukoa, erantzukizun politikoaren bazterketa, "ordenu sozial kapitalistaren zeharbidezko apologetika". Progresisten bandoan banderak maiz aldatzen dira, ordea, eta honez gero Karl Popper superdemokrataren laudorioak Schopenhauerren "prestutasun handienari, ororen gain egia ohoratzen zuenari" tokatuko da agian aintzat hartzea progresoaren artaldean. Schopenhauer gaixoarentzat ez da izango horixe desgrazia makala.

Dena dela, razionalitate estriktoenaren prototipoa Wittgensteinek dirudien honetan, paradoxal samarra gertatzen da, azken denboran haren ikertzaile guztiak, puntuz puntu, zeinek agerianago jartzen ari direna (Bryan Magee, 1991, xehe-xeheki azaldua), Schopenhauer irrazionalista ilun hori izan omen dela alegia, haren gan influentzia goiztiarrena eta sakonena izan zuen filosofoa. Nola esaldi beneragarria - adibide bat ipiteko-, gainerakoaz isildu egin behar omen dela? "Schopenhauer insistía en que debíamos enfrentarnos a todas la consecuencias del hecho de que las posibilidades del conocimiento humano fueran limitadas: el que exista algo que esté totalmente fuera de su alcance nos es totalmente incognoscible. Lo que es más, la naturaleza de ese algo nos sería incomprendible si un ser superior a nosotros tratara de explicárnosla. De manera que 'la naturaleza de aquello que está antes y después del mundo no es susceptible de investigación'. La frase final del Tractatus de Wittgenstein



constituye la mejor expresión de la consecuencia más sincera que podemos sacar de todo ello" (B. Magee).

Razionalitate modernoenaren maisuaren maisu hau, esaten den bezain irrazionala, ez da izan apika. (Beste arazo bat da, razionalitate denak ez direla derrigor "ilustratuak" izaten...). Ildo horretatik sartu eta joan dira gure Unamuno, Etxepare, Baroja, Mirande. Ez dira berak izan izpiritu gutxiena kritikoak hain zuzen gure historian.

## BIBLIOGRAFIA

### a) Schopenhaueren obra

Sämtliche Werke, herausgegeben von A. Hübscher, 7 lbki. Wiesbaden 1946-1951.

Zürcher Ausgabe, herausgegeben von A. und A. Hübscher, 10 lbki. eta gehigarri bat "Über Arthur Schopenhauer", Zürich 1977.

Sämtliche Werke, herausgegeben von W. Frhr. v. Löhneysen, 5 lbki., Stuttgart 1960-1964.

Der handschriftliche Nachlass, herausgegeben von A. Hübscher, 5 lbki., Frankfurt 1966-1975.

Gesammelte Briefe, herausgegeben von A. Hübscher, Bonn 1978.

Arthur Schopenhauers Gespräche, herausgegeben von A. Hübscher, Stuttgart-Bad Cannstatt 1971.

.....  
FRAUENSTADT, J., Schopenhauer-Lexicon, Leipzig 1871.

STABENOW, K., Schopenhauers Schriften, Regensburg 1922. Schopenhaueren idazkien azalpen deskribatzailea.

WAGNER, G. F., Enzyklopädisches Register zu Schopenhauers Werken, Karlsruhe 1909.

### b) Schopenhaueren bizitzaz

ABENDROTH, W., Schopenhauer in Selbstzeugnissen und Bilddokumenten, Reinbek bei Hamburg 1967.

FISCHER, K., Schopenhauers Leben, Werke und Lehre, Heidelberg 1934.

GRISEBACH, E., Schopenhauer. Geschichte seines Lebens, Berlin 1897.

GRISEBACH, E., Schopenhauer. Neue Beiträge zur Geschichte seines Lebens, Berlin 1905.

GWINNER, W., Schopenhauer aus persönlichem Umgang dargestellt. Ein Blick auf sein Leben, seinen Charakter und seine Lehre, Leipzig 1862 (hurrengo argitalpenetan: Schopenhauers Leben).

HÜBSCHER, A., Arthur Schopenhauer. Ein Lebensbild, Leipzig 1938.

PISA, K., Schopenhauer. Geist und Sinnlichkeit, Wien 1977.

SAFRANSKI, R., Schopenhauer und Die wilden Jahre der Philosophie. Eine Biographie, München 1987.

VOLKELT, J., Schopenhauer, seine Persönlichkeit, seine Lehre, sein Glaube, Stuttgart 1900.

### c) Inguru kultural eta filosofikoaz

BRINKMANN, H., Die Idee des Lebens in der deutschen Romantik, Berlin 1926.

CARIDDI, W., Studi schopenhaueriani. Schopenhauer e la cultura romantica, Lecce 1964.

EBELING, H.-LÜTKEHAUS, L. (ed.), Schopenhauer und Marx. Philosophie des Elends - Elend der Philosophie?, Meisenheim 1980.

FOUCHER DE CAREIL, A., Hegel et Schopenhauer, Paris 1862.

- GLOCKNER, H., "Schopenhauer im Traditionszusammenhang der europäischen Philosophie", in: Schopenhauer-Jahrbuch, 1955, 72 ss.
- GWINNER, W., Schopenhauer und seine Freunde, Leipzig 1863.
- LÖWITH, K., Von Hegel zu Nietzsche. Der revolutionäre Bruch im Denken des neunzehnten Jahrhunderts, Stuttgart 1950.
- LUKACS, G., El asalto a la razón, Barcelona 1975 (or. 158-201)..
- PICLIN, M., Généalogie de Schopenhauer, Les Etudes Philosophiques, 1977/4.
- PFALZ, C., Goethe und Schopenhauer, Leipzig 1888.
- POPPER, K. R., Die offene Gesellschaft und ihre Feinde, Bern/München 1970.
- RICONDA, G., Schopenhauer interprete dell'Occidente, Milan 1969.
- RICHTER, R., Schopenhauers Verhältnis zu Kant in seinen Grundzügen (Diss.), Leipzig 1893.
- SAUERLAENDER, E., Goethes Faust und die Schopenhauersche Philosophie, Frankfurt 1885.
- SCHMIDT, A., Idee und Weltwille. Schopenhauer als Kritiker Hegels, München/Wien 1988.
- STRICH, F., Deutsche Klassik und Romantik oder Vollendung und Unendlichkeit, Jena 1928.
- TENGLER, R., Schopenhauer und die Romantik, Berlin 1923.
- WAPLER, P., "Die geschichtlichen Grundlagen der Weltanschauung Schopenhauers", in: Archiv für Geschichte der Philosophie 11 (1905) 369-394 eta 507-536.
- WILLY, B., Schopenhauer in seinem Verhältnis zu Fichte und Schelling (Diss.), Zürich 1883.
- d) Schopenhaueren filosofiaren azalpen orokorrak
- CLAUS, H., Die Philosophie Schopenhauers. Einführung in eine vorurteilsfreie Weltanschauung, Frankfurt 1968.
- GARDINER, P., Schopenhauer, Hardmondsworth 1963.
- HORKHEIMER, M., "Die Aktualität Schopenhauers", in: Schopenhauer-Jahrbuch 42 (1961) 12 ss.
- HÜBSCHER, A., Denker gegen den Strom. Schopenhauer gestern - heute - morgen, Bonn 1973.
- MAGEE, B., Schopenhauer, Madrid 1991.
- MANN, Th., Schopenhauer, Stockholm 1938.
- PHILONENKO, A., Schopenhauer. Une Philosophie de la tragédie, Paris 1980.
- ROSSET, C., Schopenhauer, philosophe de l'absurde, Paris 1967.
- ROSSET, C., Schopenhauer, Paris 1968.
- VECCHIOTTI, I., Schopenhauer, Madrid 1972.
- WEIMER, W., Schopenhauer, Erträge der Forschung, Darmstadt 1982.
- WOLFF, H., "Schopenhauers Verhältnis zur Romantik und Mystik", in: Schopenhauer-Jahrbuch, 1914, 277 ss.
- WOLFF, H. M., Arthur Schopenhauer. Hundert Jahre später, Bern 1960.
- e) "Naturako Nahimena"z eta Natur Zientziez
- AUTRUM, H., "Der Wille in der Natur und die Biologie heute", in: Schopenhauer-Jahrbuch 50 (1969) 89 ss.
- BLOCH, K., "Schopenhauer und die moderne Naturwissenschaft", in: Die Naturwissenschaften 37/7 (1950) 145-150.
- HENNEMANN, G., Naturphilosophie im 19. Jahrhundert, Freiburg 1959.
- HARTMANN, H., "Schopenhauer und die heutige Naturwissenschaft", in: Schopenhauer-Jahrbuch 45 (1964) 13 ss.

HORKHEIMER, M., "Bemerkungen zu Schopenhauers Denken im Verhältnis zu Wissenschaft und Religion", in: Schopenhauer-Jahrbuch 53 (1972) 71 ss.

JOEL, K., Der Ursprung der Naturphilosophie aus dem Geiste der Mystik, Jena 1906.

KEUTEL, O., Über die Zweckmässigkeit in der Natur bei Schopenhauer, l/g., d/g.

MAY, E., "Schopenhauer und die heutige Naturphilosophie", in: Schopenhauer-Jahrbuch 36 (1955) 10 ss.

PRIMER, H. R. A., Das Problem des Materialismus in der Philosophie A. Schopenhauers (Diss.), Frankfurt/New York 1984.

SCHEWE, K., Schopenhauers Stellung zu der Naturwissenschaft, Berlin 1905.

SCHULTZ, P., "Schopenhauer und seine Beziehung zu den Naturwissenschaften", in: Deutsche Rundschau 101 (1899) 263-288.

VOIGT, H., "Wille und Energie", in: Schopenhauers-Jahrbuch 51 (1970) 133 ss.

WENG, G., Schopenhauer-Darwin, Pessimismus oder Optimismus, Berlin 1911.

ZAMBONINI, F., "Schopenhauer und die moderne Naturwissenschaft", in: Schopenhauer-Jahrbuch, 1935, 44 ss.

f) Bibliografien bibliografia

RAHLFS, G., "Schopenhauer-Bibliographie", in: Gedächtnisschrift für A. Schopenhauer, Berlin 1938.

"Schopenhauer-Bibliographie der Bibliographien", in: Schopenhauer-Jahrbuch, 1945-1948, 264.

HÜBSCHER, A., Schopenhauer-Bibliographie, Stuttgart-Bad Cannstadt 1981.

1912tik aurrera Schopenhaueri buruzko ekitaldien eta idazkien informazio sistematikoa periodikoki ematen da, in: "Jahrbuch der Schopenhauer-Gesellschaft" (bibliografia honetan Schopenhauer-Jahrbuch bezala aipatua).

## SARRERA

Hamazazpi urteko isilaldia etetera noa<sup>1</sup>, bere garaiari aurea hartuz, nire filosofiari arreta zuzendu dioten gutxiei hura ezagutzen ez zuten enpiriko aurriritzigabeengandik jaso dituen berrespen batzuk aurkezteko, zeinak esperientzia hutseko ikerketen beren bideari jarraika, nire filosofiak metafisikotzat finkaturik zeukan hartara bertara iritsi diren, zeina den esperientziak azaldu behar diguna orokorrean. Inguruabar hainbat adoregarriago zait, non nire sistema aurreko guztietatik bereizten duen, zeren horiek guztiak, salbuespenik gabe, baita **Kant** beraren azkenekoen ere, hosi handia aurkezten baitute emaitzen eta esperientziaren artean, eta tarte handia falta dute honetara jaitsi eta beronekin harremanetan jartzeko. Nire metafisika, beraz, zientzia fisikoekin ukigunea duen bakar gisa agertzen da, eta hauek beren bitarteko propioez biltzen dira gune horretara, halako moldez, non beren baitan hartzen duten, berarekin komunztatuz. Kontua ez da zientzia enpirikoak bortxatu eta bihurtzea metafisikaren arabera, ezta hori abstrakzioz ondorioztatzea ere, Schellingek egiten duenez haiek auresuposatuz, *a priori* aurkituz *a posteriori* ikasia; baizik eta berenez, aurretiazko akordiorik gabe, puntu berean bat etortzea. Eta hortik dator nire sistema, aurreko guztiak bezala airean flotatzen ez gelditzea, baizik eta errealitatearen lurtzoru irmoraino jaistea, non zientzia fisikoek ikasleari abegi egiten dioten.

Hemen aipatu beharreko berrespen estrainio eta enpirikoak, beren osotasunean nire doktrinaren muin eta gune nagusiari dagozkio, bere metafisikari zehatz esateko, egia oinarritzeko eta paradoxazkoari: **bere baitango gauza**, **Kantek fenomenoari**, nik **errepresentazio** deituari kontrajarria, **bere baitango gauza** hori, ezagutezintzat hartua; fenomeno guztien eta Natura osoaren substrato hori, beraz, ezer besterik ez dela, berehala eta oso era hurbilekoan ezaguna zaiguna baizik, geure izate beraren barruan aurkitzen duguna **nahimen** gisa, eta beraz, orain arte filosofo guztiak uste izan dutenaren aurka **nahimen** hori **ezagumenetik** zerbait banaezina zela alegia eta beronen emaitza hutsa, funtsean bestelako eta burujabe zaiola erabat; **ezagumenaz** aparte, zeina jatorri sekundario eta berandukoagoa den, beraz, nahimenak badu iraun eta agertzeko ahalmena **ezagumenik** gabe, zeina den Natura osoan egiazki eta izatez gertatzen dena

animaliatik behera. Bere baitango gauza bakarra den nahimen hori, egiazki erreala den bakarra, jatorrizko eta metafisikazko bakarra, gainerako guztia fenomenoak besterik ez diren mundu batean, hau da, errepresentazio hutsa, nahimen honek ematen dio gauza bakoitzari, zeinahi dela ere, izateko eta iharduteko indarra, eta, ondorioz, ez bakarrik animalien egintza aukeratuak, baita beren gorputz animatuko instintu organikoak ere eta beraien forma eta erakuntza bera ere, landareen begetazioa eta, azkenik, eremu inorganikoan, kristalkuntza, eta, oro har, fenomeno fisiko-kimikotan agertzen den jatorrizko indar oro eta grabitatea bera ere bai, hori guztia bere baitan, eta errepresentazioaz kanpo, guk geure baitan **nahimen** bezala aurkitzen dugunaren beraren identikoa dela, eta **nahimen** horretaz daukagu litekeen ezagutzarik berehalako eta intimoena; gainera, nire filosofiak irakasten du **nahimen** horren agerpen isolatuak mugimenduan jartzen direla izaki kontzientetan, hau da, animalietan zioengatik, baina ez direla gutxiago jartzen animaliaaren eta landarearen bizitza organikoan kitzikapenen bitartez, eta ez-organikoan kausa soilen bidez, hitz horren zentzurik estuenean; fenomenoari bakarrik dagokion diferentzia izaki, eta aitzitik, ezagutza eta bere substratoa, entelegua, nahimenaz zeharo bestelako fenomeno bat, sekundario hutsa dela, nahimenaren objektibazio-maila gorenak bakarrik laguntzen dituen fenomeno dela, berorrekiko inesentziala, bere agerpenetik animali organismoan dependente eta, ondorioz, fisikoa eta ez metafisikoa, bere baitan daukan organismoa bezala; beraz, ezagumena ez izatetik ez dago ondorioztatzerik nahimena ez dagoenik, baizik eta areago berori nabarmendu egiten dela nahimenaz gabeturiko Naturaren agerpen guztietan, nola begetatiboetan hala inorganikoetan, eta guzti horretatik ateratzen da ez duela ezagumenak nahimena baldintzatzen, orain arte salbuespenik gabe uste izan denez, aitzitik nahimena dela ezagumena baldintzatzen duena.

Eta nire doktrinaren oinarritzko egia hori, gaur egun ere oraindik paradoxazkoa dirudien egia hori da, bere gune nagusi guztietan berrespenik harrigarrienak jaso dituen, zientzia enpirikoetatik, ahal duten heinean metafisika alde batera uzten duten, baina egiaaren ahalmenera makurtzen diren zientzietatik etorriak: berrespen horiek nire obra agertu ondoren aurkeztu dira, egia da, baina berarekiko independentzia osoz eta urte luzetan zehar. Eta nire doktrinaren oinarritzko dogmak frogatzen berrespena hartzea bi aldiz onuragarriagoa da: alde batetik, dogma hori nire filosofiaren gainerako parteak baldintzatzen dituen pentsamendu nagusia delako da; eta bestetik, bertara bakarrik bil zitezkeelako filosofiari arrotz zaizkion eta berarekiko erabat independente diren zientzietatik jaiotako berrespenak. Zeren egia bada ere frogatzen ugariren ekarpena egin zaiela nire doktrinaren gainerako parteei, etikari, estetikari eta dianoologiari, hamazazpi urtez attergabeko ikaskuntzatan lorturiko frogak izaki, ez dira errealtatearen eremutik filosofiakora berehala datozenak, eta ezin dezakete, beraz, testigantza arrotz baten izaera erakutsi, zeren, neronek jasoak izaki, ez baitira hain ezeztazeinak, ukaezinak eta biribilak beste haiek bezala, zeinak **metafisika** hutsekoak izaki, bere koerlatiboa den **fisikatik** baitatzen (hitz hau antzinakoek hartzen zuten zentzu zabalean harturik). Fisikak, hau da, Natur Zientziek oro har, beren adar guztietan dagokien bideari jarraituz, azkenean esplikazioak amaituko zaizkien gune batera heldu behar dute, eta horixe da hain zuzen ere **metafisika**, fisikaren muga gisa hautematen duena, zeinetatik irten ezin daitekeen; hor gelditzen da fisika, eta metafisikari eskuratzen dio bere objektua. Horregatik arrazoiz esan du Kantek:

"begibistakoa da Naturaren operazioen lehen iturriek metafisikaren gai izan behar dutela" (*Indar bizien egiazko balioespenaz* §. 51.) Fisikarentzat atzemanezina eta ezezaguna ere baden hori, zeinean bere ikerketak amaitzen diren eta zeinak ondoren bere azalpenak emandakotzat aurreraposatzen dituen indar naturala, bizi-indarra, bulkada sortzailea eta abar bezalako esamoldez izendatzen ohi dira, x. y. z.-k baino gehiago esaten ez duten esamoldez. Eta honela, bada, aldeko kasu isolatuetan Natur Zientzien ikertzaile zuhur eta arretatsuek beren azter-eremua mugatzen duen gortinan barrena itzalgaizka begiratu bat egiteko zoriona baldin badute, mugak halakotzat sentitu soilik ez, baizik eta gainera nolabait ere bere erakuntza hautemateko, eta horrela beratzaz haraindi datzan metafisikaren eremuan barrena barrandatzeko eta baldin, fisikak, horrela laboraturik, ageriki eta lainoki hala arakaturiko mugak izendatzen baditu, ordukoz erabat ezezaguna izaki bere oinarriak finkatu dituen bezala, sistema metafisiko batetik abiatuz, zeinak baitu beste eremu bat abiapuntu eta zeinak ezarri baititu izaki guztien egiazko barne-funts eta azken hastapentzat, zeinaz kanpo ez baitu ezagutzen, bere aldetik, fenomenoak besterik, hau da, errepresentazioak, kasu horretan, -bi

eremu desberdinetako ikertzaileek lurraren barruan bi galeriatan lanean ari diren bi meatzariren aldartean aurkitu beharko dute, zeinak beren artean urrun dauden guneetatik abiatuz, gune berean aurkituko diren, lurpeko ilunpetan azpilanean ibili ondoren, sestraz eta iparorratzaz bakarrik fidaturik, eta zeinek azkenean bata bestearen mailukadak entzutearen poz irrikatua sentitzen duten. Zeren ikertzaile horiek ezagutu egiten baitute orain alferrik hain luzaro bilaturiko Fisika eta Metafisikaren arteko topagunera heldu direla, zeinek zeruak eta lurrak bezala ez zuten inoiz elkartu nahi, eta beren lotunea aurkitzean bi zientziek elkarren arteko adiskidetzeari ekin dioten. Baina garaitzapen hori lortzen duen filosofi sistemak, bere egia eta zuzentasunaren kanpotiko egiaztapen hain sendo eta frogatzailea hartzen du, non handiagorik ezin den. Froga-agiritzat balio duen horrelako berrespenaren ondoan ez du ia inolako garrantzirik aro bat atxikitzeak edo ez atxikitzeak, eta hainbat gutxiago kontutan hartzen bada zertara jotzen duen, bitartean, atxikitze horrek eta Kantengandik honakoan zer gertatu den ikusten bada. Dagoeneko irekitzen hasita daude jendearen begiak filosofiaren izenpean, azken berrogei urte honetan Alemanian egiten ari diren jokoaren aurrean, eta gero eta gehiago irekiko dira: heldu da kontuak errendatu eta ikusteko garaia, eta Kantengandik hasita honainokoa hainbeste idatzi eta eztabaidatu delarik, egia bakar bat argitara eman al den ikusiko da. Honek gisa gabeko gaiak hemen eztabaidatzetik libratzen nau, zeren aski izango baitut neure asmorako gertakari baten berri ematea. Dante Ihauterietako maskaren samaldan galdu eta Mediciko Dukeak hura bilatzeko agintzean, mandatu hartu zutenek zalantzan zeuden aurkituko ote zuten, bera ere mozturorik zegoelako, eta horrenbestez dukeak galdera bat eman zien Danteren antz apurren bat zuen guztiari egiteko. Galdera hau zen: "Nork ezagutzen du ongia?" Erantzun sinple ugari jaso ondoren, maskara batek honako hau eman zuen: "Gaizkia ezagutzen duenak". Eta horretan ezagutu zuten Dante<sup>2</sup>. Gauza bera esan daiteke nire kasuan, ez dudala izan zertan adorea galdurik garaikideak atxiki ez zaizkidalako, beti begien aurrean izan baitut zer norabide eman zaien. Ondorengotzak zer izan den bakoitza bere obren arabera epaituko du, eta atxikitasunaren arabera, denborakideak zer izan diren. Nire doktrinak ez du izan nahi "aro presenteko filosofia" deritzatena, mistifikazio hegeldarrari bere jarraitzaile dibertigarriek eman nahi izan dioten izena; nire doktrinak nahi duen izena datorkeen aroko filosofiarena da, hitzontzikeria ilaun, esaldi huts eta joko-parekatzez jadanik nahikotuko ez den arokoarena, baizik eta filosofiari edukin erreal eta azalpen serioak eskatuko zaizkion arokoa, aitzitik, herrialdean nagusi den erlijioaren parafrasi bat izan behar duelako eskakizun zentzugabe eta irrazionaletik libratu egingo duenekoa. "Zeren zentzugabeena baita arrazoiari azalpenak eskatzea, aldezturik derrigorrean zein alderditara erori behar duen aginduz". (Kant, *Arrazoi Hutsaren Kritika*, 755. or. 5. argit.). Askari tristea da garai hain guztiz jausian bizi behar izatea, non gizon handi baten autoritatearen bermea eman behar dion berez ulertzen den halako egia bati. Baina irrigarria da katean lotutako filosofia batetik gauza handiak itxarotea eta erabat jostagarria ikustea nola benetasun solemnez ekiten zaion balakuak esateari bezala, aldezturik mundu guztiak dakielarik azken finean zer esango den. Ohartu dute, halere, zuhurrenek, Filosofiaren mantupean Teologia dagoela ezkutaturik, berak daramala gidaritza, bere erara irakatsiak emanez egiaren egarri diren dizipuluei, eta horrek poeta handiaren eszena bizi bat gogorarazten du. Badira beste batzuk, begiradaz sakonago sartu nahi izaki, eta horiek baieztatzen dute kapa haren azpian ostentzen dena ez dela teologia filosofia baino areago, baizik eta gizajo bat, zeinak egia garai eta goraltxatuak aurpegi benatsuz eta seriotasunik sakonenez itxuraz bilatzen dituen, izatez, ogi-kurrusko bat besterik bilatzen ez duelarik beretzat eta bere familia gaztearentzat, beste bide batetik neke gutxiago eta ohore gehiagorekin lortuko lukeena, bitartean prezio horretan prest aurkitzen delarik *a priori* deduzitzeko, behar izanez gero, deabrua eta bere amona, eta baita, beste erremediorik ezean, intelektualki sentzeko ere. Guzti horretan, proposaturiko helburuaren garaitasunaren eta izatezkoaren doilortasunaren arteko kontrastearen bidez, txit irrigarritzakoaren efektua gradu gorenean lortzen da; hala eta guztiz ere, desiratzekoa da filosofiaren lur garbi eta santua halako ofizioko jendeaz garbiturik uztea, behiala Jerusalemeko tenplua merkatariz eta diru-trukatzailez bezala. Garai hobeak etorri arte filosofia-jendeak, oraindainokoa bezala, bere arreta eta atxikimena erabil ditzake; segi dezake, oraindainokoa bezala, **Kanten** ondoan -Naturak behin bakarrik lortu duen izpiritu handi horrengan, bere sakontasun propioak argitu zituen horrenean, -Fichte deritzana, ahots batek esan gabe:  $\text{Ἡρακλῆς καὶ Πίθηκος}$  Segi beza, orain arte bezala, Hegelen kontrazentzu erabatekoaren

filosofiak egia ezin arakatuki sakona izaten aurrerantzean ere (leun eta laua bere 3/4etan, eta aldrebesa beste 1/4ean). Shakespearen hitz haiek goiburutzat hartu gabe: "*Such a stuff as madmen tongue and brain not*" 3. Eta bere ikurtzat txipiroi bat erabil dezala, bere inguruan iluntasun-hodei bat barreiatzen duena zer den ikus ez dezaten, inskripzio honekin: "*Mea caligine tutus.*" Irten bitez, azkenik, argitara orain arte bezala sistema berriak, hitz eta esaldi soilez moldatuak, Unibertsitateen erabilerarako, argot kultu batekin batera, zeinean hitz egin daitekeen egun osotan ezer esan gabe, eta inoiz ez diezaiola bakerik ken plazer horri arabiar zuhurritz hark: "Badantzut errotaren hotsa; baina ez dakusat irinik". Guzti hori, alabaina, aroari dagokio, eta bere joanairari zor zaio; garai orotan antzeko zerbait gertatzen da; denborakideak zarata gutxiago edo gehiagorekin gero hain erabat eta aztarnarik utzi gabe iraungitzen den zerbaitekin aritzen dira, non hurrengo belaunaldiak jakiten ez duen hura zer izan den. Egiak, aldiz, itxaron dezake, bizitza luzea baitu bere aurretik. Seriotan pentsatuak eta lege onekoak bere joanaira jarraitu eta geldia segitzen du, eta azkenean mirariz bezala lortzen du bere helburua. Itxuraz, hoztasunez eta desatxikimenduz hartzen dira, eta arrazoi berarengatik gerora, ondorengotzak erabat onartu dituenen, gizonik gehienek autoritateari bakarrik men eginez, ez konprometitzeko, hasieran bezain txikia izaten da benetan behar bezala balioesten dutenen kopurua. Baina gutxi horiek aintzat eta kontutan hartu beharrekoak dira, zeren berek aintzat eta kontutan baitaukate egia. Elkarrekin komunikatzen direnak dira, eskuz esku, gauzeztanen gainetik, mendeetan zehar. Hain zaio neketsu izatea gizadiaren ondarerik hoberenari! -Baldin, aitzitik, egiak egiazkoa izateko baimena eskatu beharko balie beren bihotzetan guztiz bestelako gauzak ezartzen dituztenei, etsi beharra legoke beraien auziaz, eta diosal gisa sorginen hitz haiek zuzendu beharko lirateke: "*Fair is foul, and foul is fair*" 4. Baina zorionez ez da horrela: ez dago faborea edo desfaborearen baitan, eta ez dauka inori baimena eskatu beharrik; bere oinen gainean sostengatzen da, denbora du aldeko, jarkiezina du indarra, suntsiezina bizia.

# FISIOLOGIA ETA PATOLOGIA

Nire doktrinak jaso dituen eta lehen aipatu ditugun berrespen enpirikoak zientziaren arabera sailkatu aurretik, zeinatik atera den, eta neure azalpenen haria Naturaren mailadia goitik behera jarraituz, berrespen txit harrigarri bat aipatu beharra daukat, nire oinarritzko dogmak azken urte hauetan hartu duena, medikuntzako beteranoetako baten, **J. D. Brandis** mediku daniarraren, iritzi fisiologiko eta patologikoei esker, zeinaren *Bizi-indarrari buruzko entseia* (1795) hartu baitzuen Reilek abegi handia eginez. Bere bi idatzi berrienetan, *Hotza gaixotasunetan erabiltzearen esperientziak*, (Berlin, 1833), eta *Kakexiaren nosologia eta terapeutika*, (1834), ikusten dugu nola finkatzen duen, erarik ageri eta harrigarrienean ere bai, bizi-funtzio guztien iturburutzat **nahimen inkontziente** bat, nondik datozen organismoan prozesu guztiak, nola gaixotasun-egoeran hala osasunekoan ere, biziaren *primum mobile* gisa aurkeztuz. Bere hitzez aipatuko dut hau, zeren bere idatziak gehienera ere medikuen eskuetan bakarrik aurkitzen bide dira eta.

Aipaturiko bi idatzietako lehenean, VIII. orrialdean, honela dio: "Organismo bizi ororen funtsa, bere izakia, ahal bezainbatean, makrokosmoaren aurrean iraunaraztean datza." X. orrialdean: "Organo batean aldi berean izaki **bakarra**, nahimen **bakarra** egon daiteke; **nahimen** gaixotu bat bada, larrumintz-organoan dagoena, eta batasunarekin bat ez datorrena, hotzak behar den adina denboraz zapal dezake bero-sorkuntza, **nahimen** normal bat eragin ahal dezan".

1. orrialdean: "Sinetsi behar badugu bizi-egintza orok **nahimen** bat aurkitu behar duela, hau da, organismo osoaren erakuntza erregularra eragiten duen **determinatzaile** bat parte bakoitzaren forma-aldaketa baldintzatuz banakotasun guztiaren arabera, eta zer determinatu bat edo determinatzekoa", eta abar. 11. orrialdean: "Banakoaren bizitzari dagokionez, **nahimen** organikoa asebetetik gera dadin, determinatzailea dena, asebetetik gera dadin, determinatua asebate behar da. Hori bizi-prozesu gorenetan beretan ere gertatzen da; hanturetan zerbait berria sortzen da, kaltekoa kanporatuz eta bitartean arterietan barrena gai eratzaile gehiago iritsi eta bena-odol gehiago aldentzen da, harik eta hantura-prozesua burutu eta **nahimen** organikoa asebetetik gelditzen den arte. Alabaina, nahimen hori asebetetik ez geratzeko moduan ere kitzika daiteke. Kausa kitzikatzaile horrek (irritazioak) arartekogabe organo isolatuaren gain dihardu (pozoia, kutsaketa), edo bizi osoa erasaten du, eta ahaleginik handienak egiten ditu kaltekoa kanporatzeko edo **nahimen** organikoarekin komunztatzeke, parte isolatutan bizi-iharduera kritikoak, hanturak eraginez, hau da, **nahimen** asebetegabearen aurrean errendatuz."

12. orrialdean: "Asebate ezin daitekeen **nahimen** anomaloak honetara dihardu organismoa suntsituz, ondorengo bi gauza hauetakoren bat gertatzen ez den guztietan: a) batasunerantz jotzen duen biziak (helbururako joera) asebetetzeko beste bizi-iharduera batzuk sortzean (*crises et lyses*), **nahimen** hura zanpatzen duten iharduerak eta erabat zuzentzen badute krisi osoak (*crises completae*) deitzen zaie eta ezosoak (*crises incompletae*) **nahimena** partetan desbideratzea baizik lortzen ez dutenean, edo: b) beste kitzikapen batek (medizinak) beste **nahimen** bat sortzen duela, gaixotuaren zanpagarri dena. Baldin **nahimen** hori bestearen kategoria berean ezartzen badugu, zeinaren jakitun baikara errepresentazioengatik eta ohartzen bagara hemengo kontua ez dela hurbileko edo urruneko konparaketak egitea, bizi bakar baten oinarritzko kontzeptua lortu dugulako konbikziora iritsiko gara, mugagabea den heinean, banaezinera, giza gorputzean ilea hazarazi eta aldi berean errepresentazio-konbinaketa gorenak egin ditzakeen bizira, zeinak ondoren organo desberdin gutxi-asko hornitu eta landutan agertzen diren. Badakusagu afekturik biziena, **nahimen** asebetegabea, kitzikapen indartsuago edo ahulago batez itoarak daitekeela", eta abar. 18. orrialdean: "Kanpoko tenperatura abagune da determinatzaileak, organismoari batasun gisa iraunarazteko joera horrek, **errerepresentazio gabeko nahimen organiko** horrek bere iharduera modifika dezan, bai organo berean, bai beste urruneko batean. -Bizi-agerpen oro **nahimen** organikoaren azalpena da, nola gaixoarena hala osasuntsuarena; **nahimen** horrek determinatzen du **begetazioa**. Osasun-egoeran, osoaren batasunarekiko harmonian egiten du, eta gaixotasun-egoeran osoarekiko harmonian **ez nahi izatera** eraginik aurkitzen da."... 23. orrialdean: "Larrumintza bapatean hotzetan jartzeak haren

funtzioa ezeztatzen du (hozkontza); edari hotzak digestio-organoei **nahimen organikoa** ezeztatzen die, horrela larrumintzekoa gehituz eta izerdia sortuz, eta gauza bera gertatzen da **nahimen organiko** gaixoarekin: hotzak ezeztatu egiten ditu larrumintzeko erupzioak", eta abar. 33. orrialdean: "Sukarra da bizi-organismo osoak **nahimen** gaixotuan duen partaidetza, eta horregatik bizi-prozesuaren osotasunean hantura organo bakoitzean dena huraxe bera da; biziak egiten duen ahalegina zerbait determinatua eratzeke, **nahimen** gaixotua asebeste eta desabantailazkoa dena urruntzeko. Eratu eta gero krisi edo lisi deitzen zaio. Kalteztekoaren lehen pertzepzioak, nahimen gaixoa eragiten duenak, era berean obratzen du banakoaren gain, zentzumenek hautemanik kalteztekoak obratzen duen bezala, gure banakotasunarekiko duen erlazioaz eta gugandik urruntzeko bitartekoaz konturatu baino ere lehenago. Beldurra sortzen du, eta bere ondorioek bizi-prozesuaren etena parenkiman eta kanpoko mundura zuzenduriko bere parteetan, larrumintzean eta banako osoa (kanpoko gorputza) higitzen duten giharreetan; hotzikara, hotza, dardarizoa, gorputzadarretako oinazea, eta abar. Bata eta bestearen arteko aldea datza azkenekoan bapatean heltzen dela edo pixkanaka kalteztekoaren ideia garbira, zeren zentzumen guztiek banakotasunarekin erkaturik eta berarekiko erlazioa eta segurtatzeko bitartekoa zehazturik (jaramonik ez egin, ihes egin, babestu) **nahimen kontzientearen** bidez burutu daiteke akordioa; lehen kasuan, ordea, ez da kalteztekoaren kontzientziara iristen, eta biziak bakarrik (kasu horretan Naturaren indar sendatzaileak) egiten ditu ahaleginak, kalteztekoa aldentzeko eta horrela **nahimen** gaixotua asebetetzeko. Eta hori ez dago konparaziotzat hartzerik, baizik eta bizi-agerpenaren egiazko azalpena da." 58. orrialdean: "Gogoan izan beti, ordea, hemen hotzak bitarteko kitzikatzaile bizi batek bezala diharduela, **nahimen** gaixotua zanpatu edo moderatzeko, bere ordeztu bera sortzeko **nahimen** natural orokor bat iratzarri."- Antzeko esamoldeak aurkitzen ditugu liburuko ia orrialde guztietan. Brandis jaunaren aipaturiko idatzietako bigarrenetan, ez du hainbeste nahasten bere azalpenetako bakoitzarekin **nahimenetik** ateratakoa, agi denez, hau azalpen metafisiko hutsa delakoan oinarrituz; hala ere, berari eusten dio eta finkatzen duen tokian era zehatzago eta argiagoz egiten du. Horrela, bada, 68. eta hurrengo pasarteetan **nahimen inkontzienteaz**, kontzientetik bereiz ezin daitekeenaz, hitz egiten du, eta bizi ororen, nola landareen hala animalien *primum mobile* denaz, zeinetan bizi-prozesu, jariatzen eta abar guztien determinatzailea, organo guztietan agertzen den gurari edo narda den. -71. pasarteetan: "Karranpa guztiek frogatzen dute nahimenaren agerpena errepresentazio-gaitasun argirik gabe gerta daitekeela." 72. pasarteetan: "Nonahitik jatorrizko iharduera ez partekatu batera iristen gara, zeina giza nahimen libre gorenaz, edo animali gurari eta nardaz, edo beharrian begetatibo soilik determinaturik, banakoaren batasunean iharduera asko iratzartzen ditu bere burua agertzeko" 96. orrialdean: "Bizi-adierazpen bakoitzean egite bat, jatorrizko iharduera ez partekatu bat agertzen da." ... "Banakoaren egite horren hirugarren faktorea **nahimena da, banakoaren bizitza bera.**" ... "Nerbioak dira banakoaren egite honen gidak; beraien bidez forma eta konposadura aldatu egiten dira gura edo nardaren arabera". 97. orrialdean: "Gai estrainioaren asimilazioa... odolak egiten duena... ez da materia organikoaren inolako zurgapen, ezta transfusio ere..., baizik eta, nonahi dela ere, **nahimen sortzailea** agertzearen faktore bat da, inola ere ez ezarritako mugimendura mugatzen den bizia."- Nik hau 1835ean idatzi nuenean, Brandis jaunak nire obra ez zuela ezagutzen benetan sinesteko bezain xaloa nintzen, zeren bestela ez baintuzkeen hemen bere idatziak aipatuko, zeinak kasu horretan ez baitzuten inolako berrespenik eskaintzen, baizik eta nire doktrinaren errepikapen, ezarpena eta erreferentzia soilik puntu honetan. Ziurtasunez suposa nezakeela uste nuen ez ninduela ezagutzen, zeren ez bainau behin ere aipatzen, eta irakurri izan banindu, leialtasunak bere pentsamendu oinarritzko eta nagusiak hartu zizkion idazlearen izena ez isiltzera eramango zukeen, hainbat gehiago, ezen bere obra orokorrean ezezaguna zelako merezi gabeko abandonuaren menpean egon baitzen, zeina alde onera esplikatzen ahal izango zen iruzur gisa. Hortik Brandis jaunari berari interesatzen zitzaion nire izenpean jartzea eta zuhurtasun-kontua ere bazen aldi berean. Zeren, izan ere, hain harrigarria eta paradoxazkoa da berak finkaturiko oinarritzko doktrina, non Gotingako bere kritikaria ere miretsi egiten zaion, hartaz zer esan ere ez dakiela: delako Brandis jaunak frogatzen edo indukzioen bitartez oinarritu ez duen doktrina bat da, eta ez du Naturaz dakigunaren guztizkoarekiko erlazioan bermatu ere egin, baieztatzen besterik ez. Nik uste nuen, beraz, aztiapen-dohai berezi haren bidez lortuko zuela, zeinak irakasten dien mediku gailenei gaixoaren oheburuan gertatzen denaren egia ezagutu eta ulertzen,



funtsean egia metafisikoa den horren oinarriez zorrozki eta metodikoki kontu eman gabe, nahiz eta argi eta garbi ikusiko zuen ordura arteko iritziez zeinen kontrakoa zen. Nire filosofia ezagutu izan balu, pentsatzen nuen, egia hori berori ulerkuntza askoz zabalagoan kokatzen duena, Natura osora hedatuz, zeina froga eta indukziotan oinarritzen duen, doktrina kantiarrarekiko loturan, zeinaren azkeneraino-pentsatzetik sortzen den; bai ongi etorriko zitzaiokeela aipatu eta hartan bermatu ahal izatea, baieztapen ezaditu huts batean ez gelditzeko, baieztapen huts bat izaten bakarrik jarraitzen baitu beragan. Hauek ziren orduan Brandis jaunak nire obra ezezaguna izatea normaltzat jo behar nuela sinetsarazten zidaten arrazoiak.

Baina ordutik honakoan zientzigizon alemaniarrek eta Kopenhagengo akademikideak hobeki ezagutzen ikasi dut, zeinetarikoa zen Brandis jauna, eta berorrek oso ongi ezagutzen ninduen konbikziora iritsi naiz. 1844ean eman nuen horren arrazoia, *Mundua nahimen eta errepresentazio gisa*, obraren bigarren liburukian, 20. kapituluan, 263. orrialdean (3. ediz. 295); eta nolana ere auzia agortezina delarik, ez dut hemen arrazoi hura errepikatu nahi, eta bakarrik gaineratuko dut gerora iturri onetik hartu dudala Brandis jaunak nire obra nagusia irakurri eta eduki zuelako ziurtasuna, zeren eta hiltzean utzitako liburuen artean aurkitzen baitzen. -Ni bezalako idazle batek hain denbora luzean merezi gabe jasan behar izan duen entzuterik ezak adore ematen zien halako pertsonen haren pentsamendu nagusiak bereganatzeko, bera aipatzeke. Eta gehiagorik ere bada, eta izan ere, Brandis jauna bezala, beste mediku bat portatu da nirekin, eta honek ez du aski izan, hark bezala, ideiak hartzeaz, baizik eta nire hitzak kopiatzera heldu da. **Anton Rosas** jaun hori, Vienako Unibertsitateko irakasle da, zeinak 1830eko **Begi-sendaketazko Eskuliburua** obraren lehen liburukian hitzez hitz transkribatu baititu 1816ko nire *Ikusmena eta koloreak* traktatutik, 14. eta 16. orrialdeak, 507. pasarte osoa, ni aipatzeke, eta aditzera eman ere egiteke beste bat dela, eta ez bera, hitz egiten ari dena. Horrela aski argiturik geratzen da zergatik bere burua gordetzen duen nire traktatua aipatzetik koloreei buruzko hogeita bat idatzitako bere erreferentzietan, eta ikusmenaren fisiologiari buruzko berrogeitan, 542. eta 567. pasarteetan ematen dituen erreferentziak; komeni zitzaion hori egitea zeren eta oraindik askoz gehiago jabetu baita nire lanaz, ni aipatzeke. Adibidez, 526. pasartean bada "baieztatzen da" bat niri buruzkoa baizik ez dena. Bere 527. pasarte osoa nire traktatuko 59. eta 60. orrialdeetatik transkribaturik dago, erabat hitzez hitz ez bada ere. 535. pasartean gauza "nabaritzat" aipatzen duena, besterik gaineratu gabe, hots, horia ikuste-ihardueraren 3/4 eta bioleta 1/4 dela, eta kontua da ez dela inoiz "nabaria" izan inorentzat neuk "nabaritzat" jarri dudana arte, eta gaur egun ere oraindik oso gutxik dakiten egia da, eta oraindik gutxiagok aitortua, eta horrela besterik gabe "nabari" deitzea dator, beste arrazoi batzuen artean, ni lurperatu nahi izatetik, eta bitartean luzatu egiten da auzitan dagoen puntua serioski egiaztatzea, zeren eta hori egitean nabari jarriko bailitzateke Newtonen koloreen teoriaren eta nirearen artean dagoen aldea harena faltsua eta nirea egiazkoa izatean datzala, eta horrek derrigor mingarri izan behar du nire garaikideentzat; horrela, bada, zentzuz jokatzuz eta ohitura zaharraren arabera, oraindik ere zenbait urtez atzeratzen da gauzaren egiaztatpena. Rosas jaunak ez du politika hori ezagutu, baizik eta Brandis akademikide kopenhagendarrak bezala, uste izan du, arazoaz inoiz ez hitz egiteagatik, *de bonne prise* azal zezakeela. Ikusten denez, iparraldeko eta hegoaldeko alemaniarren jatortasunek ez dute batabestea behar bezain ongi hartzen. -Horrezaz gainera, Rosas jaunaren liburuko 538., 539. eta 540. pasarteetako edukin guztia erabat nire 13. pasartetik hartua dago, eta hitzez hitz transkribatua ere bai. Hala ere, behin beharturik aurkitu da nire traktatua aipatzera 531. pasartean, non gertakari batentzako bermatzailea behar duen. Badu grazia zatikiak aipatzeko darabilen moduak, zeinen bitartez nik, neure teoriaren ondorioz, adierazten baititut kolore guztiak. Ez zeritzan nonbait oso zuzena hain *sans façon* haietaz jabetzeari eta zera dio bere 308. pasartean: "**Nahi izango** bagenu koloreek zuriarekiko duten erlazioa zenbakiez adierazi, eta zuria = 1 hartuko bagenu, orduan halabeharrez (jadanik Schopenhauerrek egin zuenez) honako proportzioak finkatuko genituzke: horia = 3/4; la ranja = 2/3; gorria = 1/2; berdea = 1/2; urdina = 1/3, morea = 1/4; beltza = 0." -Nik orain jakin nahi nuke nola egin litekeen hori aurretik nire koloreen teoria fisiologiko guztia ulertu gabe, berari bakarrik baitagozkio zenbaki horiek eta bera gabe ez baitute inolako esanahirik eta jakin nahi nuke, batez ere, nola egin litekeen hori, Rosas jaunak onartzen duen bezala koloreen teoria newtoniarra onartuz, teoria hori buruz buru kontrajarria baitago zenbaki horiekin; eta jakin nahi nuke, azkenik, nola litekeen gizakiak, hainbeste mendez pentsatzen eta idazten ari delarik, ez

bururatu izana zatiki horiek, hain zuzen koloreen adierazpen gisa, gu bioi bakarrik izan ezik, niri eta Rosas jaunari. Berak ere era berean finkatuko zukeen, nahiz eta nik halabeharrez 14 urte lehenago "jadanik" hori egin izan ez banu ere eta inolako premiarik gabe aurre hartu izan ez banio, bere aurreko hitzek dioten gauza da, zeinetatik ateratzen den "nahi izateaz" bakarrik ari dela. Baina kontua da, hain zuzen ere zatiki horietan datzala koloreen sekretua, egiazko soluzioa, zeinen funtsa eta elkarrekiko diferentziak zatiki horien bitartez bakarrik lortzen diren. Alabaina, ni pozik nengoke plagioa balitz literatura alemaniarra lohitzen duen makurkeria handiena; baina bada sakonago errota eta kaltegarriagorik eta plagioarekiko pickpocketing txikia krimen nagusiarekiko erlazioan dagoenik. Egiak beharko lukeen tokian, interes pertsonala iparrizar bihurtzen duen izpiritu kaxkar lotsagarri horretaz ari naiz; izpiritu horrengan, inteligentzi maskarapean, asmo aurrepentsatuak hitz egiten du. Toleskeria eta zurikeria puripurian daude, inolako lotsarik gabe aipatzen da tartufokeria eta zientziari sagaraturiko tokietan frailekeriak entzuten dira: Ilustrazio hitz prestua irain moduko zerbait bihurtu da, iseka egiten zaie joan den mendeko gizon handienei, Voltaire, Rousseau, Locke, Hume, heroi horiei, gizadiaren edergailu izan direnoi, gure endaren ongile horiei, zeinen ospea, bi hemisferiotan barrena hedaturik, goraltxatu egin beharko litzatekeen, beste ezergatik ez balitz, aldi eta alde orotan oskurantistak aurkezten diren tokietan, berorien etsai porrokatu direlako, -eta ez dute horretarako arrazoi faltarik. Bando eta anaidi literarioak sortu dira laudorio eta gaitzespenerako, goretsi eta aldarrikatu egiten da txarra dena eta iseka egiten zaio onari, edo Goethek dioenez, **"sekretupean edukitzen dute isiltasun urraezin batez, alemaniarrek oso aurrera eraman duten inkisizio-zentsura gisako horretaz"**. (*Tag-und Jahreshefte*, J. 1821). Eta hain dira mota kaxkarrekoak zio eta kontsiderazioak, zeinetarik guztia ateratzen den, non ez duen merezi aipatzen jarraitu dezadan. A zer aldea *Edinburgh Review*, zientzizaletasunez eta gentlemen independenteek idatziaren, Publio Sirogandik harturiko: *Judex damnatur, cum nocens absolvitur* bere goiburua ohorez daramanaren artean<sup>5</sup>, a zer aldea aldizkari horren eta alemaniarren artean, zeinak baitira aurriritziz bete, errespetugabe, kikil, prestuez, gehienbat diruaren mertzenari direnek fabrikaturiko eta *accedas socius, laudes, lauderis ut absens* goiburutzat eduki beharko luketen literatur aldizkariaren artean! Orain, hogeitaz urteren buruan, ulertzen dut **Goethek** 1814ean Berkan esan zidana, non aurkitu bainuen **madame de Staëlen** *De l'Allemagne* liburuarekin eta zeinaz hitz eginez aditzera eman nion alemaniarren jatortasuna gehiegi azpimarratzen zuela eta horrek atzeritarrak iritzi okerrera bultzatuko zituela. Barre egin eta esan zidan: "egia da, ez dute kutxa kateaz lotuko, baina halere ebaki egingo diete". Eta gaineratu zuen: "baina alemaniarren jatortasunik eza bere zabalera guztian ezagutzeko haien literaturaren berri izan behar da". Ederki! Baina alemaniar literaturaren miseria guztien artean, sumingarriena bere aroarekiko ustez filosofo eta izatez oskurantista direnen morronkeria da. Aroarekiko morronkeria (*Zeitdienerei*); hona hemen hitz bat, nahiz eta neuk ingelesetik imitatua den, inolako argibiderik behar ez duena, ezta frogarik ere gauzak, zerren eta ukatzeko bekokia lukeenak nire oraingo gaiaz testigantza larria emango bailuke. **Kantek** irakatsi du gizona helburutzat tratatu behar dela eta inoiz ez bitartekotzat, eta ez zuen uste filosofia helburutzat bakarrik, inola ere ez bitartekotzat tratatu behar zela esan beharko zuenik. Bizi garen aroarekiko morronkeria desenkusa liteke behar izanez gero, arropa oro mozorrotua, fraile-jantziz edo erbinude zuriz; baina ez du desenkusarik tribunioz jantzita, filosofo-mantuz, zerren holakorik janzten duenak leialtasuna egiaren banderari zin egin baitio; beste edozein kontsideraziok, zernahiri buruzkoa delarik ere, traizio doilorra egiten du egiari zerbitzua zor dion tokian. Horregatik ez zioten ihes egin Sokratesek astaperrexilari, ezta Brunok suari ere. Baina beste horiek seduzitzeko aski da ogi-zati bat. Hain bistalaburrak ote dira gero han beregandik hurbil, ondorengotza ez ikusteko, zeinean kokatzen baita filosofiaren historia, bere liburu galezinean exekraziozko bi lerro mingots, atzapar burdinazko eta esku irmoz errukigabe ezarritak? Edo ez ote zaie horrelakorik batere axola? Estuasunean esan ohi da: *après moi le déluge*; baina ez da inoiz *après moi le mépris* ezpainetaratzen. Baderitzot epaile horrengana jo behar dutela esanez: "ai, ondorengotza eta filosofiaren historia maiteak!, oker zaudete seriotan hartzen bagaituzue; ez gara filosofoak, Jainkoak gorde gaitzala!; filosofi irakasle soilak gara, enplegatu publiko soilak, txantxetako filosofo soilak; benetako torneo errealean kartoiz armaturiko teatro-zaldunak sartu nahiko bazenituzte bezala da". Kasu horretan izango du epaitu behar gaituenak, izen guzti horiek ezabatzeko eta *beneficium perpetui silentii* bat emateko kontsiderazioa.

Duela hemezortzi urte, aroarekiko morronkeria eta, orduan bezala gaur ere hainbeste ugaltzen den tartufokeria ikusteak herrestan eraman ninduen digresio honetatik, Brandis jaunak berretsiriko neure doktrinaren parte batera nator berriro, nahiz eta berak aurkitu ez izan, eta bertara banator argibide batzuk emateko da, zeinei fisiologiaren aldetik harturiko beste berrespen batzuk berehala gaineratuko dizkiedan.

Kantek dialektika traszendentalean arrazoiaren ideien izenpean kritikaturiko eta horren ondorioz bere filosofia teorikoan albora utzitako hiru suposamenduek, harik eta gizon handi horrek filosofiaren erabateko birmoldaketa burutu arte, beti ere zaildu egiten dute Naturaren ikuspen sakona. Gure oraingo kontsiderazioa dela eta, horrelako eragozpenetako bat arimaren ideia razionala zen, esentzia metafisiko hori, zeinaren erabateko sinpletasunean batzen eta urtzen ziren betiko eta ezin banatuzko eran ezagutzea eta nahi izatea. Ideia horrek zirauen bitartean ezinezkoa zen fisiologia filosofiko oro; hainbat gutxiago, zeren berarekin derrigorrean finkatu beharra baitzegoen bere koerlatiboa, materia erreal eta pasibo hutsa, gorputzaren gai gisa, bere baitan badirauen esentzia baten gisa, bere baitango izaki bezala<sup>6</sup>. Arimaren ideia razional horrek izan zuen joan den mendearen hasieran, **Georg Ernst Stahl** kimikari eta fisiologo ospetsuak, hainbeste hurbildu eta gero egia huts egin izanaren errua, zeren oso hurbil iritsia baitzen eta atzeman ere egin ahal izango zukeen *anima rationalis* ordezkari nahimen biluzi, oraindik inkontzientea, metafisiko bakarra ezarri ahal izan balu. Baina arrazoimenaren ideia horren eraginpean egonik, gauza bakarra irakats zezakeen: arima simple eta razional hura zela gorputza eraikitzen zuena eta barne-funtzio organiko guztiak gidatu eta burutzen zituena, nahiz eta haren oinarritzko izaeraz eta aldi berean esentziaren funtsaz ezer ere ez jakin eta esperimendu gabe egon. Horretan zerbait zentzugabea zegoen, bere doktrina sostengaezin biurtzen zuena. Hallerren suminkortasun eta sentiberatasunaren doktrinak ordezkatu zuen, zeinak era enpiriko hutsean kontzebiturik, azalpen oro amaitzen deneko bi *qualitates occultae* diren. Berehalakoan egotzi zitzaizkion suminkortasunari bihotza eta erraien mugimenduak. Baina aldi berean zauritua geratu zen bere ohore eta duintasunean *anima rationalis*-a, gorputzaren etxeko ostari arrotz gisa, zeinaren ganbaran bizi baita<sup>7</sup>. - "Egia osinean sakon dago", esan zuen Demokritok, eta hasperenka errepikatu dute hori mendeek; baina ez da miraria; bertatik atera nahi duen oro zigortu egiten bada.

Nire doktrinaren ezaugarri nagusia, orain arte izandako guztiekin kontrajartzen duena, nahimena eta inteligentziaren artean ezartzen duen erabateko bereizpena da, zeinak nire aurreko filosofo guztiek biak banaezintzat jotzen zituzten, eta nahimena baita ezagumenak berak baldintzatutzat, zeina den haien zatigabe gure izate izpirituzkoaren oinarria, eta horren funtzio soiltzat gehienbat ikusi izan dutena. Banadura hori, hain luzaro bi elementu heterogenotan bereizi ezin izan den nia edo arimaren disoziazio hori da filosofiarentzat uraren disoziazioa kimikarentzat izan dena bera; nahiz eta handik denbora batera hori ere onartua izango den. Nire doktrinan, gizonarengan betiko eta suntsiezina dena, beragan bizi-printzipioa eratzen duena, ez da arima, baizik eta, adierazpen kimiko batez erabiltzeko, arimaren radikala, **nahimena**. Arima deitu hori, jadanik konposatua da; nahimena eta *nous*, enteleguaren konbinazioa da. Entelegu hori sekundarioa da, organismoaren *posterius*-a da, berorrek baldintzatua, zerebroaren funtzio soil den heinean. Nahimena, aldiz, primarioa da, organismoaren *prius*-a da, beronen baldintzatzailea. Nahimena bere baitango esentzia hura denez gero, zeina lehenik errepresentazioan agertzen den (zerebro-funtzio soilan), gorputz organiko baten gisa, ezagumenaren formen (edo zerebro-funtzioen) bitartez bakarrik ematen zaiola eta errepresentazioan bakarrik gorputza zerbait hedatu, artikulatu, organiko gisa, eta ez kanpoan eta ez arartekogabe burukontzientzian bertan. Gorputzaren egintzak errepresentazioan irudikatzen diren nahimenaren egintzak baizik ez diren bezala, horrela bere substratoa, gorputz honen irudia, bere imajina da osoan harturik; eta hortik dator nahimena *agens*-a izatea gorputzaren funtzio organiko guztietan, baita bere kanpo-egintzetan ere. Egiazko fisiologiak, bere gorenean, gizonaren izpirituzkoa erakusten digu (ezagumena), bere baitan fisikoaren emaitzatzat, eta hori, beste inork ez bezala, **Cabanisek** demostratu du; baina egiazko metafisikak irakasten digu fisikoa den hori bera izpirituzko zerbaiten (nahimenaren) emaitza edo areago agerpen besterik ez dela, materia bera ere errepresentazioak baldintzatzen duela, zeinean bakarrik existitzen den. Pertzepzioa eta pentsamendua beti esplikaturiko dira, eta gero eta hobeto, organismoaren bitartez; baina ez da inoiz horrela nahi izatea esplikaturiko, alderantziz baizik, beronen bitartez esplikatzen da

organismoa, ondorengo sailean erakusten dudanez. Aurrena, beraz, **nahimena bere baitango gauzatzat** ezartzen dut, erabat jatorrizkotzat; bigarren lekuan bere ikusgaitasuna edo objektibazioa, gorputza; eta hirugarren tokian ezagumena, gorputz horren parte baten funtzio soiltzat. Parte hori berori ezagutu nahi izate objektibatua da (errepresentazio egina), bere ezagumenaren helburuetarako nahimenak behar duen heinean. Baina funtzio horrek, bere aldetik, mundu osoa baldintzatzen du errepresentazio gisa eta berorrekin gorputza bera ere bai, objektu hautemangarri den heinean, eta materia bera orokorrean, errepresentazioan bakarrik existitzen den heinean. Zeren, izan ere, mundu objektibo bat subjekturik gabe, zeinaren kontzientzian existitzen den, ongi kontsideraturik inondik ere pentsaezinezko zerbait da. Ezagumena eta materia (subjektua eta objektua), batabestearekiko, bakarrik dira erlatiboak hor eta fenomenoa eratzen dute. Honela, oinarritzko nire aldaketari esker, auzia gaur arte inoiz ez bezala geratzen da.

Kanporantz jotzen duenean, kanporantz diharduenean, objektu ezagun baterantz zuzendurik, beraz, ezagumenaren bitartekotik igaro delarik, - guztiek onartzen dute orduan hemen diharduena **nahimena** dela, kasu horretan bere izena hartzen du. Baina ez da gutxiago barne-prozesuetan aktiboki diharduena, zeinak baldintzatzen kanpo-egintza haiek auresuposaturik, bizi organikoa eta bere substratoa sortzen eta iraunarazten baitituzte, eta odol-zirkulazioa, sekrezioa eta digestioa ere bere egiteko ditu. Baina nola halakotzat ezagutzen den soilik, irteten deneko norbanakoa utzirik, kanpo-mundura zuzentzen den tokian, hain zuzen helburu horretarako pertzepzio gisa errepresentatuz, ezagumena dauka bere baldintza funtsezkotzat, bere elementu bakartzat, baita osaturik dagoeneko gaitzat ere, eta horrenbestez egundaino izan denaren ὅσπερ οὖν ποτερον handiena gertatu da.

Batez ere nahimena eta aukeramena bereizten jakin behar da, hura hau gabe existi daitekeela kontutan harturik, nire filosofia guztiak auresuposatzen duenez. Aukeramena deitzen zaio nahimenari ezagumenak argitzen duenean, beraz, zioak, hau da, errepresentazioak dira hura mugitzen duten kausak: eta horrek, objektiboki adierazita esan nahi du, kanpotiko eragina, egintza sortzen duena, **zerebro** baten bitartezkoa dela. **Zioa** defini daiteke esanez kanpo-kitzikari bat dela, zeinaren eraginez jaiotzen den bapatean **imajina** zerebroan, eta zeinaren bitartez betetzen duen nahimenak bere ondorio propioa, kanpoko gorputz-egintza bat. Giza espeziean imajina horren lekua mota horretako lehenagoko imajinetatik diferentziak kentzearen bidez ateratako kontzeptuak har dezake, eta ondorioz jadanik sentigai ez, baizik hitz soilez izendatua eta finkatua denak. Zioen eraginkortasuna, oro har, ukipenari loturik ez dagoenez, beren eragin-indarrek bata besteen arteko neurketak egin ditzakete nahimenaren gain, hau da, litekeena da hautapen jakin bat gertatzea: animaliaaren baitan zentzumenak presente dauzkan hautemangarriaren esparrura mugatzen da hori; gizakiaaren baitan, aitzitik, berak

**pentsagarritzat** jotzen duen, kontzeptuen sail zabala dauka eremutzat. Horregatik izendatzen dira hautazkotzat, hitzaren zentzu estuan **kausei** jarraitzen ez zaizkien, gorputz inorganikoenak bezalako mugimenduak, ezta **kitzikari soilei** ere, landareetan bezala, baizik eta **zioe**<sup>8</sup>. Horiek, ordea, **ezagumena** suposatzen dute **zioen bitarteko** den heinean, bitarteko hori dela medio burutzen baita hemen kausalitatea, bere gainerako derrigortasun guztia gorabehera. Halaber kitzikaria eta zioaren arteko diferentzia ere honela izenda daiteke fisiologikoki: kitzikariak **arartekogabe** eragiten du erreakzioa, eta hori kitzikariak obratu duen parte beretik irteten da: zioa, aitzitik, zerebrotik itzuliguru bat egin behar duen kitzikaria da, non jaiotzen den bere eraginez imajina bat, zeina den lehen lekuan ondorengo erreakzioa sortzen duena, **egintza nahietsia** deritzana. Mugimendu nahietsi eta nahigabeen arteko diferentzia ez da, beraz, funtsa eta primarioari dagokiona, bietan nahimena baita, baizik eta sekundario soilari, nahimenaren kanporatzea daragianari, edo berdin dena, kanporatze hori kausek berek beren haritik burutzen dute, edo kitzikariak, edo zioek, hau da, adimenak eramandako kausen ildotik. Giza kontzientzian, zeina bereizten baita animalienetik errepresentazio hutsak bakarrik ez edukitzean, baizik eta kontzeptu abstraktuak ere bai, zeinek denbora-diferentziarekiko dependentziarik gabe, aldi berean eta batera diharduten, nondik posible bihurtzen den deliberamendua edo zioen gatazka; giza kontzientzian sartzen da aukeramena hitzaren zentzurik zorrotzenez, hautapen-erabaki deitu dudana, eta banako-izaera jakin batentzat ziorik **ahaltsuenak** egintza determinatuz besteak garaitzean baizik ez datzana, talkada bat beste kontrata talkada indartsuago batez menperatzen den bezala, talka eginiko harriaren mugimenduak segitzen dion derrigortasun

beraz ondorioak ere segitzen diolarik. Honetan bat datoz garai guztietako pentsalari handi guztiak, eta hau hain da ziurra, ezen jendoste handiak ez du inoiz ikusi eta ulertuko gure askatasunaren obraren egia ez dela egintza isolatutan bilatu behar baizik eta gure esentzian eta existentzian. Hori guztia ahalik eta modurik argienean azaldurik utzi dut nahimenaren askatasunari buruzko neure idatzi sarituan. Ustezko *liberum arbitrium indifferentiae* erabat onartezina da **nahimenetik** sorturiko mugimenduen ezaugarri desberdintzaile gisa, zeren kausarik gabeko ondorioak izan litezkeelakoaren baieztapena baita.

Nahimena eta aukeramena bereiztea lortu ondoren eta azken hori lehenaren agerpen-espezie edo modutzat hartzea, ez da izango inolako zailtasunik egintza ezagumengabeetan ere nahimena ikusteko. Gure gorputzeko mugimendu guztiak, begetatibo eta organiko soilak ere, **nahimenetik** sortzeak ez du esan nahi inola ere aukeramenekoak direnik, zeren horrek esan nahiko bailuke zioak dituztela beren eragile. Baina zioak errepresentazioak dira, zeinen kokalekua zerebroa den, eta nerbioek hartatik hartzen duten parteek bakarrik mugi ditzakete zioen bitartez, eta mugimendu honi bakarrik deitzen diogu aukerameneko. Organismoaren barne-ekonomiakoak, landareenak bezalakoak, aitzitik, **kitzikariek** gidatzen dituzte, landareenak bezala, eta dagoen diferentzia bakarra da organismo animaliairen konplexutasunak kanpo-*sensorium* bat beharrezko egin zuen bezala kanpo-mundua eta nahimenak bere gain duen erreakzioa ulertzeko, horrela bada beharrezko egin duela **cerebrum abdominale** bat, nerbio-sistema sinpatikoa, nahimenaren erreakzioa barne-kitzikarietara gidatzeko. Lehena Kanpo-Arazotako Ministraritzarekin konpara liteke, eta bigarrena, Barne-Arazotakoarekin, nahimenak monarka dirauela, denean presente.

Hallerrengandik aurrera fisiologian egindako aurrerapenek zalantzarik gabe utzi dute **nerbio-sistemaren** gidaritzapean aurkitzen direla, ez bakarrik kontzientzidun kanpo-egintzak (*functiones animales*), baita bizi-prozesu erabat inkontzienteak ere (*functiones vitales et naturales*), eta diferentzia kontzientziari dagokionean ez dago zerebrotik irtendako nerbioek lehenak gidatzean soilik eta bigarrenak nerbio-sistemaren gune nagusi harekin, batez ere kanporantz zuzenduriko gunearekin artez komunikatzen ez diren nerbioek, baizik eta zentrutxo subordinatuekin komunikatzean, nerbio-korapilo, ganglio eta beren ehunekin, zeinak dauden nerbio-sistemaren probintzia diferenteetako gobernari gisa, barne-prozesuak barne-kitzikariez gidatuz, zerebroa kanpo-egintzak kanpo-zioak gidaritzat hartuz bezala; ganglioek, kanpotik inpresioak hartu eta haien erara erreakzionatzen duten bezala, zerebroak errepresentazioak hartu eta haien arabera deliberatzen da, gainerakoan haietako bakoitza egintza-esparru mehar batera mugatzen delarik. Honetan datza sistema bakoitzaren *vita propria*, zeinari buruz **Van Helmontek** jadanik esaten zuen organo bakoitza bere ni propioaren jabe dela. Hortik esplikatzen da, halaber, bereizitako ataletan dirauen bizia, intsektu, narrasti eta beste behe-animalia batzuetan, zeinen zerebroa ez zaien oso nagusitzen parte bakoitzeko ganglioek; baita narrasti desberdinak astetan eta hilabetetan bizi izatea zerebroa kendu eta gero ere. Jakin badakigu, halaber, esperientziarik ziurren azken nerbio-sistemaren gune nagusiak gidaturiko eta kontzientzia duten egintzetan, egiazko agentea **nahimena** dela, guk geuk kontzientziarik arartekogabeenean eta kanpo-munduaz zeharo bestelako moduan ezagutzen duguna; eta derrigor onartu beharra daukagu, beraz, nahimenaren agerpenak direla era berean nerbio-sistema hartatik sorturik, bere zentru subordinatuen gidaritzapean dauden egintzak, zeinek eusten dioten joanaira iraunkorrean bizi-prozesuari, nahiz eta erabat ezaguna ez zaigun zergatik ez diren kontzientzidunak, besteak bezala; eta badakigu kontzientziak zerebroan duela bere kokalekua, ondorioz, nerbioak zerebroa bidaltzen dituzten parteetara mugaturik dagoela eta utzi egiten diotela iharduteari nerbio horiek ebakitzen direnean. Horrela ezinobeki esplikatzen da kontzientea eta inkontzientearen arteko diferentzia, eta berorrekin nahietsia eta nahigabea gorputzeko mugimenduetan, eta ez da inolako arrazoirik gelditzen mugimenduaren bi jatorri zeharo desberdin suposatzeke, zeren eta *principia praeter necessitatem non sunt multiplicanda*. Hori guztiori hain da argigarria, gauzari aurriritzirik gabe begiraturik gero, non ikuspuntu honetatik ia zentzugabekeria dirudien gorputza bi jaunen morroi bihurtu nahi izatea, funtsean desberdinak diren bi iturritatik bere egintzak eratorri nahi izanez eta beso-zango, begi, ezpain, eztarria, mihia eta biriken, aurpegi eta sabeleko giharreen mugimendua nahimenari egotziz; aitzitik bihotzaren, benen mugimendua, erraietako mugimendu peristaltikoa, heste-iletxoetako eta guruinetako zurgapena eta sekrezioen zerbitzari diren beste mugimendu guztiak, ezezaguna

eta ezkutua zaigun zeharo bestelako printzipio batetik eratorriz, zeinari ematen zaizkion bitalitatea, Arkeo, *spiritus animalis*, bizi-indarra, bulkada eratzailea..., X-ek baino esanahi gehiago ez duten izenak guztiak<sup>9</sup>.

Ohargarri eta jakingarri da ikustea nola **Treviranus** argia bere *Bizitza organikoko fenomenoak eta legeak* obran ahalegintzen den zehazten animaliarik beherenetan, infusorio eta zoofitoetan, beren mugimenduetarik zeintzuk diren nahietsiak eta zeintzuk automatiko edo fisikoak, berak deitzen dienez, hau da, bital hutsak; horretarako suposamendu batetik abiatzen da, hau da, elkarrekiko jatorriz diferenteak diren bi mugimendu-iturri daudela, nahiz eta egiaz bai bata eta bai bestea nahimenetik sortzen diren, beren artean duten diferentzia guztia kitzikariz ala zioz eraginak izatearen edo ez izatearen baitan egonik, hau da, zerebro baten bitartekotzaz baliatu izatearenean, kitzikaria bere aldetik, barneko soila zein kanpokoia izan daitekeelarik. Zoologi eskalan gorago dauden animalia askoren baitan, -krustazeotan eta arrainenetan ere bai- Treviranusek aurkitzen du mugimendu nahietsiak eta bitalak, adibidez, lokomozioa eta arnasketa, bat datozela, jatorri eta esentzia bera dutelakoaren froga garbia izaki. 188. orrialdean dio: "Aktinio, asteria, itsas triku eta holoturioen familian (*echinodermata pedata* Cuv.) begibistakoa da nola dagoen beraien nahimenaren baitan humoreen mugimendua, zeina gertatzen den animaliaaren lokomozio-bitarteko." -288. orrialdean dio: "Ugaztunen eztarriak badu bere goialdeko amaieran faringea, giharreek dilatatu eta uzkuertzen dutena, zeinak bat datozen beren erakuntzan nahietsiekin, nahimenaren menpean egon gabe."- Hemen ikusten da nahimenetik sortzen diren mugimenduen mugak nola nahasten diren itxuraz berari arrotz zaizkion beste haienekin. Bertan, 293. orrialdean: "Hausnarlariren urdailetan gertatzen dira mugimendu nahietsien itxura guztia duten mugimenduak. Eta hausnarketarekin bakarrik daude etengabeko loturan. Gizakia eta animalia askoren urdailak liserigarria denari bakarrik uzten diote pasatzen beren behe-irekiduratik, eta oka eginez jaurtitzen dute halakoa ez dena." Badira oraindik zenbait adibide adierazten dutenak era berean nahimenetik sortzen direla kitzikari-bidezko mugimenduak (nahigabeak) eta zio (nahiatsiek) eraginak, hemen sartzen direlarik mugimendu bat bera, bai kitzikariz, bai zioz eragina deneko kasuak, adibidez, betseinaren uzkuertura: hori argi-gehiketaren kitzikariz gertatzen da, eta zioz, oso hurbilekoa edo txikia den objekturen bat aztertzen ahalegintzen garen bakoitzean, zeren betseinaren uzkuerturak ikuspen argia burutzen baitu hurbilagotik, argitasun handiagoa eman lekioketelarik oraindik baldin eta jostorratzez txartel batean egindako zulo batetik begiratuz gero, eta alderantziz, dilatatu egiten dugu betseina urrunekoa ikusi nahi dugunean. Eta ezin daitezke funtsean desberdinak diren iturrietatik sor, alternatibaz, organo beraren mugimendu berak. E. H. Weberrek bere egitarauan, *Additamenta ad E. H. Weberi tractatum de motu iridis*, (Lipsiae, 1823), deritzonela, kontatzen digu bere baitan aurkitu duela betsein bat nahierara dilatatu eta uzkuertzeko ahalmena, aukeramen hutsez, objektu bakar eta berera zuzendurik, bestea itxirik dagoela, horrek egiten duelarik objektua batean argi eta bestean lauso agertzea. Joh. Müller ere saiatzzen da frogatzen bere *Fisiologiako Eskuliburua*, 764. orrialdean, nahimenak eragina duela betseinean.

Gainera, kontzientziarik gabe burutzen diren funtzio bital eta begetatiboak beren eragile barnekoentzat nahimena daukatelako ideia berretsi egiten da nahiatsizat onartzen den gorputzatal baten mugimendua, atal horren barruan aurrez gertaturiko alterazio-multzo baten azken emaitza baizik ez delako kontsiderazioaz, izan ere alterazio horiek ez baitira kontzientziara beste funtzio organiko haiek baino gehiago iristen, nabaria delarik hala ere, nahimenak eragina dueneko haiek direla, noski, gorputzatalaren mugimendua ondorio huts baizik ez delarik; baina gure kontzientzia horrekiko hain arrotz geratzen delarik, fisiologoek ahaleginak egiten dituzte hipotesi-bidez aurkitzen giharre-zuntzak nola uzkuertzen diren giharrearen zelula-ehunean gertaturiko alterazio baten bitartez, zeinean odolaren sedimentazio baten bidez gerlia sortzen den, guzti hori nerbioaren eraginez burutzen delarik, eta hori - nahimenaren bitartez. Eta horrela gertatzen da hemen ere kontzientziara ez iristea nahimenetik abiatzen den alterazioa, bere emaitza urrundua baizik, eta hori ere zerebroaren espazio-intuizio soilez, zeinean gorputz osoa batera errepresentatzen den. Baina fisiologoek beren ikerketa-bideetan inoiz ikusi gabe daukate goranzko kausa-serie horretan **nahimena** azken kidea izaten; zeharo beste era batera ezagutu duten egia da: enigmaren giltza ikerketa enpirikoaz kanpotik iradoki izan zaie, hemen barne-prozesuaren sekretua esperimentatzen ari den ikertzailea bera

ikertu beharreko objektua delako inguruabar zoriontsuari esker, zeren bestela bere esplikazioa beste fenomenoena bezala geldiarazi beharko bailitzateke, indar ikertezin baten aurrean. Eta alderantziz, fenomeno natural ororen aurrean geure organismoarekiko dugun barne-erlazio bera izango bagenu, fenomeno natural bakoitzaren eta gorputz bakoitzaren propietateen esplikazioa azkenean beraietan agertzen den nahimen batera bilduko litzateke berriz ere. Diferentzia ez dago gauza berean, baizik eta guk gauzarekiko dugun erlazioan soilik. Fisikoaren esplikazioa nonahi amaitzen dela ere metafisikoa den zerbaitekin topo egiten du, eta metafisikoa den hori arartegabeko ezagumen batera irekita dagoen tokian, hemen bezala, nahimena agertuko zaigu. - Ez zerebroak, ez zioek, ezta aukeramenenez mugitutako organismoaren atalak, nahimenak bizitu eta menperatuak izatea nahimenaren mugimendu harrigarriro bizi guztiekiko bere afekzio-kidetasunak frogatzen digun egia da, hau da, afektu eta grinekikoak: plazer edo beldurreko bihotz-taupada bizkorrak, aurpegiko gorritasunak lotsatzean, zurbiltasunak izularrian eta herra disimulatuan, negarrak atsekabea<sup>10</sup>, arnasa hartzeko zailtasunak eta hesteen ihardueraren asaldurak larritasunean; ahoko listuak litxertasuna kitzikatzean, goralariak gauza nazkagarriak ikustean, odol-zirkulazio bizkortuak eta behazunaren kalitate aldatuak, eta listuarenak bapateko amorrutan: halako tamainan azken hori, non amorruez gainezka dagoen txakurrak hidrofobia kutsa dezakeen bere hozkadaz, nahiz eta txakur-arrabiaz joa ez egon, edo ordutik aurrera izan dezakeen, eta hori katu eta oilar suminduez ere esaten da. Gainera, gertatzen da nahigabe handiak sakonean organismoa hondatu egiten duela, heriozko izularria sortuz, eta era berean kalte egin diezaioke supituko plazerrak. Aitzitik, nahimena jokoan kanpo utzirik ezagutzearekin zerikusia duten barne-aldaketa eta prozesu guztiak, eraginik gabe geratzen dira organismoaren makineriaren gain, nahiz eta handi eta garrantzitsuenak izan, harik eta adimenaren iharduera bortxatu eta biziagiak zerebroa nekatu eta organismoa agortu eta hondatu arte, eta horrek, edozein kasutan ere, ezagutzea izaera sekundariokoa dela berresten du eta ez dela parte baten funtzio organikoa baino ezer gehiago, biziaren emaitza bat baino, gure izatearen barne-gunea eratzen ez duelarik, bere baitango gauza, metafisikoa izan gabe, gorpuzkabea, betikoa, nahimena bezala. Hori ez da nekatzen, ez da aldatzen, horrek ez du ikasten, ez du bere burua hobetzen ariketaz, haurtzaroan zahartzarokoa bera da, beti bat eta bera eta aldaezina du izaera bakoitzean. Eta horrela funtsezkoa den bezala iraunkorra ere bada, eta horregatik animaliengan bezala gugan ere existitzen dena: zeren ez baitago, adimena bezala, antolamenduaren perfektzioaren baitan, baizik eta, funtsean, bat bera baita animalia guztietan, guk hain barrenetik ezagutzen dugun hori. Horregatik ditu animaliak gizakiaren afektu guztiak: plazerra, tristura, beldurra, kolera, maitasuna, gorrotoa, zeluak, inbidia, eta abar, animalien eta gizakiaren arteko diferentzia handia perfektzio-graduaren bestetan ez datza. Honek urrunegi eramango gintuzke eta horregatik, *Mundua nahimen eta errepresentazio gisa* obraren bigarren tomoko 19. kapitulura igortzen dut irakurlea.

Organismoaren barne-makinerian jatorrizko *agens*-a gorputzaren kanpo-egintzak gidatzen dituen nahimen bera delakoaren aldeko arrazoi azaldu eta argitsuak kontutan izanik, beraietan halakotzat bere burua aditzera ematen duelarik, beraietan kanpora zuzenduriko ezagumenaren bitartekotza behar izaten duelako ez bestegatik, eta halako prozesuan kontzientziarekin, arrazoi horiek kontutan izanik, ez gaitu harritu behar, **Brandis** jaunaz gainera, beste fisiologo batzuek ere argiro samar egia hori aitortzea beren ikerketa enpiriko hutsetan zehar. **Meckel**, bere *Fisiologiako artxiboan* (V. tomoa, 195-198. orr.) erabat modu enpirikoan eta batere aurriritzirik gabe bizitza begetatiboa, enbrioiaren erakuntza, janariaren asimilazioa, landareen bizitza oso ongi nahimenaren agerpentzat har litezkeelako emaitzara iristen da, eta imanaren beraren egintzak ere horren itxurak aurkezten omen dizkigu. "Agian justifika liteke -dio- halako nahimen libre baten suposamendua bizi-mugimendu bakoitzean." "Badirudi landareak libreki jotzen duela argirantz", eta abar. Tomoa 1819. urtekoa da, nire obra agertu berri zenekoa, eta beragan eragina izan nuelakoa gutxienez ziurra ez delarik, ezta irakurle izan nuelakoa ere, horregatik neure doktrina enpiriko eta aurriritzigabearen berrespenen artean kontatzen dut agerpen hau. **Burdachek** ere, bere *Fisiologia* handian, 1. tomoan, 259. pasartean, 388. orrialdean, erabat enpirikoki iristen da "norbere-maitasuna izaki guztiei inolako bereizketarik gabe dagokien indar bat" delako emaitzara: berehala demostratzen du, aurrena animaliatan, gero landaretan, eta azkenik gorputz bizigabetan. Zer da, ordea, nobere-maitasuna, nork bere izatea iraunaraztea, bizitzeko nahimena izatea besterik? Anatomia konparatuaz aritzean, liburu bereko

beste pasarte bat aipatuko dut oraindik erabakiorrago nire doktrina berresten duena. -Atseginez ikusten dut medikuen esparru zabalagoan hedatzen hasita dagoela, bere ordezkari gazteenen artean harrera duelarik, nahimena bizi-printzipiotzat daukan doktrina, bereziki Von Sigriz doktorearen Municheko bere sustapeneko tesian, zeina 1835eko abuztuan defendatu zuen eta honela hasten den: *1. Sanguis est determinans formam organismi se evolventis. 2. Evolutio organica determinatur vitae internae actione et voluntate.*

Aipatu beharra daukat, azkenik, nire doktrinaren parte honen berrespen oso nabarmen eta ustekabe bat, **Colebrookek** komunikatu digun berrespena, antzinako filosofia hindostaniarretik hartua. Hinduen eskola filosofikoen azalpenean, *Transactions of the Asiatic Society of Great Britain*, lehen tomoan, 1824, ematen dizkigunez, 110. orrialdean Niaya eskolaren doktrina azaltzean honako hau dio<sup>11</sup>: "Nahi-izatea, (*volition, Nyaga*) nahimenaren ahalegin edo agerpena, norberak iharduteko hartzen duen eta atsegina eskuratzen duen erabaki bat da. Guraria du abagune eta pertzepzioa zio. Bi nahi-izate-mota bereizten dira: guraritik sortzen dena, atsegina bilatzen duena, eta aiherretik sortzen dena, kontrakarrari ihes egiten diona. Beste mota bat, sentsazio eta pertzepzioari itzurtzen zaiona, baina analogiaz berezko egintzei loturik dagokiena, funtzio animaliak bere baitan hartzen dituen da, zeinak bizi-ahalmen ikusezina kausatzat duen. (*Another species, which escapes sensation or perception, but is inferred from analogy of spontaneous acts, comprises animal functions, having for a cause the vital unseen power.*) Bistakoa da "funtzio animalien" hau ez dela ulertu behar hemen zentzu fisiologikoan, baizik eta hitzaren zentzu arruntean: hemen ere eztaba daezina da bizitza organikoa nahimenetik eratortzen dela. **Colebrookenaren** antzeko adierazpen bat Vedei buruzko bere berri-ematean aurkitzen da (*Asiatic Researches*, 8. vol., 426 or.), non baitio: "**Asu nahizate inkontzientea da**, biziari eusteko beharrezko egintza eragiten duena, hala nola arnasketa, eta abar." (***Asu is unconscious volition, which occasions an act necessary to the support of life, as breathing, etc.***)

Nik bizi-indarra nahimenara mugatu izana ez zaio kontrajartzen, gainerakoan, bere funtzioen antzinako banaketari: birsortze-indarra, suminkortasun eta sentikortasunari. Sakona izaten dirau oraindik ere bereizketa honek eta kontsiderazio interesgarriak egiteko aukera eskaintzen du.

**Ahalmen birtsortzailea**, zelula-ehunean objektibatua, landareen izaera nagusia da eta gizakiak duen landarezkoa. Beronengan nagusi bihurtzen bada, flema, geldotasuna, nagitasuna, zentzuen kamustasuna (beozioak) suposatzen dizkiogu, nahiz eta beti ez suposamendu hori erabat berretsi. **Suminkortasuna**, giharre-zuntzetan objektibatua, animaliaen eta gizakiak duen animaliaen izaera nagusia da. Honetan nagusi bada, beragan iraupena, sendotasuna eta kementa, gorputzeko ahalegin eta gerrarako gaitasuna nabarmentzen dira (espartarrak). Odol beroko ia animalia guztiek eta intsektuek berek ere bai askoan gaintitzen dute gizakiaren suminkortasuna. Suminkortasunean du bizitasun handienaz animaliak bere izatearen kontzientzia, eta horregatik asaldatzen da hura agertzean. Gizakiarengan dantza da asaldura horren aztarna bat.

**Sentikortasuna**, nerbioetan objektibatua, gizakiaren izaera nagusia da eta berak egiazki duen gizakizkoa. Ez dago animaliarik honetan, ezta hurrik eman ere, gizakiari konpara lekiokoenik. Asko nagusitzen bazaio jeinua ematen du (athenastarrak), eta horregatik **jeinua** duen gizakia mailarik gorenean da **gizaki**. Eta horrela esplikatzen da jeinu batzuk gainerako gizonek (halakotzat onartzeari uko egin dietenak izatea, beren fisionomien monotonia eta arrunkearen zigilu komunarengatik, zeren beraiengan kiderik ez ikustean, berena erakuntza normala zutela uste izatearen errakuntzan erortzen baitziren. Zentzu honetan zebilen Diogenes bere kriseiluaz gizonaren bila; *Koheleth* jenialak dio: "Milatik gizon **bakarra** aurkitu dut; baina emakumerik ez horiek guztien artean"; eta Graciánek, *Criticón*-en, agian inoiz idatzitako alegoria handiena eta ederrena den horretan, dio: "baina miresgarriena zen ez zutela gizonik aurkitu herrialde guztian, ezta hiririk jendetsuenetan ere, baizik eta dena lehoiz, tigrez, lehoinabarrez, otsoz, azeriz, tximinoz, idiz, astoz beterik zegoela, eta **gizakirik** inon ez! Zeren gerora konturatu ziren ezkutatu eta zer gertatzen ari zen ez ikusteko, basapiztien bizileku izan beharko zuketaren eremu haletara bazterturik zeudela" (*Crisis*-en 5 eta 6 lehen ataletik jasoa). Izatez arrazoi berean datza, jeinu guztiek duten bakardaderako isuria, zeinera hainbeste bultzatzen dituen besteetatik bereizten dituenak nola gaitzen dituen horretarako beren barne-aberastasunak: gizonetan, diamanteetan bezala, harrigarriro handiek bakarrik balio dute bakarti izateko; arruntek elkarrekin egon eta multzoan jardun behar izaten dute.



Oinarrizko hiru potentzia fisiologikoei hinduen hiru *guna* edo oinarrizko propietate dagozkie. **Tamas-Guna**, baldarkeria, ergelkeria, birsortze-indarrari dagokio -**Rajas-Guna**, grinatzea, suminkortasunari-; eta **Sattva-Guna**, jakituria eta bertutea, sentikortasunari. Eta gaineratzen bazaio Tamas-Guna dela animalien zoria, Rajas-Guna gizakiena eta Sattva-Guna jainkoena, era mitologikoan fisiologikoan baino areago adierazita geratzen da.

Kapitulu honetan landu den gaia, *Mundua nahimen eta errepresentazio gisa* II. tomoaren 20. kapituluaren ere lantzen da, "Nahimenaren objektibazioa animalia organismoan" izeneko kapituluaren. Hemen esandakoaren hedapen gisa gomendatzen dut. *Parerga* obran II tomoko 94. pasarteari (2. edizioan 96. pasarteari) dagokio.

Gainera gogoan izan bedi koloreei buruzko nire idatzitik lehenago aipaturiko 14. eta 15. orrialdeetako pasarteak haren lehen edizioari dagozkiola.

# ANATOMIA KONPARATUA

K

anten "bere baitango gauza" edo fenomeno ororen azken substratoa nahimena delako neure proposiziotik ez nuen organismoaren barne-funtzio inkontziente guztien *agens*-a ere nahimena dela soilik ondorioztatu, baizik eta gorputz organiko hori errepresentazioan sorturiko nahimena besterik ez dela, espazioko forma intelektualean sendutako nahimena. Horregatik nioen aldiuneko nahizate isolatu oro arartekogabe eta hutsezintasunez gorputzaren kanpo-intuizioan haren egintza bat bezala agertzen den gisara, horrela animalia bakoitzaren guztizkoak ere, bere joera guztien konplexuak, bere antzirudi leiala gorputz berean izan behar du, bere organismoaren erakuntzan, ahalik eta adostasunik zehatzena behar delarik nahimenak orokorrean dituen helburuen eta bere antolakuntzak beroriek lortzeko eskuratzen dizkion bitartekoen artean. Edo, labur esateko: bere nahizatearen izaera osoak gorputzaren irudi eta erakuntzarekiko erlazioan egon behar duela, nahizate-egintza bakoitza bertara gidatzen duen gorputz-ekintza bakoitzarekiko dagoen bezala.- Hori ere errealitatetzat aitortu dute garai modernotan, pentsalari anatomiko eta fisiologikoez, nork bere kontutik eta nire doktrinaz aparte, beraz, *a posteriori* berretsiz: beren adierazpenek Naturaren testigantza eskaintzen dute hemen nire doktrinaren egiaren alde.

**Pander** eta **D'Altonen** (1822) "Haragijalen eskeletoak" grabatu ohargarrietan, honako hau ageri da 7. orrialdean: "Animaliaren **izaeratik** hezur-erakuntzaren berezitasuna sortzen den bezala, era berean izaera bera ere animaliaren **joera eta gutizietatik** sortzen da... Animalien joera eta gutizia hauek **hain biziki** beren antolakuntza osoan **adierazten** direnak, eta zeinaren bitarteko soil gisa agertzen den hori, ezin dira indar berezietaz azaldu, zeren Naturaren bizitza orokorretik bakarrik erator baitaiteke barne-arrazoia." -Azken itzulika honen bidez autoreak hemen adierazten du, naturalista den aldetik, gelditu beharreko gunera iritsi dela, metafisikarekin topo egiten duelako, zeina aurkitzen den han azken ezagugarriarekin, zeinaz haraindi ihes egiten baitio Naturak haren ikerketetari, **joera eta gutiziek**in, hau da, nahimenarekin. "Animalia nahi duelako da den bezalakoa"; hauxe litzateke bere azken emaitzaren adierazpen laburra.

Ez da adierazkortasun gutxiagokoa nire egia ekarri dion testigantza **Burdach** jakitun eta sakonak bere Fisiologia handian, (2. bol., § 474), non lantzen dituen enbrioia sortzearen azken arrazoiak. Ezin dut esan gabe utzi, zoritxarrez, hori bezalako autore bikainak, hain zuzen ere hementxe ordu txarrean eta Jainkoak daki nola eta zerk liluraturik, erabat baliorik gabekoa eta indarrez ezarria den sasi-filosofia hartako zenbait esaldi darabiltzala, "pentsamenduari" buruzkoak, zeina jatorrizkoa dela dion, (hain zuzen ere azkena eta baldintzatuena da), berak dioenez, "ezeren errepresentazio ez dena", beraz, zurezko burdin bat den "pentsamenduari" buruz. Baina pasarte berean eta bere baitako hoberenaren eragin erreakzioegilearen pean, egia hutsa adierazten du 710. orrialdean, esanez: "zerebroa alderantzikatu egiten da erretina sortzeko, zeren enbrioia erdikoak bere baitan hartu **nahi baititu** iharduera kosmikoaren inpresioak; heste-hodiko mukosa birika bilakatzen da, zeren gorputz organiko harremanetan sartu **nahi baitu** printzipio kosmiko elementalekin; sistema baskularretik birsorkuntza-organoak ernetzen dira, zeren banakoa espeziean bakarrik bizi baita eta biderkatu egin **nahi** baitu berak hasitako bizia. -Nire doktrinari hain ongi dagozkion **Burdachen** adierazpen horiek, antzinako *Mahabarata*ko pasarte hura oroitaraz-

ten dute, zeina nekez utz daitekeen, ikuspuntu honetatik, egia beraren adierazpen mitikotzat hartu gabe. Sunda eta Upasundaren hirugarren kantuan dago, Boppek 1824ean argitaraturiko "*Ardshunak Indraren zerurako bidaiak, Mahabaratako beste gertakari batzuekin*" obran. Brahmak Tilottama sortu du, emakumerik ederrena, eta jainkoen biltzarreaz inguratu du: Shivak hainbesteko irrika du bera begiztatzeko, non berak bezala behin eta berriz zirkulua korritzen duen, eta lau aurpegi sortzen zaizkio, ikuspuntuaren arabera, hots, munduaren lau aldean arabera. Agian horri buruzkoak dira Shivaren bost buruko irudiak, Pansh Mukhti Shiva bezala. Era berean eta antzeko abagunean sortzen zaizkio Indrari gorputz osoan ezin zenbatu ahala

begi<sup>12</sup>. -Kontua da organo bakoitza nahimen-agerpen unibertsal baten adierazpentzat hartu behar dela, hau da, behin betirako egindakotzat; gurari finkatu batena, nahimen-egintza batena, ez banakoarena, espeziearena baizik. Animalia-figura oro inguruabarrek bizitzara iradokitako nahimen-gutizi bat da: adibidez, zuhaitzetan bizitzeko irrika sentitzen du, adarretatik zintzilikatzekoa, bere hostoez elikatzekoa, beste animaliekin borrokan aritu beharrik eta lurtzoria zapaldu beharrik gabe, eta gurari hori denbora luzean zehar finkatzen da, nagia deituriko animalia-figuran (idea platonikoan). Ozta-ozta da ibiltzeko gai, zuhaitzetan gora igozteko pentsaturik baitago: lurtzorian baliabide oroz gabeturik, oso ongi moldatzen da zuhaitzetan, adar herdoilduaren itxura du pertsegitzaileak kontura ez daitezen. -Baina orain gauzak modu lau eta metodikoagoz aztertu behar ditugu.

Animalia bakoitzak bere bizi-motarekiko ageri duen moldaera nabariak, zeina hedatzen den banakoarengana eta bere iraupeneko kanpo-bitartekoetara, eta bere antolakuntzako arte-perfekzio joria gogoetagai teleologiko aberatsena da, zeinetarako isuria duen antzinatik giza izpirituak, eta zeinak Natura bizigabera eramanez gero froga fisiko-teleologikoaren argudio izatera iritsi diren. Animalia-organismoko atal guztietako helburu salbuespengabeak, intentzionalitate nabariak aski argi iragartzen du ez diharduela beraietan egitasmorik gabeko eta halabeharreko indar naturalak, nahimen batek baizik, benetan kontuan hartu beharreko gauza izaki. Baina gertatzen da ezin zitekeela, ezagutza eta ikuspegi enpirikoaren arabera, nahimen baten egintza beste modu batera pentsa ezagutze batek gidatu gisa izan ezik, zeren nigana iritsi arte, azalduz geratu denez, nahimena eta ezagumena inondik ere ezin banatuzkotzat eduki izan baitira, nahimena inteligentziaren eragiketa soilizat, izpiritu ororen ustezko oinarritzat jotzeraino. Beraz, nahimenak diharduen tokian, derrigorrezkoa da ezagumena gidari izatea, eta ondorioz, baita hemen ere. Alabaina, gertatzen da, ezagumenak, funtsean kanporantz zuzentzen den bitarteko gisa, bere bitartez aktibo den ezagumen batek, kanporantz bakarrik, izaki *batetik bestera* ihardutea eskatzen duela. Eta hemendik zetorren nahimenik ez bilatzea, zeinaren aztarna ukaezinak aurkitu ziren, egiazki aurkitzen zen tokian, baizik eta kanpoaldean suposatzea, eta animalia bere buruari arrotz zitzaion nahimen baten, azken kontzeptu oso argi eta ongi pentsatu batez eraturik egon beharko zukeen ezagumenak gidatuaren emaitza bihurtzen zen, eta ezagumen hori animalia-egintzaren existentziaz aurrekotzat eta beronez kanpo ezarritakotzat jotzen zen nahimen guztiarekin, zeinaren emaitza animalia den. Eta hemendik zetorren animalia lehenago izatea errepresentazioan errealtatean edo bere baitan baino. Hori da froga fisiko-teleologikoak oinarritzat daukan pentsamentu-prozesuaren eustazpia. Baina froga hori ez da eskola-sofisma hutsa, ontologikoa bezala: ez darama bere baitan kontraesale nekaezin eta naturalik, kosmologikoa bezala; izatea ematen dion kausalitate-lege berean daukana; aitzitik, froga hori egiazki jakitunentzat keraunologikoa<sup>13</sup> herriarentzat<sup>14</sup> dena bera da eta hain itxura ahaltzu eta handia du, non bertan erori izan diren bururik gailenenak eta aldi berean aurritzigabeenak, adibidez, Voltaire, zeina era guztietako zenbait zalantzaren ondoren, beti bertara itzultzen den, gainditzeko aukerarik ikusi gabe eta matematikoa bailitzan bere nabaritasuna finkatuz.

**Priestley** ere (*Disquis. on matter and spirit, sect. 16, 188. orr.*) eztabaida ezintzat dauka.

**Humeren** begiramendua eta zorrotasuna bakarrik gelditzen dira irmo honetan; Kanten benetako aurreko legitimo honek, *Dialogues on natural religion* (part. 7 eta beste pasarte batzuetan), hain irakurgarriak diren horietan, ohartarazten du nola funtsean ez dagoen inolako antzekotasunik Naturaren obren eta berariaz diharduen arte baten artean. Hainbat distiratsua ageri da honetan Kanten meritua, nola judizioaren kritikan hala arrazoi hutsarenean, non bera den froga horri *nervus probandi*-a, hain preziatutzat edukia, ebaki diona, eta baita beste frogei ere. Neure obra nagusian, I tomoan, 597. orrialdean (3. edizioan I bol., 631. orrialdean), bada Kanten froga fisiko-teleologikoari aurkitzen dion kontraesanaren laburbilduma txiki bat. Berorri esker meritua handia bereganatu du Kanten, zeren ez baitaio ezer hainbeste kontrajartzen Naturaren eta gauzen esentziaren ikuspen zuzenari berorien horrelako kontzeptzioa adina, zeinak kalkulu zuzenaren ondorengo buruturiko obra bailiran. Eta baldin gero Bridgewaterreko duke batek diru-kopuru handiak eskaintzen baditu preziotzat oinarritzko errakuntza hori berrets eta betiko dadin, lan egin dezagun guk, kordoka ezin, egia beste saririk gabe, Hume eta Kanten urratsei jarraika. Horretan ere Kant negatibora mugatu zen, zeinak izaten duen bere ondorio osoa positibo zuzen batez osatzen denean, orduan bakarrik atsegin bete ematen duelarik, Spinozak esanaren arabera: *sicut lux se ipsa et tenebras manifestat, sic*

*veritas norma sui ta falsi est.* Diogun, beraz, ezer baino lehen: mundua ez da ezagumenaren laguntzaz, beraz ez da kanpotik egina, barrutik baizik; eta orduan mundu-arrautzaren *punctum saliens*-a erakustera beharturik aurkituko gara. Natura ordenatu eta modelatu duena entelegu batek existitu behar izan duelako pentsamendu fisiko-teleologikoa aisa egokitzen zaio edozein ulermen kamutsi, eta, hala ere, berari egokitua bezain zentzugabea da. Entelegua izaera animaliaz bakarrik zaigu ezaguna, horregatik, printzipio erabat sekundario eta munduari subordinatu, jatorri gerokoenaren emaitza gisa: beraz ezin daiteke inoiz bere existentziaren baldintza izan<sup>15</sup>. Baina hara non sartzen den nahimena dena betetzen duen eta gauza bakoitzean bere burua hura bere agerpen, eta jatorrizkoa bezala nonahi ezagutzera ematen duena bezala. Beraz, gertakari teleologiko guztiak burutzen direneko izakiaren beraren nahimenetik abiatuz esplikatu litezke.

Gainerakoan, ahuldu egiten da frogia fisiko-teologikoa enpirikoki behatzean animali instintuaren obrak, armiarma-sarea, erleen abaraska, termiten bizilekua eta abar, helburuzko kontzeptu baten, aurrikuspen eta deliberamendu razional baten kumeak bailiran aurkezten zaizkigun, izatez instintu itsu baten obra direlarik, hau da, ezagumenak gidatu gabeko nahimen batenak, nondik jarraitzen den ez dela ziurra horrelako disposamendu batetik ondorioztatzen dena, gauzen horrelako izan-moduan oinarrituz. Nire obra nagusiko bigarren tomoko 27. kapituluari, kontsiderazio xehe bat ageri da instintuaz. Kapitulu hori, teleologiaz aurretik datorrenarekin batera, hemen landutako guztiaren osagarritzat erabil daiteke.

Azter dezagun hurbilagotik animalia bakoitzak bere bizimodura eta bere existentzia iraunarazteko bitartekoetara antolakuntza moldatzeko duen gaitasuna. Hemen galdera bat sortzen da, noski, bizimodua antolakuntzaren arabera arautzen den ala hori lehenaren arabera. Badirudi, lehen begiradan, lehendabizikoa dela zuzena, zeren eta denboraren ordenuan antolakuntza aurretik baitoakio bizimoduari, uste izanez animaliak bere egiturari hobekien doakion bizimodua hartu duela beretzat, ahalik eta hobekien erabiliz bere baitan aurkitutako organoak; hegaztiak hegala dituelako egiten duela hegaz, zezenak adarrak dituelako erasotzen duela, eta ez alderantziz. Iritzi berekoa da Lukrezio ere (inondik ere ausarta dirudi iritzi izateko):

*Nil ideo quoniam natum est in corpore, ut uti*

*Possemus; sed, quod natum est, id procreat usum.*

IV. kantuan, 825-843an aipatzen duelarik. Bakarrik ustekizun honetan erantzunik gabe gelditzen da: nola animaliaaren organismo atal erabat diferenteek erantzuten dioten orokorrean beren bizimoduari, ezein organok besteri trabarik egiten ez dion, baizik eta aitzitik bakoitzak gainerakoei laguntzen dien eta bakar bat ere erabili gabe gelditzen ez den eta nola ezein organo subordinatuk beste era batera bizitzeko hobeki balioko zukeen, animaliak segitzen duen bizimodu hura organo nagusiek bakarrik determinatu izan balute. Aitzitik, gertatzen da animaliaaren atal bakoitzak gainerako beste atalei ez ezik bere bizimoduari ere erantzuten diola, adibidez, baldin erpeak beti egokiak badira harrapakina oratzeko, hortzek urratu eta desegiteko balio dute, eta heste-hodiak liseritzeko eta lokomozio-gorputzadarrak gaiturik daude harrapakina aurkitzen den tokira eramateko, ezein organo erabili gabe gelditzen ez delarik. Horrela, bada, hartz inurrijaleak ez ditu erpe luzeak aurreko hanketan termiteen bizilekuak porrokatu ahal izateko soilik, baita bizileku berean sartu ahal izateko ere, zilindro erako mutur luzea, matraila txikia eta mihi luze, filiformearekin, mukositate itsaskor batez estalia, termiteen habietan sakon sartzen duen mihia, berari itsatsitako intsektuekin ateratzeko, eta, aitzitik, ez du hortzik horien premiarik ez duelako. Nork ez dakusa hartz inurrijalearen figura termiteei dagokiela nahimen-egintza bere zioari bezala? Hain kontraesan paregabea dauka hartz inurrijaleak bere beso indartsu, erpe sendoz hornitu, luze eta kurbatuen eta hozka egiteko matrailarik ez izatearen artean, non lurrak iraultza berriren bat jasango balu, inurritegi fosila egiazko enigma izango litzatekeen termiteak ezagut ez ditzaten etorkizuneko belaunaldientzat. Hegaztiaren lepoa eskuarki, lauroinekoena bezala, hankak bezain luzea izaten da, horrela lurtzorian bere janaria lortzeko; baina palmipedoetan sarritan askoz luzeagoa izaten da igerian joaten direlako urpeko janariaren bila. Ikusita daukat kolibri bat (*Zooplast. Kab. 1860*) txori osoa burutik buztaneraino bezain moko luzea zeukana. Kolibri hau, zalantzarik gabe sakoneraren batera joaten bide zen bere jakiaren bila, lore-kaliza sakonen batera besterik ez bazen ere (*Cuvier, anat. comp., IV vol., 374 or.*), zeren ez baitziokeen premiarik gabe bere

buruari halako mokoaren luxurik emango, haren pisu guztia aldean eramanez<sup>16</sup>. Zingiretako hegaztiekin hanka neurriz gain luzeak dituzte idoietan urperatu eta busti gabe ibili ahal izateko, eta beraien arabera lepoa eta mokoa ere guztiz luzeak, azken hau sendoa edo ahula, narrastiak, arrainak edo harrak birrindu behar izatearen arabera, errainak ere beti gisa horretakoak dituztelarik, eta alderantziz hegazti horiek ez dute erperik harrapariekin bezala, ez behatzarteko mintzik ahatekin bezala, zeren eta *lex parsimoniae naturae*-k ez baitu alferriko organorik onartzen. Lege hori, beste harekin batera, zeinak dioen ezein animaliarik ez dakiola bere bizi-motak eskatzen duen organorik falta, aitzitik, guztiak, nahiz eta desberdinenak izan, komuzta daitezela beren artean bereziki determinaturiko bizi-mota baterako kalkulatuak baleude bezala, bere harrapakina bizi den elementuan, haren pertsegizio, garaitia, birrintze eta liseriketarako; horiek dira bere mantenua aurkitzeko animaliak egin nahi zuen bizi-mota dela frogatzen duten legeak, bere egitura determinatu dutenak -baina ez alderantziz; eta gauza egiturari aurre hartu izan balio bezala gertatu dela bizi-motaren eta bere kanpo-baldintzen ezaguerak, ondorioz, animalia bakoitzak bere tresna haragiztatu baino lehen hautatu izan balu bezala; ez da bestetara gertatzen ehiztariak, irten aurretik, hautaturiko oihanaren arabera, bere hornidura osoa: eskupeta, karga, polbora, galtzar-sarea, labana eta jantzia aukeratzen dituenen. Eta ez dio basurdeari tiro egiten indarreko eskupeta daramalako, baizik eta hau hartu eta ez txoritarakoa basurdetara irtena zelako; eta zezenak ez du erasotzen adarrak dituelako, baizik eta adarrak ditu eraso nahi duelako. Froga osatzera dator honako gertakari hau: animalia asko, oraindik hazkundearen dauden bitartean gorputz-atal batek balio izan behar duen nahizatezko guraria agertzen da horrela bere erabilerak existentziari aurre hartuz. Horrela aritzen dira adarka bildotsak, antxumeak eta txahalak, buruaz bakarrik, adarrak izan aurretik; basurdekumeak ezker-eskuin zuzentzen ditu kolpeak bere inguruan oraindik letaginik ez duenean, zeinek nahi den efektuari erantzuten dioten, aitzitik, jadanik matrailan dituen hortz txikiez baliatzen ez delarik eta zeinez hozka egin lezakeen. Horrela bada bere defentsa-modua ez da dauzkan armen arabera zuzentzen, alderantziz baizik. Hori ohartu zuen jadanik Galenok (*De usu partium anim.* I., 1.) eta bere aurretik Lukreziok (V. 1.032-39), eta honetatik lortzen dugu ziurtasun osoa nahimenak, eranskina den zerbaitekin, agian inteligentziatik sortuak bezala, ez dituela baliarazten dauzkan tresnak, zeinekin aurkitzen baita noski atalak erabiliz han bertan beraiekin aurkitzen delako eta ez beste batzuekin, baizik eta lehena eta jatorrizkoa era horretara bizitzeko ahalegina dela, era horretara borroka egiteko eta ez bestetara, eta ahalegin hori ez da armak erabiltzean bakarrik agertzen, baizik eta beraiekin izatea ere bai, eta hainbat gehiago, ezen sarritan lehenak aurre hartzen baitio bigarrenari, horrela erakutsiz armak sortzen badira ahalegina dagoelako dela eta ez alderantziz. Hauxe gertatzen da edozein atalekin orokorrean. Jadanik Aristotelesek adierazi zuen hau intsektu eztenekin armatuekin  $\delta\alpha\ \tau\omicron\ \beta\upsilon\mu\omicron\nu\ \epsilon\chi\epsilon\iota\nu\ \omicron\pi\lambda\omicron\nu\ \epsilon\chi\epsilon\iota$  (*quia iram habent, arma habent*) "hira dutelako direla armadun" (*de part. animal.* IV, 6), eta aurrerago

**Ta d organa proz to ergon h j usiz poiei all ou to ergon proz ta organa** (*natura enim instrumenta ad officium, non*

*officium ad instrumenta accommodat*): "Naturak organoak ofiziorako egiten ditu eta ez hau haietarako". Azken emaitza da animalia orok bere egitura nahimenaren arabera egin duela. Hain nabari nagusitzen zaie egia hau zoologo eta anatomiko pentsatzaileei, non honek bere izpiritua filosofia sakonago batez araztu ez badu, errore bitxietara eramana aurki lezake bere burua. Hala gertatu zaio lehen mailako zoologo bati, **de Lamarck** ahaztezinari, zeinak meritu hilezkorra bereganatu baitu animaliekin duten ornodun (*vertebrata*) eta ornogabeen (*nonvertebrata*) arteko bereizketa sakonarengatik. Bere *Philosophie zoologique*, vol. i, c. 7, eta bere *Hist. nat. des animaux sans vertèbres*, vol. i, introd. 180-212 orrialdeetan, seriotasun osoz baieztatzen du eta xeheki egiaztatzen saiatzen da, animalia espezie bakoitzean kanporantz diharduten arma bereziak eta era guztietako organoak ez zeudela espeziearen jatorrian, baizik eta animaliaaren ahalegin nahietsien ondorioz jaio direla, bere giroaren erakuntzak, ahalegin propio errepikatuekin, eta beraietatik sortzen diren azturekin eraginik, eta **denboran zehar** eta birsorkuntzari esker **jaio direla**. Horrela -dio- behatzarteko mintzak lortu dituzte hegazti eta ugaztun igerilariak, zeren igerian egiteko beren behatzak hedatzen baitzituzten; zingira-hegaztiak hanka luze eta lepo luzearekin aurkitu ziren zingiretan zehar ibiltzearen ondorioz; animalia adardunak pixkanaka adarrekin aurkitu ziren lehen aldiz, zeren eta hozkada bikainik eman ezinean, buruaz bakarrik borrokatu baitzezaketen, eta borroka mota horrek adarrak

sortarazi zizkien. Marraskiloa bere hasieran beste molusku batzuk bezala zegoen, adarrik gabe; baina inguruko objektuak haztatzearen premiaz pixkanaka jaio zitzaizkion haiek. Felinoen genero osoak denborarekin erpeak hartu zituen, harrapakina zarratatzeko premiatik, eta ibilian moldatzeko eta haien trabarik ez izateko premiatik, gordetzen ditueneko magina eta haien higikortasuna. Jirafak, Afrika lehore eta belargabeen zuhaitz garaien adarrei atxiki zitzaionak, aurreko hankak eta lepoa luzatu zituen bere irudi estrainioa, aurrealdetik hogeitaz oinbeteko altuera duena lortu arte. Eta horrela jarraitzen du printzipio beraren arabera jaioarazten animalia espezie ugari, ikusi gabe bistakoa den eragozpenera, hau da, espezieak ahalegin horietan iraungiko ziratekeela ezin zenbatu ahala belaunalditan zehar beren iraupenerako beharrezkoak zituzten organoak sortu baino lehen, beraien gabeziak desagerturik. Hainitsu egonik, hipotesi aurrekontzebitua ezartzen du. Hala ere, Naturaren kontzepzio zehatz eta sakonetik jaio da honako hau, autoreari ohore egiten dion errakuntza jeniala izaki, bere baitan daukan zentzugabezia guztia gorabehera. Hipotesi horrek duen egia, naturalista gisa, bere autoreak ikusitakoa da: ongi ulertu zuen animalia nahimena dela jatorrizkoa eta bere antolakuntza determinatu duena. Faltsua, aitzitik, errutat Frantziar metafisikak duen egoera atzeratuaren kontuan kargatu behar da, non oraindik nagusi diren **Locke** eta **Condillac** bere ondorengoak, hura baino makalagoa, eta non, beraz, oraindik ere gorputza bere baitako gauza gisa hartzen jarraitzen duten, denbora eta espazioa bere baitako gauzaren koalitatzat, hain oraindik denbora eta espazioaren idealitatearen doktrina handi eta emankorra sartu ez delarik, ezta beronen baitan datorrenik ezertxo ere. Eta hemendik dator **de Lamarckek** ezin kontzebitu izana izakien erakuntza denboran ondozkapenez izan ezik. Kanten eragin sakonak erazi ditu betirako Alemaniak gisa horretako erroreak, baita frantsesen atomistika kamuts eta aldrebesa eta ingelesten kontsiderazio fisiko-teologiko jaieratsuak. Hain da mesedegarri eta iraunkorra izpiritu handi baten eragina nazio batean bertan ere, zeinak panparroi eta berritsuei jarraitzeko bertan behera utzi zuen. Baina ezin izan zitzaion inoiz bururatu **de Lamarcki** animalia nahimena, bere baitango gauza gisa, denboraz kanpo dagoenik, zentzu horretan, animalia bera baino ere jatorrizkoagoa izan daitekeelarik. Lehenik, beraz, animalia ezartzen du organo erabakirik gabe; baina baita joera erabakirik gabe ere, pertzepzioz bakarrik hornitua, zeinak irakasten baitizkio bizi beharreko inguruabarrak, ezagumen horretatik joerak sortzen zaizkiolarik, hau da, bere nahimena eta honetatik, azkenik, bere organoak eta bere gorpuzkera jakina, birsorkuntzaren laguntzarekin eta denbora-epe neurgabeen, beraz. Azkenearaino iristeko kemenik izan balu, animalia primitibo bat suposatu beharko zukeen, kontsekuenteki figura eta organorik gabea beharko zukeena, eta gero, klima eta tokizko inguruabarren eta ezagumenaren arabera mota guztietako milaka animalia espeziatan eraldatuko zatekeena, eulitik elefantaraino. -Baina egia da animalia primitibo hori **bizitzeko nahimena** dela: bere horretan zerbait metafisikoa dela, ez fisikoa. Espezie bakoitzak determinatu egin du bere forma eta antolakuntza bere nahimen propioz eta bizi nahi zueneko inguruabarren arabera, baina ez zerbait fisiko bezala denboran zehar, baizik eta zerbait metafisiko gisa denboraz kanpo. Nahimena ez da ezagumenetik sortu eta hori existitzen zelarik, animalia osoarekin, nahimena izan baino lehenago, akzidente huts gisa, sekundario eta tertziario ere baden zerbait bezala, baizik eta nahimena primarioa da, bere baitako esentzia: eta horren agerpena da (errepresentazio soila entelegu ezagutzailean eta zeinaren forma diren denbora eta espazioa) animalia, inguruabar berezi horietan bizitzeko nahimena eskatzen duten organo guztiez hornitua. Organo horiei dagokie, halaber, entelegua, ezagumena bera, gainerakoa bezala, animalia bakoitzaren bizi-motara zehatz egokituta dagoena; aldiz **de Lamarckek** bertatik jaioarazten du nahimena.

Azter bitez animalien figura zenbatuezinak ikusteko nola ez den bakoitza, edozein kasutan ere, bere nahimenaren irudia, bere nahimen-joeren adierazpen ikuskorra, zeinek izaera eratzen dioten. Figuren aniztasuna izaera-aniztasunaren irudia besterik ez da. Animalia harrapariak, borroka eta lapurretara zuzenduak, ahutz beldurgarri, erpe eta giharre sendoez daude; begirada urrunera iristen da, batez ere arranoa eta kondorea bezala goialdetik eralgitzen, harrapakinaren zelatan egon behar dutenean. Animalia kikelak, beren salbamena ez borrokan baizik eta ihesean bilatzeko nahimena dutenak, armen ordeztu hanka arin, bizkorrez eta entzumen zorrotzez horniturik daude, zeinen arteko ikaratiaren den erbiari kanpoko belarria nabarmen luzatu dion. Kanpoaldeari barnealdea dagokio: haragijaleek heste laburrak dituzte; belarjaleek, luzeak, asimilatze-prozesu geldidagorako; giharre-indar eta suminkortasun handiarekin batera doaz

arnasketa indartsua eta odol-zirkulazioa bizkorra, beraietara egokituriko organoek errepresentatuak, beharrezko baldintza gisa, eta kontraesana erabat ezinezkoa da. Nahimenaren ahalegin berezi bakoitza figuraren modifikazio berezi batean agertzen da. Hortik dator **harrapakinaren lekuak pertsegitzailaren figura determinatzea** baldin hori nekez iristeko moduko elementuetara, zoko ezkutuetara, gauean eta ilunpetan baztertzen bada, pertsegitzailak ingurune horri hobekien doakion forma hartzen du, eta horien artean bat bakarrik ere ez dago hain groteskorik, non bizi-nahimenak ez duen bereganatzen bere helburua lortzeko. Mokokerrak (*Loxia curvirostra*) bere aparatu mastekatzailaren figura eskerga hori elikatzen deneko haziak pinaburuaren ezkata artetik atera behar izateari zor dio. Zingiretan narrastiak bilatzeko dute hankaluzeez beren figura bitxia, beren lepo luzea, hanka luzeak eta moko luzea. Termiteak lurpetik ateratzeko ditu hartz inurrijaleak lau hanka luzeak berna labur, sendoezin, eta erpe luzeak eta ahutz txiki eta hortzgabeak, baina mihi likatsu eta filiformez hornituriko muturra. Pelikanoa mokopean poltsa eskerga duela joaten da arrantzara bertan arrain asko gorde ahal izateko. Gauez lotan dauden gainera oldartzeko, mozoiloek ilunpetan ikusteko aukera ematen dieten beginini neurritz gain handiekin eta hegada isilean lotan daudenak ez iratzartzeko luma erabat biguinekin hegaz egiten dute. Siluro, gimnoto eta torpedoak aparatu elektriko osoa dute beren baitan harrapakina atzeman aurretik sorgortzeko; baita pertsegitzailetatik beren buruak babesteko ere. Bizidun batek arnasa hartzen duen tokian beste bat dago hura irensteko<sup>17</sup>, eta bakoitza nonahi eta beti bestea deuseztatzeko zuzendu eta gertaturik balego bezala, berezitueneraino iritsi arte. Adibidez, intsektuen artean ikneumoiek, kumeek etorkizunean jatena izan dezaten, har jakin batzuen eta antzeko larben gorputzetan erruten dituzte arrautzak, horretarako eztenaz zulaturik. Libreki arrastatzen diren larbei datxizkienek ezten erabat laburrak dituzte, hazbetaren 1/8koak; aitzitik, *Pimpla manifestator*-ak, *Chelostoma maxillosa*-ri datxikionak, zeinaren larba zur zaharrean ezkututzen den, 2 hazbeteko eztena du; eta ia hain luzea du *Ichneumon strobillae*-k, zeinak erruten dituen arrautzak pinaburuetan bizi diren larbetan: horretarako horiek larbetaraino zulatzen ditu, ziztatu eta zaurian arrautza ezartzen du, zeinaren emaitza jaten duen gero larbak. (Kirby and Spence, *Introduction to Entomology*, vol. I, 355. or.) Eta ez da argitasun gutxiagoz agertzen pertsegituen babes-armaduran beroriek etsaiari ihes egiteko duten nahia. Triku eta arantzurdeek arantzezko sasi bat eraikitzen dute gorantz. Burutik oinetaraino armaturik, hortz, moko eta atzaparrak ezin sar daitezkeela, agertzen dira armadiloa, dortoka eta beste batzuk, eta txikian krustazeoen klase osoa. Beste batzuek babesba ez dute eragozpen fisikotan aurkitu, baizik eta pertsegitzailari iruzur egitean: horrela txibia laino ilun bat sortzeko beharrezko gaiak hornitu da, zeina barreiatzen duen inguruan arrisku-garaian; nagiak adar goroldiotsuaren itxura du engainatzeko tamainan; igel berde txikiak hostoarena, eta intsektu ugari bizilekuarena; beltzaren zorria beltza da<sup>18</sup>: gure arkakusoa ere halaxe da; baina bere salto zabal eta irregularretara emana dabil, eta horrenbestez aparatu indartsu eta paregabe baten luxua eman dio bere buruari. -Bitarteko horietan obratzen den aitzinapena instintuetan agertzen zaigunera ia muga genezake. Armia arma gazteak eta inurri-lehoiak ez dute oraindik ezagutzen lehen aldiz topatuko duten harrapakina. Eta berdin gertatzen da defentsarekin ere: *Bombex* intsektuak, **Latreille** arabera, hil egiten du eztenaz *Parnope*-a, nahiz eta jaten ez duen, eta haren erasorik ere hartzen ez duen, baina geroago bigarrenak lehenaren habian bere arrautzak ezartzen dituelako, honen arrautzen garapena eragotziz, nahiz eta berak ez jakin oraindik hori. Aitzinapen horietan beste behin denboraren idealitatea berresten da, nahimenaren edota bere baitako gauzaren aipamena egiten den bakoitzean agertzen den idealitatea. Hemen aipatuan, baita beste gai batzuetan ere, elkarrekiko esplikazio gertatzen dira animaliaen instintuak eta funtzio fisiologikoak, zeren eta bi kasuetan baitihardu nahimenak ezagumenik gabe.

Bitariko armaz eta organoz, nola erasotzailez hala babestailez, nahimenak animalia forma bakoitza hornitu duen bezala, halaber **entelegu** batez ere hornitu du, banakoaren eta espeziearen iraupenerako bitarteko izan dadin, eta hortik dator antzinakoek enteleguari *hegemonikon*, hau da, bide-erakusle eta gidari deitu izana. Beraz, entelegua nahimenaren zerbitzu soilera determinaturik dago eta berorri guztian zehatz egokitua. Animalia harrapariek askoz gehiago hura erabili eta erakutsi izan dute belarjaleen aldean. Salbuespen dira elefantea eta, neurri batean, zaldia: baina elefanteari beharrezko zitzaion bere adimen miresgarria, zeren berrehun urteko bizi-iraupena izan, eta ugalkortasun urrikoa delarik banakoaren iraupen luze eta

seguruagoaz ardurtzeko, eta gainera piztia jatun, sendo eta trebeenak barra-barra dabilzan lurraldeetan. Zaldiak ere hausnarlariek baino bizitza luzeagoa eta ugalkortasun urriagoa du: bestalde, nola ez dagoen adar eta letaginez hornitua, ezta tronpaz, ez inolako armaz, izatekotan ere apatxez soilik, inteligentzia gehiago eta lastertasun handiagoa behar zituen pertsegitzaileei ihes egiteko. Tximinoei adimen harrigarri hori ere beharrezko zitzaien, partez, zeren eta batez beste berrogeita hamar urtetara artekoa duten bizi-iraupenarekin, ugalkortasun urrikoak dira, aldiko kume bakarra erditzen dute; baina batez ere **eskuak** dituztelako, zeinek aurretik erabiltzeko adimena behar zuten, eta zeinen erabilerara zuzentzen diren, bai animaliairen babeserako, kanpoko armen, hala nola, harri eta makilen bitartez, bai beren elikapenerako, zeinak zenbait bitarteko artifizial eskatzen dituen, harrapakina lortzeko sistema bat orokorrean sozial eta artistikoa beharrezko eginez, lapurturiko fruituak eskuz esku pasaraziz, zelatariak ezarriz, eta abar. Gainera bekio adimen hori bere adin-gaztetasunari dagokiola batipat, oraindik indar muskularra garatu gabe baitauka. Horrela, adibidez, pongo gazteak, edo orangutanak bere gaztaroan zerebro erlatiboki garatuagoa eta adimen askoz handiagoa du helduaroan baino, zeinean indar muskularrak garapen handia lortu duen entelegua ordeztuz, zeina nahikoa urritzen baita horren ondorioz. Gauza bera esan daiteke tximino guztiei buruz: hemen ere entelegua etorkizuneko indar muskularraren ordezeko gisa agertzen da. Prozesu hori xeheki azaldua dago *Résumé des observations de Fr. Cuvier sur l'instinct et l'intelligence des animaux*, (p. Flourens, 1841) obran. Hemen egoki datorren obra horretako pasarte, neure obra nagusiko bigarren tomoan jadanik aldatu dut, 31. kapituluaren amaieran, eta ez noa hemen errepikatzen. -Oro har, pixkanaka gehituz doa inteligentzia ugaltzetan, karraskarietatik<sup>19</sup> hausnarlarietara, horietatik pakidermoetara, pakidermoetatik haragijaleetara eta, azkenik, horietatik lareskukoetara. Kanpo-behaketaren datu horri erantzunez, Anatomiak erakusten digu zerebroa nola joan den ordenu berean garatuz (Flourens eta Fr. Cuvierren arabera)<sup>20</sup>. Narrastien artean sugeak dira zuhurrenak, eta trebatuak izateko aukera ematen dute, haragijaleak direlako, eta besteak baino geldiroago ugaltzen direlako, pozoitsuak batez ere. -Arma fisikoei dagokienean bezala, hemen ere nahimena aurkitzen dugu *prius*-tzat eta bere tresna den adimena, *posterius*-tzat. Ez doaz haragijaleak ehizara ezta azeriak lapurretara adimen gehiago dutelako, baizik eta ehiza eta lapurretatik bizi nahi zutelako dituzte ahutz eta erpe indartsuagoak bezala, adimen gehiago ere. Azeriak adimen-finezia gailenez ordeztu du indar muskular eta ahutzen sendotasunetik falta zaiona. Gure tesia bereziki argitzen du Maurizio irlako **dudu** hegaziaren, dronte, *Didus ineptus* ere badenaren kasuak, zeinaren espeziea jakina denez desagertu den eta bere latinezko deiturak adierazten duenez, ergel hutsa zen, eta horrek esplikatzen du bere desagertzea; horregatik badirudi hemen Naturak, bere *lex parsimoniae* deritzona betetzen urrunegi joan zela, hemen espeziean, nolabait, banakoan sarri egiten duenez, bere horretan iraunezina den mustro bat sortarazi duela. Norbaitek oraingo honetan eragozpen bat aurkeztuko balu esanez ea ez ote ziezakekeen Naturak intsektuei argi baten sugarretara ez amiltzeko behar adinako adimena eman, hau erantzungo nioke: egia dela, baina ez zekiela gizakiek argiak isuri eta piztuko zituztenik: eta *natura nihil agit frustra*. Beraz intsektuen adimena ez da iristen naturala ez den ingurugiro batera<sup>21</sup>.

Nolanahi ere inteligentzia zerebro-sistemarekiko menpekotasun estuan dago, eta hori derrigorrezko erlazioan dago organismoaren gainerakoarekin, nondik datorren odol hotzeko animaliak odol berokoen oso azpitik, eta ornogabeak ornodunen azpitik egotea. Baina hain zuzen ere organismoa nahimen ikuskor bihurtua da, zeinetara lehen absolutura bezala mugatzen den beti dena: bere beharrian eta helburuek ematen duten agerpenetako bakoitzean bitartekoen neurria, eta horiek batabesteekin ados jarri behar dute. Landareak ez du inolako apertzepziorik, ez baitu lokomotibiterik: zeren, zertarako erabili beharko zuen hori bere lorpenean etekina bilatu edo kaltegarritik ihes egin beharrik izan ezik? Eta alderantziz, ezingo zukeen lokomotibitatea erabili, hori gidatzeko inolako apertzepziorik ezean. Hortik dator landareetan sentikortasuna eta suminkortasunaren dyas banaezina ez agertzea, baizik eta beren sostenguan erdi-lokarturik daude, ahalmen birsortzailean, zeinean bakarrik objektibatzen den hemen nahimena. Ekiloreak, landare orok bezala, argia nahi du: baina bere mugimendua ez dago oraindik haren pertzepziotik bereizia eta biak bat datoz haren hazkuntzarekin. Adimena, gizakiarengan beste animaliangana baino askoz handiagoa dena, arrazoimenean bermatzen da beragan (errepresentazio ez senduetarako, hau da, kontzeptuetarako gaitasuna: gogoeta,



pentsamena) baina partez bere beharrianekiko erlazioan, zeinak animalienak baino askoz ugariago izaki, amaigaberaino gehitzen diren; partez, arma naturalik eta estalki naturalik erabat gabea delako, indar muskularrez ahul samarra delako, tamaina bereko tximinoak baino askoz atzerago gelditzen baita; partez, ihes egiteko gauza ez delako<sup>22</sup> eta azkenik, baita bere birsorkuntza geldia, haurtzaro luze eta bizitza luzearengatik ere, zeinek eskatzen zuten banakoaren iraunarazpen arretatsuagoa. Eskakizun handi guzti horiek indar intelektualek estali behar zituzten, eta horregatik dira horiek hain gailenak hemen. Baina toki guztietan entelegua sekundario, subordinatu, nahimenaren zerbitzari soil izatera determinaturik ikusten dugu. Determinazio horrekiko leial, nahimenaren zerbitzura gelditzen da eskuarki. Modua, orde, kasu jakinetan askatu egiten da horretatik, zerebro-bizitzaren nagusitze izugarri bati esker, eta ezagutze objektibo hutsean sartuz, jeinuraino igotzen da, neure obra nagusiko hirugarren liburuan erakutsi dudanez, non estetika lantzen den, eta gainera obran, II. tomoan, 50-57. orrialdeetan eta 206. (2. edizioan §. 51-58 eta §. 210) pasartean argitu dudana.

Baldin orain, nahimena eta animalia bakoitzaren arteko komutadurari buruzko kontsiderazio guzti horien ondoren, ikuspuntu honetatik ongi ordenaturiko kabinete osteologiko bati begiratu bat ematen badiogu, izaki bat eta berean (**de Lamarcken** organismo primitibo, eta zehatzago esateko, bizi-nahimena) irudia aldatzen ikusiko bagenu bezala gertatuko zaigu inguruabarren arabera eta forma-aniztasun hori luzakuntzaz, laburkuntzaz, sendokuntzaz edo ahulkuntzaz hezur-kopuru berarekin sortzen. Geoffroy de Saint-Hilairek (*Principes de philosophie zoologique*, 1830) **elementu anatomiko** deitu duen hezurren ordenu eta kopuru horrek, funtsean aldatzeke dirau ornodun guztien sailean, berak frogatzen duenez; kopuru iraunkorra da, alde zurretik emandako zerbait, beharrian sakon ezin aldatuzko eran finkaturiko zerbait, -zeinaren aldazintasuna alderazio fisiko eta kimiko guztien azpian materiaren iraumenarekin konparatuko nukeen. Honetara gero ere itzuliko naiz. Horrezaz gainera, hezur horien berorien aldakortasun, maneiakortasun eta malgutasun handia dago, tamaina, figura eta aplikazio-helburuari dagokienez, horietara nahimenak jatorrizko indar eta askatasunez determinatzen dituelarik, kanpoko inguruabarrek agintzen dizkioten helburuen arabera, beharrianak kasu bakoitzean eskatzen diona eginez. Tximino gisa zuhaitzetatik kulunkatu nahi badu, bapatean lau eskuez oratzen ditu adarrak, neurritz gaineko luzeran kubitua erradioarekin hedatuz, luzatu egiten du, aldi berean, *os coccygis*-a kana beteko isats oratzaile bihurtuz zuhaitzetatik eseki eta abar batzuetatik besteetara kulunkatzeko. Besoko hezur horiek beroriek laburtu egiten dira hautemanezin bihurtu arte, krokodiloa bezala, lokatzatan arrastaka badabil, edo fokak bezala igerian egiten badu, edo satorrak bezala lurra induskatu nahi badu, azken kasu honetan metakarpoa eta falangeak loditzen zaizkiolarik harik eta aurreko gorputz-adarrak pala neurgabeki handi bihurtu arte, beste hezurren kontura. Saguzar gisa airean barrena ibili nahi badu, ez zaizkio era apartekoan humeru, erradio eta kubitua soilik luzatzen, baizik eta karp, metakarp, eta falangeak ere bai, beste edozein kasutan hain txiki eta subordinatuak direnak, San Antonioren ikuspenean bezala animalien gorputza gaintzen duen luzera mustrozko bateraino hedatuz, hegaltzat erabiliko duen larrua beraien artean zabal dadin. Afrikako zuhaitz garaien adaburuak kimatzen ibili ahal izateko, paregabeko altuera duten aurreko hanken gainean tinkatzen da jirafa gisa; eta animalia horrengan bertan, lepo-ornoak, beti zazpiko kopuru iraunkorrean, batabestearekin bat egin arte estuturiko ornoak satorraren, luzatu egiten zaizkio halako molde, non beste edozein animaliarengan bezala, lepoaren luzera aurreko hankenaren parekoa den, edateko burua jaits dezan. Elefante gisa agertzen denean, ezina litzaioke lepo luzeari letagin eskerga, trinko eta luze-luze zamaturiko buruaren pisua jasatea, eta horregatik geratzen zaio lepoa oso labur, laguntza bezala, lurrera tronpa bat bidaliz janaria eta ura jasotzeko eta hartaz zuhaitzen adaburuetaraino ere iristen da. Eraldakuntza guzti horietan, esanaren arabera, ikusten dugu nola hedatzen, garatzen, gangatzen den aldi berean burezurrea, zeina den inteligentziaren bitartekoa, bizi-mantenuaren mota gutxi-asko zailak eragiten duen heinean, inteligentzia gehiago eta gutxiago eskatzen duenaren baitan; eta begi trebatuari, burezurreko gangadurek ematen diote animalien adimen-maila desberdinen berri.

**Elementu anatomikoak**, goian iraunkor eta aldazintzat aipatuak, enigma izaten dirau esplikazio teleologikoaren barruan sartzen ez den bitartean, zeina hipotesi horren ondoren hasten den, zeren eta kasu askotan beharrezko organoa hain egokiro sortuko baitzatekeen bere helbururako beste hezur-kopuru eta ordenu batekin. Ulertzekoa da, adibidez, gizakiaren

burezurra 8 hezurrez eratua egotea jaiotzan konprima daitezen, fontanelei esker; baina ez da ongi ikusten zergatik izan behar duen buruko hezur-kopuru bera arrautz oskola hausten duen txitak. Uste izan behar dugu elementu anatomiko hau partez orokorrean bizi-nahimenaren batasun eta identitatean datzala, gainera animalien forma primitiboak bata besteatatik sortu direla (*Parerga, II. tomoa, 91. pasarte* [2. edizioan § 93.]), enborraren oinarritzko tipo osoak iraun behar duelarik. Elementu anatomikoa da Aristotelesek *anagkaia fysis* bezala ulertzen duena, helburuen arabera hartzen duen forma-aldakortasunari (*Ikus Arist. de partibus animalium III, c. 2, sub finem: πῶς δὲ τῆς ἀναγκαίου φύσεως κ.τ.λ.*) deitzen diolarik, horrela esplikatzuz piztia adardunetan goi-ebakortzetako gaia adarretan gastatu izana, eta esplikazio oso ongi emana da, zeren hausnarlari ez adardunek, gameluak eta muskatariak bakarrik baitauzkate adardun guztiek falta dituzten goi-ebakortzak.

Bai egitura animaliairen helburu eta kanpo-erlaziotara moldatzea, hemen eskeletoan aditzera eman denez, bai bere barreneko instintuan duen egokimen eta harmonia hain miresgarriak ez dira ulertzen, ezta hurrik eman ere, beste esplikazio edo suposamenduz ez bada jadanik behin baino gehiagotan finkaturiko egia, hau da, animaliairen gorputza **bere nahimena** besterik ez dela, errepresentaziotzat hartua, eta horregatik zerebroan espazio, denbora eta kausalitate-formetan, hau da, ikuskortasun soilarenean, nahimenaren objektibazioarenean azaldua. Aurre-suposamendu honen pean bere baitan denak azken helburura, animaliairen bizitzara jo behar du. Ezin da aurkitu beragan ezer alferrekorik, ezer baliogaberik, ezer akastunik, ezer bere helburuaren aurkakorik, ezer ziztrin edo inperfekturik bere motan, baizik eta denak beharrezko izan behar du, den heinean eta ez harago, zeren eta hemen maisua, obra eta gaia gauza bat eta bera baitira. Eta hortik dator organismo bakoitza joritasunez bukaturiko maisu-lana izatea. Hemen ez du izan nahimenak aurrea ahalegina egin, gero helburua ezagutu, eta ondoren hartara bitartekoa egokitu eta gaia menderatu, baizik eta bere nahi izatea berehalako helburu eta berehalako lorpen ere bada; ez zuen lehenik menperatu beharreko inolako bitarteko estrainioren premiarik; hemen bat eta bera ziren nahi izan, egin eta lortzea. Horrexegatik aurkezten zaigu organismoa mirari bat bezala eta ez dago kriseilu baten argitan adimenak asmatutako beste edozein giza obrarekin alderatzerik<sup>23</sup>.

Perfekzio amaigabea eta Naturako obretan dagoen helburuarekiko sentitzen dugun miresmena horiek geure obren zentzu berean kontsideratzetik dator barrenean. Bada hauetan hain zuzen obrarako nahimena, obra bera bigarren lekuan datorrela eta bi aldiune horien tartean beste bi gehiago daudelarik: lehena, errepresentazioaren bitartekoa, bere baitan hartutako nahimenarentzat arrotza, eta zeinatik hau pasatzen den obratu aurretik; eta bigarrena, gaia, hemen arrotza obra aktiboarentzat, gaia, zeinera bildu behar duen arrotza zaion formak, gogor egiten diolarik hark, zeren jadanik beste nahimen batena baita, bere erakuntza naturalari, bere *forma substantialis*-ari, hartan adierazten den ideia (platonikoari), horregatik aurrez bortxatua izan behar duelarik eta beti bere barruan gogor eginez, forma artistikoa oso barrura sartzen zaiolarik ere. Zeharo bestetara gertatzen da Naturako obrekin, zeinak ez diren, besteak bezala, bitartezko agerpen, baizik eta arartegabeko nahimenarenak. Hemen nahimenak bere jatortasunean dihardu, ezagumenik gabe: ez daude nahimena eta obra bitartezko ezein errepresentazioz bereizirik: bat dira. Eta berarekin bat da gaia ere, zeren materia nahimenaren ikuskortasun soila baizik ez baita. Horregatik aurkitzen dugu hemen forma materian erabat barneraturik formaren materia, areago, jatorriz erabat gauza bera dira, bata beste bilaka daiteke eta beraz, gauza bat dira biak. Arte-obran bezala hemen bereizten baditugu, abstrakzio hutsez da. Materia hutsa, guztiz forma eta erakuntzarik gabea, emaitza naturalen gaitzat hartzen duguna, *ens rationis* besterik ez da, eta ez zaigu ezein esperientziatan aurkezten. Arte-obraren materiala, aitzitik, materia enpirikoa da, jadanik informatua. Materia eta formaren identitatea da emaitza naturalaren izaera, bien aniztasuna, emaitza artistikoarena<sup>24</sup>. Eta emaitza naturalean formaren ikusgarritasuna besterik ez delako, forma ere enpirikoki agertzen ikusten dugu materiaren sorkari huts gisa, haren barrenetik ernez, kristalkuntzan eta *generatio aequivoca* begetal eta animalian, zeinaz ez baita zalantzarik izan behar, epizooetan gutxienez<sup>25</sup>. -Oinarri honen gainean suposa daiteke, halaber, ezein tokitan, ezein planeta edo satelitetan ez dela materia amaigabeko atsedeen-egoeran aurkitzen, baizik eta bertan kokaturik dauden indarrek (hau da, nahimena, zeinaren ikuskortasun soila den) amaiera ezarri behar diela beti etorriko den

atsedenari, bere lotatik beti iratzarriz, berriro beren jokia has dezaten indar mekaniko, fisiko, kimiko eta organiko gisa, abagune haren zain daudela.

Naturaren egintza ulertu nahi badugu, ez dugu hori geure obrekiko konparaketan lortzen saiatu behar. Animalia-figura bakoitzaren egiazko funtsa errepresentazioaz kanpoko nahizate bat da eta, horregatik, bere formaz kanpoko denbora eta espazioa ere, beraz, ez bata bestearen ondoan, ez ondoren egoterik ezagutzen ez duen nahi-izate bat, aitzitik batasun banaezinena duena. Baina gure ulermen zerebralak figura hura oratu eta diseatzen badu bere barrena labana anatomikoaz ezagumena azaltzen da argitara, zeina bere baitan eta jatorriz arrotza den harentzat eta bere legeentzat, hari agertu behar zaiolarik bere forma eta legeen arabera; nahizate bakoitzaren jatorrizko batasun eta banaezintasuna, egiazko esentzia metafisiko honena, parteen izakidetzat eta funtzioen bata bestearen ondoren egote batean banaturik ageri da, zeinak agertzen diren, halere, harreman guztiz estuan bata bestekin loturik, elkarrekiko laguntza eta sostenguan, bitarteko eta helburu bezala. Hori horrela ikusten duen adimena miresmenean erortzen da parteen ordenu sakona eta funtzioen konbinazioa dela-eta; zeren nahigabe ordeztzen baitu animali forma horren jaiotza bera jatorrizko batasunaz konturatu deneko moduak, zeina ezartzen den pluraltasunetik irtenez (zeinaren forma intelektuala aurrez sortu zuen). Hauxe da Kant handiaren doktrinak duen zentzua, helburua lehenik adimenak ekarri zuela Naturara, eta gero harritu egiten dela mirari batez bezala berak sortu duenaz<sup>26</sup>. Hori gertatzen zaio (baldin eta hain gauza jasoaz azalpen hutsal batez esplikatzerik badago) bederatziren anizkun guztiek beren zifren batuketaz 9 zenbakia emateaz harritzen denean bezala, nahiz eta mirari hori hamarreko sistemaz prestatua izan den. Argudio fisiko-teologikoak aurrerarazi egiten du munduaren existentzia adimen batean bere existentzia errealarari eta badio: baldin eta munduak helburu batera egokiturik egon behar badu, helburuduna izan behar badu, errepresentazio gisa egina izan behar du aurretik zertu baino lehen. Baina nik Kanten zentzuan diot: munduak errepresentazio izan behar badu, zerbait helburudun bezala agertu behar du, eta hori sartzen da, ezer baino lehen, gure enteleguan.

Nire doktrinatik segitzen da noski izaki oro bere buruaren obra dela. Naturak, inoiz gezurrik esan ezin duen eta jeinua bezain xaloa den horrek gauza bera dio, zeren eta izaki bakoitzak bizi-txinparta beste batengan piztea besterik ez du egiten, berehalaxe gure begietan, horretarako kanpotik gaia, bere buruaz forma eta mugimendua hartuz, zeinari hazkuntza eta garapen deitzen zaion. Horrelaxe aurkezten zaigu, enpirikoki ere, izaki oro bere buruaren obratzat. Baina ez da naturaren mintzaira ulertzen, sinpleegia baita.

# LANDARE-FISIOLOGIA

L

andareetan nahimena agertzeari buruz aurkeztuko ditudan berrespenak, frantsesengandikoak dira batipat, eta nazio horrek joera enpiriko erabakia du eta ez da gogoz urrats bat ere saihesten arartekogabe emandakotik. Gainera, **Cuvier** informatzaileak, enpirikotasun hutsean izan duen iraumen saiatuarengatik, bera eta **Geoffroy de Saint-Hilaire**n arteko eztabaida sonatu hartarako aukera eman zuen. Ez dugu harritu behar, beraz, hemen jadanik aipaturiko testigantza alemaniarretan bezain mintzaira erabakirik ez aurkitzeaz, eta aitorpen oro erreserba arretatsuekin egina ageri da.

Bere *Histoire des progrès des sciences naturelles depuis 1789 jusqu'à ce jour, I vol.*, (1826), 245. orrialdean, Cuvierrek dio: "Badituzte landareek mugimendu jakin batzuk, itxuraz espontaneoak (*spontanés*), inguruabar jakinetan agertzen direnak, batzuetan animalien hain antzekoak direnak, non oso ongi landareei egotz lekiekeen, haiek direla medio, sentimen eta nahimen gisako bat, zeinera prest egongo liratekeen animalien **barne**-ataletako mugimenduetan antzeko zerbait ikusi nahi dutenak. Horrela zuhaitzen adaburuek posizio bertikalera jotzen dute etengabe, horrek esan nahi du argira makurtzen direla. Haien erroak lur onera eta hezetasunera doaz eta horiek aurkitzeko bide zuzena uzten dute. Norabide desberdin horiek ez dago kanpo-kausen eraginez esplikatzetik, barne-disposamendu bat ere onartzen ez bada, kitzikatua izateko gai dena eta gorputz inorganikoen jarduera soilaz bestelakoa. ... **Decandolle**k saiakuntza ohargarriak burutu ditu landareetan aztura gisako zerbait erakutsi diotenak, zeina denbora-epe baten buruan argikuntza artifizialez gaintitzen den. Etengabe lanpara batez argituriko ganbara batean sartutako landareek, horregatik ez zioten lehen egunetan ia gaua iristean ixteari eta goizean irekitzeari uzten. Eta badira beste aztura batzuk landareek hartu eta utz ditzaketenak. Eguraldi bustiarekin ixten diren loreek, horrek luzaz irauten badu, azkenean zabalik irauten dute. **Desfontaines**ek berekin kotxean sentikari bat zerabilenean, hasiera batean hura bildu egiten zen ibilgailuaren dardarizoarengatik, baina handik apur batera berriro hedatzen zen patxada osoan balego bezala. Beraz, hemen argia, hezetasuna eta abarren eragina dago, barne-disposamendu baten indar soil gisa, jarduera horren ariketaz ezaba edo modifika daitekeena, landareen bizi-indarra, animaliena bezala, neke eta unaduraren menpean dago. *Hedysarum gyrans-a* gau eta egun bere hostoek egindako mugimenduek bereizten dute batipat, horretarako inolako okasiorik behar izan gabe. Eta baldin erreinu begetalean engaina gaitzakeen agerpenik baldin badago animalien mugimendu nahietsiak gogora ekarriz, seguraski, aipaturiko landare hori da. Broussonet, Silvestre, Cles eta Hallek xeheki deskribatu eta bere jarduera landarearen egoera onaren baitan bakarrik dagoela erakutsi dute."

Obra bereko III. tomoan (1828), 106. orrialdean, **Cuvier**rek dio: "**Dutrochet** jaunak kontsiderazio fisiologikoak gaineratzen ditu bere kabuz egiaztatu dituen saiakuntzetatik atereak eta zeinek frogatzen duten, bere iritziz, landareen mugimenduak **espontaneoak** direla, hau da, kanpo-agenteen eragina arartekogabe hartzen duen barne-printzipio baten baitan daudenak. Eta landareei sentikortasuna egotzeko eskrupuluak dituenek gero, hitz horren ordez nerbimotilitate hitza darabil." -Hemen ohartarazi beharra daukat **espontaneitate** kontzeptuaz ulertzen duguna, hurbilagotik aztertzen bada, nahimen-agerpenetik sortzen dela beti, zeinaren sinonimo besterik ez den gainerakoan. Dagoen alde bakarra da **espontaneitate** kontzeptua kanpo-intuiziotik ateratzen dela, eta nahimenarena gure kontzientzia propiotik. -Espontaneitate horren ahalmen-bulkadaren adibide ohargarria, landareetan bertan ere, eskaintzen digu Cheltenham Examiner-ek, eta 1841eko ekainaren 2ko *Times*-en errepikaturiko adibidea da: "Joan den ostegunean burutu zen gure kalerik jendetsuenetako batean balentria-mota zeharo berri bat: hiruzpalau perretxikok ageriko mundura ernetzeko beren ahalegin suharretan harlauza handi bat jaso zuten".

*Mémoires de L' académie des sciences de l' année 1821, 5. vol*, (Paris, 1826), 171. orrialdean, **Cuvier**rek dio: "Mendeak dira botanikariak ikerketan ari direla, zergatik ernamuntzen ari den ale batek, zeinahi jarreratan ipintzen delarik ere, erroak beti beherantz eta zurtoina gorantz igortzen dituen. Hezetasunari, aireari, argiari egotzi izan zaio hori, baina ez du kausa horietako ezeinek hori esplikutzen. **Dutrochet** jaunak hazi-aleak ezarriak ditu lur bustiz estaliriko ontzi baten zolan irekitako zulotan, eta hori gelako habetik eseki du. Pentsa zitekeen zurtoinak beherantz irten behar zuela; baina ez zen horrelakorik gertatu. Erroak airean behera jaitsi eta

zurtoinak lur bustian zehar luzatu ziren, harik eta kanpo-gainaldea zulatu zuten arte. Dutrochet jaunak dioenez, landareek beren barne-printzipioaren arabera hartzen dute norabidea eta inola ere ez zuzentzen direnako gorputzen erakarmenez. Mihura-ale bat orratz zeharo mugikor baten erpinean, tapoi baten gainean tinkatu eta inguruan oholtxo bat zeukala ernarazi zuten: aleak laster zuzendu zituen erroak oholtxorantz eta bost egunetan harrapatu zuen, orratzak zirkunik txikiena ere egin gabe. -Tipula- eta baratzuri-zurtoinak bere erraboilekin toki ilunean utziz gero, gorantz zuzentzen dira, argitan baino astiroago bada ere; uretan sartuz gero ere gorantz zuzentzen dira: horrek aski frogatzen du, ez aireak, ez hezetasunak ez diela norabidea ematen." - C. H. Schultz, 1839an Zientzien Akademiak saritutako *Sur la circulation dans les plantes* bere lanean, dio haziak ernarazi dituela azpian zuloak dituen kaxa ilun batean eta eguzkiaren argia errainutzen zuen ispilu baten bitartez, landareak alderantzizko norabidean zurtoina beherantz eta erroak gorantz hazarazi zituela.

*Dictionnaire des sciences naturelles*, Animal artikuluan, hau dator: "Animaliek janarien bila gutziak erakusten dituzten bezala, eta berorien hautapenean ahalmen bereizleak, horrela ikusten dira landareen erroak lurra gizenagoa den aldera norabide hartzen, eta harkaitzetan ere janari apurren bat eduki dezaketen pitzaturik txikiena bilatzen; hosto eta adarrak arretaz zuzentzen dituzte aire eta argi gehiago aurkitzen duten aldera. Adar bat okertzen bada hostoei gainaldea beherantz gelditzen zaiela, hostoek bihurritu egiten dute giderra beren funtzioak burutzeko jarrerarik egokienera itzultzarazteko (hau da, alderdi leuna gorantz dutela). Ziur al dakigu hau kontzientziarik gabe burutzen dela?"

F. J. E. Meyenek, kapitulu luze bat eskaini dio oraingo gure gogoetagaiari bere *Landareen fisiologi sistema berria*, (1839), III. tomoan, "Landareen mugimenduak eta sentikortasuna" titulupean, eta gauza bera dio 585. orrialdean: "Behin baino gehiagotan ikusten da ganbara sakon eta ilunetan gordetako patatak, uda aldera argia gelan sartzen deneko irekiduretaraz jotzen duten zurtoinak igorri eta etengabe hazten direla, harik eta arartekogabe argitutako tokira iritsi arte. Horrelako zurtoinak 20 oinbeterainokoak ikusi izan dira, nahiz eta landare horik, inguruabar aldekoenetan ere, nekez igortzen duten 3-4 oinbete baino zurtoin luzeagorik. Interesgarria da arretaz ikustea zer bide hartzen duen honela ilunpetan hazten den patata baten zurtoinak, azkenean argi-zulora iritsi arte. Zurtoina biderik laburrenetik argira hurbiltzen ahalegintzen da, baina nola ez den behar bezain indartsua sostengurik gabe airean zehar hazteko, lurrera erori eta horrela arrastaka joaten da horma hurbileneraino, zeinean gora berehala igotzen den". Botanikari hori berori, beste pasarte batean, 576. orrialdean, azaltzen dituen gertakariak bultzaturik honako hau esatera beharturik aurkitzen da "oszilatorioen eta beste behe-landare batzuen mugimendu libreak kontuan hartzen baditugu, izaki horiei **nahimen** gisako bat aitortzea beste erremediorik ez dela gelditzen".

Nahimen-agerpenaren adibide garbia ematen digute landareetan igokariak, zeinek oratzeko zurkaitzen bat hurbil ez dutenean, beren hazkuntza beti tokirik itzaltsuena bilatuz zuzentzen duten, agian kolore iluneko paper-zatiren batera, nonahi aurkitzen delarik ere, aitzitik, kristaletik ihes egiten dute distiratsua delako. Horren esperientzia bikainak, batez ere *Ampelopsis quinquefolia*-rekin, Ths. Andrew Knightek aurkezten dizkigu *Philosophical Transactions, of 1812*-an, zeinak baitaude itzuliak *Bibliothèque Britannique, section sciences et arts*, 52. bolumenean, nahiz eta, bere aldetik, gauza mekanikoki esplikatzen ahalegintzen den eta nahimen-agerpen bat denik onartu nahi ez duen. Bere esperimenduei nagokie hemen eta ez bere epaiari. Enbor baten inguruan landare igokari ugari landatu behar dira inolako sostengurik gabe eta ea guztiak zentripetuki hartarantz arrastatzen diren ikusi. Gai horri buruz **Dutrochetek**, 1843ko azaroaren 6an, Pariseko Zientzien Akademian entseiu bat aurkeztu zuen *Sur les mouvements révolutifs spontanés chez les végétaux* eta entseiu hori, nahiz eta oso xehea izan, guztiz irakargarria da, Zientzien Akademiako bileren *compte rendu*-n inprimaturik dagoelarik, 1843ko azaroko koadernoan. Emaiza da *Pisum sativum*, (ilar berdean), *bryonia alba* eta *cucumis sativus*-ean (luzokerrean), zirziluak (*la ville*) dauzkaten zurtoin-hostoek mugimendu biribil oso geldia egiten dutela airean, tenperaturaren arabera beti, ordu 1etik 3 ordutara bitartean elipsea burutzen duen mugimendua, berarekin landareak gorputz irmoak zoriz bilatzen dituelarik, zeinei kiribiltzen zaien zirzilua aurkitutakoan eta zeinak sostengutzat erabiltzen dituen, zeren bere kabuz ez baita zutik egoteko gai. -Beraz, har begigabeek bezala jokatzeko dute, nahiz eta askoz astiroago, zeinek zirkuluak egiten dituzten airean gorputzaren aurrealdeaz,

hostoaren bila. -Aipaturiko entseian badakartza **Dutrochetek** landareen mugimenduen beste kasu batzuk, adibidez, Holanda Berriko *Stylidium graminifolium*-ak korolaren erdian zutabe bat duela antena eta lorexakiari eusten diena, txandaka makurraz eta berriro tentetuz. Hau **Treviranusek** bere *Bizitza organikoaren fenomenoak eta legeak*, I. bolumenean, 173. orrialdean dakarrenaren antzekoa da, non dioen: "*Parnassia palustris* eta *Ruta graveolens* landareetan, lorezilak bata besteen atzetik makurtzen dira, eta *Saxifraga tridactylites*-ean bikoteka lorexakirantz, eta berriro ordena berean tentetzen dira." Aurreko gaiak, hitz gutxitan, gauza bera esaten da: "Nahietsiak diruditen mugimendu begetalariko orokorrenak, adarrak eta hostoen gainaldea argirantz eta berotasun hezerantz erakartzea dira, eta landare igokariak sostengu baten inguruan kiribiltzea. Azken agerpen horretan, batipat, animalien mugimenduaren antzeko zerbait nabarmentzen da. Landare igokariak, beren baitan utziz gero, hazten ari diren bitartean zirkuluak egiten dituzte adarren erpinez, hazkuntza mota horren bitartez hurbil aurkitzen den objektuen bat muturraz atzemanez. Baina ez da ezein kausa mekaniko soil atzematen duten objektuaren figurara beren hazkuntza egokitzea bultzatzen duen hori. *Cuscuta* ez da katigatzen edozein zurkaitz motaren inguruan, ez parte animal, gorputz hil begetal, metal eta beste gai inorganikotan, baizik eta landare biziei atxikiz soilik, eta ezta edozein motatako ere. Ez zaio, adibidez, goroldioari atxikitzen, baizik eta bere papilez elikadura egokia atera diezaiekeen landareei, zeinek halako distantzia batetik erakartzen duten." 27 -Darabilgun gairako oso berezia da *Farmer's Magazine*-n jakinarazitako honako behaketa hau eta 1848ko uztailaren 13ko *Times*-en *Vegetable instinct* titulupean birsortua: "Baldin eta ontzi bat ezartzen bada urarekin 6 hazbeteko tartera, kalabaza gazte baten edo jardineko ilar handiaren ondoan, landare horien zurtoina gauean hurbilduz joango da ontzira eta biharamunean bere hostoetako bat uretan duela aurkituko da. Gauero segi liteke saiakuntza hau egiten, harik eta landarea fruitua ematen hasi arte. -Baldin eta taketa bat ezartzen bada 6 hazbeteko tarte barruan *Convolvulus* baten ondoan, aurkitu egingo du, nahiz eta egunero taketaren kokagunea aldatu. Baldin eta beronen inguruan landarearen zati bat kiribildu bada eta alderantzizko norabidean lotzeko deskribiltzen bada, hasierako posiziora itzuliko da edo bizia galduko du ahalegin horretan. Eta hala eta guztiz ere, landare horietako bi, bata bestearen ondoan hazten badira, atxikitzeko sostengurik gabe, berorietako batek espiralaren norabidea aldatuko du eta batabestean kiribilduko dira. **Duhamelek** lur bustiz beteriko zilindro batean indaba batzuk jarri zituen; handik gutxira erretzen hasten ziren, normala denez, *plumulak* gorantz, argirantz, igorritz, eta *radiculak* behearantz, lurtzorurantz. Handik egun batzuetara zilindroari zirkunferentzi laurdeneko bira ematen zitzaion eta horrela pixkanaka bira osoa eman arte. Hartzen ziren orduan indabak lurretik eta gertatzen zen bai *plumulak* eta bai *radiculak* zilindro-bira bakoitzeko okertu egin zirela hartara egokitzeko, bata gorantz joz eta besteak behearantz, biak bertikalki, horrenbestez espiral oso bat eratu zutelarik. Baina erroen berezko joera behearanzkoa bada ere, azpian duten lurtzoru lehorrak, eta agian gai bustiren bat gorago egonez gero, hura atzematera igotzen dira."

Froriepen Albisteetan, 1833. urteko, 832. zenbakian, bada artikulua labur bat landareen lokomotibitateaz. Lur txarrean, beste on baten ondoan, ezarritako landareek abar bat bidaltzen dute honetara: ondoren jatorrizko landarea ihartu egiten da, baina abarra itsatsi eta bera landare bihurtuz. Prozedura horretaz baliatzen da landarea murrutan gora igotzeko.

Aldizkari berean, 1835. urteko, 981. zenbakian, Oxfordeko Daubeny irakaslearen jakinarazpen baten itzulpena ageri da (*Edinburgh New philos. Journ. April- Jul. 1835*, zeinak esperimentu berri eta oso arretatsuen bitartez zalantzarik gabe utzi zuen landareen erroek, neurri bateraino behintzat, beren gainazalari eskainiriko lur-gaien artean aukeratzeko ahalmena dutela).

Azkenik, ez dut utzi nahi ohartarazi gabe jadanik Platonek landareei gurariak, επιβυμιας, egotzi zizkiela, hau da, nahimena. Neure obra nagusiaren II. tomoan, 23. kapituluari jadanik aurkeztu nituen antzinakoen doktrinak puntu honi buruz, zeina oraingo honen osagarritzat hartu behar den.

Aipaturiko idazleek landareei enpirikoki iragartzen zaien nahimena aitortzeko ageri dituzten erreserba eta ezbaiak, kontzientzia nahimenaren eskakizun eta baldintza delako auriritzi zaharraz kezkatutik egotetik datoz, begibistakoa izanik landareek ez dutela horrelakorik. Ez zaie bururatu nahimena dela lehena eta independentea, beraz, ezagumenarekiko, zeinarekin sartzen den zerbait sekundario bezala kontzientzian. Ezaguera edo errepresentazioaren analogo edo

ordezko bat besterik ez dute landareek; baina nahimenari dagokionez eraginkorra dute eta erabat arartekogabea, zeren eta bera, bere baitango gauza den heinean, bere fenomenoaren substrato baita, beste edozerena bezala. Errealismoz jokatzuz eta objektiboa denetik abiatuz beraz, esan liteke izaera begetalean eta, baita animalia organismoan bizi dena eta diharduena, izakien eskalan pixkanaka hain gora igo dela, non ezagumenaren argia arartekogabe erortzen zaiola, eta orduan jaiotako kontzientzian, nahimen bezala agertzen dela eta hemen beste inon baino arartekogabeagoki, beraz hobeki, errekonozitua dela; eta ondorioz, errekonozimendu horrek eman behar digu eskalan beherago kokaturiko izaki guztiak ulertzeko gakoa. Hartan bere baitango gauza ez dago beste ezerk lausotua pertzepzio arartekogabeak izan ezik. Norbere nahi-izatearen pertzepzio arartekogabe horri deitu zaio barne-zentzumena. Nahimena bere baitan ez da hautemangarria, eta hala gelditzen da erreinu inorganiko eta begetalean. Mundua ilunpetan geratuko litzatekeen bezala eguzkia gorabehera, baldin bertan ez balego gorputzik haren argia errainutzeko, eta soka baten bibrazioak airea eta erresonantzi kaxa bat ere behar duen bezala soina emateko, horrela nahimenak ere ez du bere buruaren kontzientziarik ezagumena agertu arte: ezagumena era berean nahimenaren erresonantzi kaxa da, eta kontzientzia horretatik jaiotzen den tonua. Nahimenaren bere-buruaren-kontzientzia-bihurtze horri egotzi izan zaio barne-zentzumen deritzana, hori baitugu geure ezagutze lehen eta arartekogabea. Barne-zentzumen horren objektua nahimen propioaren kitzikadura desberdinak bakarrik izan litezke, zeren errepresentatzeak ezin baitu bere burua hauteman, gehienera gogoeta razionalean bakarrik, bigarren errepresentazio-ahalmen horretan, batzuetan horrela, *in abstracto*, kontzientziara etorritz. Hortik dator, bada, errepresentatze soilak (intuizioak) egiazko pentsatzearekin, hau da, kontzeptu abstraktuekin ezagutzearekin, bere baitango nahi izateak nahi izate horretaz jabetzearekin, hau da, kontzientziarekin duen erlazio bera izatea. Beraz, existentziaren kontzientzia erabat argi eta garbia agertzen da, nola norberarena hala inorena, lehenik arrazoiarekin agertzen da (kontzeptuen ahalmenarekin), eta ahalmen horrek hainbesteraino jasotzen du gizona animalia ginetik, non berori landarearen ginetik jartzen duen bere errepresentazio-ahalmen intuiziozko hutsak. Honela, bada, landareak bezala inolako errepresentazio-ahalmenik ez duenari, inkontziente deitzen diogu, hutsaren hurrengotzat jotzen dugularik, zeren egiazki inoren kontzientzian bakarrik baitauka existentzia, haren errepresentazio gisa. Ez zaio falta, ordea, existitzeko primarioa dena, nahimena, baizik eta sekundarioa; baina uste dugu hori gabe primarioa, bere baitango gauzaren izatea bera, ezerez bihurtzen dela. Izaki inkontzientea ez dakigu arartekogabe ez izatetik argiro bereizten, nahiz eta lo beteak horretaz esperientzia propioa ematen digun.

Gogoratzen badugu zer geratzen den azaldua aurreko sailean, hau da, ezagumena, beste edozein organo bezala, ez dela agertzen animalietan berauen iraupenari laguntzeko baizik, beraien eskala ugarian erlazio zehatza izanez animalia espezie bakoitzaren beharrianekin, orduan ulertuko dugu landareak, animaliak baino askoz beharrian gutxiago duenak, ez duela inolako ezagumenik behar. Horregatik, bada, sarritan esan dudanez, animalitasunaren egiazko izaera, funtsezko mugak finkatzen dituen, ezagumena da, berak zioen arabera baldintzaturiko mugimenduarengatik. Animalitasuna amaitzen den tokian ezabatu egiten da egiazko ezagumena ere, zeinaren funtsa hain ezaguna zaigun esperientzia propioz, eta puntu honetatik analogiaz bakarrik izan dezakegu ideia bat kanpoko munduak izakiaren mugimenduetan duen eraginaz. Aitzitik, beti eta nonnahi bat eta bera dirau izakiaren oinarri eta gunetzat aitortu dugun nahimenak. Erreinu begetaleko mailarik beherenetan, baita bizitza begetatiboko organismo animalien bizitzan ere nonahi existitzen den nahimena determinatzeko bitarteko gisa eta kanpoko munduaren eta izaki horren alterazioen arteko bitarteko bezala, **kitzikapenak** hartzen du ezagumenaren lekua, eta inorganikoaren baitan eragin fisiko orokorrak, zeina aztertzen bada, hemen bezala goitik, ezagumenaren ordezkotzat gisa agertzen den, eta, ondorioz, beronen analogo soil gisa. Ezin dezakegu esan landareek argia eta eguzkia egiazki hautematen dituztenik; baina era desberdinetara haien presentzia edo ausentzia bilatzen dutela ikusten dugu, haietara jotzen edo haietatik ihes egiten dutela ikusten dugu, eta nahiz eta eskuarki mugimendu hori bat datorren beren hazierakoarekin, ilargiaren errotazioa bere translazioarekin bezala, ez da horregatik hori baino gutxiago existitzen, eta haziera horren norabidea determinaturik dauka argiak plan baten arabera, zioak egintza bezala, eta landare igokari eta hurbileko zurkaitza oratzen dutenen baitan, bere lekuak eta figurak bezala. Landareek, oro har, beharrianak

dituztelarik, nahiz eta *sensorium* eta entelegu baten luxua eskatzerainokoak ez izan, berorien lekua antzeko zerbaitek bete behar du, eskaintzen zaion atseginari abegi egiteko egoeran nahimena jartzeko gutxienez, bilatzeko ez bada ere. Hori da kitzikapenerako harmena, zeinak ezagumenarekiko duen diferentzia adieraz litekeen esanez ezagumenean **argiro bereizirik geratzen direla bata bestetik** errepresentazio gisa aurkeztu den zioa eta darraikion nahimen-egintza, eta hainbat argiroago, zenbat eta perfektuagoa den ezagumena; -aitzitik, kitzikapenerako harmen soilean ez dago bereizterik kitzikariaren harrera berorrek sortutako nahizatek, eta bi prozesuak bakar bihurtzen dira. Natura inorganikoan, azkenik, kitzikapenarekiko harmena bera ere eten egiten da, zeinaren ezagumenarekiko analogia ez baitago aintzakotzat ez hartzerik; eta oraindik gorputz bakoitzak duen erreakzio berezia eragin berezien aurrean, hori ere inteligentziaren ordezkotzat agertzen da gure martxa-azterketarako goitik beheranzko ordenuan. Gorputzak desberdin erreakzionatzen badu, eraginak ere desberdina izan behar du eta hartan afekzio desberdin bat eragin, zeinak oraindik urruneko analogia bat duen ezagumenarekin, bere kamustasun guztian ere. Adibidez, ur itxiak azkenean irekiduraren bat aurkitzen badu ihes egiteko, gutiziaz baliatzen da hartaz, eta trumilka oldartzen da bertatik, baina ez du ezagutzen, azidoak metalak hurbiltzen dion alkalia edo paper-zatitxoak oldartzen zaioneko anbare igurtzia hautematen ez duen bezala, hala eta guztiz ere, aitortu beharra daukagu hain bapateko aldaketak gorputz horietan sortarazten dituenak izan behar duela antzekotasunik ustekabeko zio bat aurkeztu zaigunean gure baitan gertatzen denarekin. Gisa honetako kontsiderazioak baliozko izan zaizkit lehenago ere **nahimenaren** existentzia gauza guztietan demostratzeko, baina orain erakutsi nahi nuke zein alorretako bezala agertzen zaigun **ezagumena**, baldin eta kontsideratzen bada, ez ohi bezala barrutik, baizik eta errealistiki, hartaz kanpo jarritako ikuspuntu batetik, zerbait estrainioa bezala, horrela berarentzat hain garrantzi handikoa den ikuspen objektiboa irabaziz, subjektiboa osatzeko<sup>29</sup>. Orduan ikusten dugu **zioen bitarteko bezala** aurkeztu dela, hau da, izaki ezagutzaileen gaineke kausalitate bezala, eta horregatik, kanpoko aldaketa hartzen duena bezala, zeinari barrukoa jarraitu behar zaion, bien arteko artekari gisa. Lerro sotil honen gainean dabil kulunka **mundua errepresentazio gisa**, hau da, espazio eta denboran hedaturiko gorputz-mundu hori guztia, **bere horretan** zerebroan beste inon existi ezin daitekeena, ametsak ere existi ezin daitezkeenez, dirauten denboran, zerebroan izan ezik. Gizakia eta animalia ezagumenak zioen bitarteko bihurtzen dituen bezala, bihurtzen ditu landareak kitzikapenerako harmenak eta gorputz inorganikoak era guztietako kausetarako harmenak, eta argi geratzen da graduz bakarrik diferentziatzen dela guztia. Eta horren ondorio hutsez nola kanpoko inpresioetarako harmena igo egin den animalia baten baitan bere beharrianen arabera, harik eta berorri laguntzeko nerbio-sistema bat eta zerebroa garatu behar izan dituen arte, zerebro horren funtzio gisa, kontzientzia jaio delarik, eta bertan mundu objektiboa, zeinaren formak (denbora, espazioa eta kausalitatea) diren funtzio hori betetzen deneko era. Ezagumena bere jatorrian, subjektiboan ebaluatua, nahimenaren zerbitzu hutsera zuzendua aurkitzen dugu eta, ondorioz, mota erabat sekundario eta subordinatukoa, eta *per accidens* bakarrik jokoan sartuz, zio hutsengatik baldintza gisa, animalitasunaren eskalan kitzikapenaren ordezkotzat beharrezko izatera iritsi den eragin gisa. Abagune horretan agertzen den espazio eta denborako munduaren imajina zioak helburu bezala agertzen zaizkiguneko plano besterik ez da, baldintzatu egiten ditu espazio eta kausalitatezko loturara objektu senduak, baina artekaria besterik ez da zioa eta nahimen-egintzaren artean. Egundoko jauzia izango litzateke, horrela, akzidentalki, adimenean jaiotzen den munduaren imajina hori hartzea, hau da, animalia izatearen funtzio zerebralean, helburuetako bitartekoak erakusten dizkion orduko eta efimero horrek bere planetan bidea erakusten diolarik; -irudi hori, diot, fenomeno zerebral huts hori, izakien azken esentzia egiazkotzat (bere baitango gauzatat) eta bere atalen kateakuntza ordenu kosmiko absolututzat hartzea (bere baitango gauzen erlazioa), eta hori guztia zerebroaz aparteko existitzen dela suposatzea! Suposizio hori izugarri zalapartatsu eta ausart agertu behar zaigu hemen, halere **dogmatismo** aurrekantiarreko sistema guztiak eraiki dituen oinarri eta eustazpi da, zeren bere ontologia, kosmologia eta teleologia guztien auresuposamendu aitortugabea baita, halaber aipatzen dituzten *aeternarum veritatum* guztiena ere. Guztiarekin ere, aitortu gabe eta inkontzienteki eman izan da beti jauzi hori, eta hori kontzientziara ekarri izana da Kantek egin digun obra hilezkorra.



Gauzak errealistaki kontsideratzeko oraingo gure moduarengatik lortzen dugu hemen **Kanten** aurkikunde handietarako balio izan duen **ikuspuntu objektibora** ustekabez heltzea, eta azterketa enpiriko-fisiologikoaren bitartez heltzen gara horra, nondik abiatzen den bere azterketa traszendental kritikoa. Beronek **subjektiboa** hartzen du abiapuntutzat, kontzientzia zerbait emantzat joz; baina horretatik berorretatik eta *a priori* emandako bere legeetatik, bertan aurkezten dena fenomeno soil besterik ezin izan daitekeelako emaitza lortzen du. Guk geuk, aitzitik, geure ikuspuntu errealista, kanpokotik, **objektiboa**, Natura, jadanik emandakotzat hartzen duenetik, badakusagu zer den adimena bere helburu eta jatorriaren arabera, eta zer fenomeno-motatakoa den: hemendik aitortzen dugu (*a priori* den heinean) fenomeno soiletara mugaturik egon **behar** duela, eta bertan agertzen dena ezin litekeela inoiz nagusiki **subjektiboki** baldintzatu bat, hau da, *mundus phaenomenon* bat besterik izan, bere atalen loturaren ordenu subjektiboki baldintzatuarekin batera; baina inoiz ere ez gauzak beren baitan zer diren eta beren artean nola elkarlotzen diren ezagutze bat. Ezagutze-ahalmena baldintzatzat aurkitu dugu naturarekiko loturan eta berorrekiko esaldiek ere ezin dezakete baliotasun baldintzatzugaberik izan. *Arrazoi Hutsaren Kritika* funtsean gure ikuspuntuari arrotz zaiona aztertu ondoren, ezina da hura ulertu duenarentzat Naturak entelegua berariaz determinatu eta gurekin gorde-gordeka jolas egingo balu bezala portatzea. Halere, geure bide errealistiko-objektiboan gaude, hau da, mundu objektibotik zerbait emandakotik bezala abiatuak, emaitza berera heldu gara, zeina **Kantek** bide idealistiko-subjektibotik, hau da, enteleguaren beraren eta horrek kontzientzia eratzeke duen moduaren azterketatik lortu zuen emaitza berera heldu gara; eta gertatu zaigu mundua, errepresentazio gisa, kulunka dabilela izaki ezagutzaileen (animalien) kanpo-kausen (zioen) eta ondorio eraginaren (nahimen-egintzaren) bitartean dagoen lerro ahulean, beraien artean bien bereizketa argia bertan hasten delarik. *Ita res accedent lumina rebus*. Bi bide kontrajarritatik emaitza bera lortze horren bidez bereganatzen du Kanten aurkikunde handiak bere begibistakotasun osoa eta bere zentzu osoa argitzen zaio horrela bi aldetatik argipean agertzean. Gure ikuspuntu objektiboa errealista da, eta horregatik, baldintzatuak, izaki naturalak emandakotzat hartzen dituelarik, hortik ondorioztatzen baitu bere existentzia objektiboak entelegu bat auresuposatzen duela, zeinean aurkitzen baitira noski errepresentazio gisa; baina **Kanten** ikuspuntu subjektibo eta idealista era berean baldintzatuak da, inteligentziatik abiatzen den heinean, zeinak bere aldetik Natura auresuposatzen duen eta zeinaren garapenaren ondorioz sar daitekeen ezer baino lehen izaki animalietan ere. -Gure ikuspuntu errealistiko-objektibo horri eutsiz, ezaugarri daiteke **Kanten** doktrina esanez, **Lockek**, beren baitako gauzak ezagutzeko, haietatik bereizi zuenean, agertzen zaizkigunez, funtzio sentikorren parte, parte horri propietate sekundario izena emanez, **Kantek**, askozaz zuhurtasun handiagoz, bereizi zuen haietatik, funtzio zerebralaren parte askoz garrantzitsuagoa, **Lockerren** propietate primarioak ere besarkatzen dituenak. Baina nik ez dut erakutsi oraindik hemen zergatik horrek guztiak horrela gertatu behar zuen, adimenak Naturarekiko loturan zer leku hartzen duen adieraztean, baldin eta errealistaki objektibotik emandakotik bezala abiatzen bada, nahimena erabat arartekogabe kontziente daukagun gauza bakarra eta metafisikaren pou stw/ egiazkoa bermagunetzat harturik eta jatorrizko erreal bezala, zeinaren agerpen besterik ez den gainerako guztia. Hori osatzeko da ondoren datorrena.

Lehenago esana dut ezagumena dagoen tokian, **hainbat banatuago dirautela batabestetik** errepresentazio gisa sartzen den zioak eta berorri darraizkion nahimen-egintzak, zenbat eta perfektuagoa den entelegua, hau da, izakien eskalan zenbat eta gorago igotzen garen. Horrek esplikazio xeheagoa behar du. Inolako errepresentaziotara iristen ez den kitzikapen soilak oraindik nahimen-egintzari eragiten dion tokian, hau da, landareetan, ez da inpresioaren harrera eragiten duen determinaziotik banatzen. Animalia inteligentzia beherenetan, radiario, akalefo, azefalo eta abarretan, ozta-ozta gertatzen da besterik; gose-sentsazioak eratzen du kontzientziaren edukin osoa, berak eragindako arreta-egintza batek, harrapakinaren pertzepzioak eta harengana oldartzeak, hau guztia errepresentazio gisako munduaren lehen argi-txinta da, zeinaren atze-oihala, aldi bakoitzean diharduen zioaz kanpoko guztia, oraindik erabateko ilunpetan gelditzen den. Horrekin bat datozelarik, izaki horietan guztiz ezperktuak eta ezosatuak dira zentzumenen organoak, zeren ernamuietan dagoen adimen bati ahalik eta datu gutxien eskuratu behar baitizkiote intuiziorako. Nonahi dagoelarik ere sentikortasuna, hori adimen baten laguntzaile da, hau da, ondorio sentitua kanpo-kausa bati egozteko ahalmenarena;

hori gabe sentikortasuna alferrekoa izango litzateke eta xedegabeko minen iturri soil. Animalien eskalan gora eginez, gero eta zentzumen gehiago eta perfektuagoak finkatzen dira, bostak izan arte, zeinak animalia ornogabe gutxitan agertzen diren, baina bai eskuarki ornodunetan. Pare pare garatzen dira zerebroa eta bere funtzioa, adimena: orduan objektua argiago eta osoago aurkezten da gainerako objektuekiko loturan, eta nahimenaren zerbitzurako objektuekiko erlazioak ulertzea beharrezko delako, horren bitartez lortzen du errepresentazioko munduak zirkulu bat eta atze-hondo bat besarkatzea. Baina oraindik atzematea, nahimenaren zerbitzuak eskatzen duena baino harantzago doa: berak buruturiko pertzepzioa eta eskaria ez dira garbitasun osoz bereizten; zio den heinean bakarrik ulertzen da objektua. Animalia zuhurrenek ere axola zaiena bakarrik ikusten dute objektuetan, hau da, beren nahi izatearekin zerikusia duena, edo nolanahi ere etorkizunean lor dezaketena, eta azken horren ikuspegitik ahalegintzen da katua bere tokiunearen ezagutza zehatza lortzen eta azeriak gordelekuak bilatzen ditu behin eta berriz etorkizuneko harrapakinentzat. Baina gainerako guztiaiekiko ez dira sentikor: agian animalia bakar batek ere ez du behin bakarrik ere zeru izarratua hauteman. Nire txakurrak ikaraturik jauzi egin zuen lehendabiziko aldiz eta halabeharrez eguzkiari begiratu zionean. Animaliarik zuhurren eta bezaketaren bitartez prestatuetan nabarmentzen da batzuetan ingurumariaren ulerkuntza interesgabearen lehen aztarna lausoa: badira txakur batzuk txunditurik begiratzera ere iristen direnak, eta leihoan jarriarik eta igarotzen den guztia arretaz segitzen dutela ikusten da, eta badira ingurunea inguratzen dituenaz jabetu nahi balute bezala batzuetan miatzen duten tximinoak. Gizakiarengan bakarrik bereizten dira argi eta garbi zioa eta egintza, errepresentazioa eta nahimena. Baina horrek ez du enteleguaren morrontza nahimenaren pean ezabatzen. Gizon arruntek ez dute gauzetan ulertzen zuzenean edo zeharka bere buruarekin zerikusia duena besterik (beretzako interesa); gainerakorako entelegua ezin menperatzeko eran nagitzen zaio, eta hortik dator azken finean gelditzea, argitasun distiratsuz kontzientziari agertu gabe. Beti arrotz zaizkio fenomenoaren miresmen filosofikoa eta intuizio artistikoa, zernahi egiten duela ere; barrenean baderitza dena berez ulertzen dela Nahimenaren azpian diraueneko morrontzatik entelegua erabat jaregin eta banatzea, jeinuaren pribilegioa da, neure obrako estetika-partean hedatuki erakutsi dudanez. Jeinutasuna objektibitatea da. Intuizioan gauzak agertzen direneko objektibitatea eta zehaztasuna (oinarrizkoa eta edukinez guztiz aberatsa den ezagutze hori) aldiune bakoitzean alderantzizko heinean dago gauza horietan nahimenak esku hartzen duenarekiko, nahimengabe ezagutza kontzepzio estetiko ororen baldintza eta funtsa ere bada. Zergatik pintalari arruntak irudikatzen digu hain gaizki paisaia bat, ahaleginak egin arren? Ez duelako ederrago ikusten. Eta zergatik ez du ederrago ikusten? Ez daukalako entelegua nahimenetik behar adina banaturik. Banaketa horren graduak alde intelektual handiak ezartzen ditu gizonen artean: zeren ezagutzea hainbat garbiagoa eta ondorioz hainbat objektibo eta zehatzagoa baita, zenbat eta nahimenetik askatuago dagoen; hazi deneko lurtzoruaren kutsurik ez duen fruitua hoberena den bezala.

Erlazio garrantzitsu bezain interesgarri honek ongi merezi du izaki guztien eskalari atzerantzko begiratu bat eginez ahalik eta argitasunik handienara jasotzea, ezbaldintzatu subjektibotik enteleguaren objektibitate-gradu handienerako iragaitza geure baitan errepresentatuz. Natura inorganikoa ezbaldintzatuki subjektiboa da hartan kanpo-munduaren kontzientzi aztarnarik aurkitzen ez den heinean. Harriak, blokeak, horma-kizkiak, nahiz eta batabestearen gainera erori eta batabestea talkatu edo igurtzi, ez dute elkarren kontzientziarik, ez kanpo-munduarenik. Hala ere, kanpotiko egintza bat esperimintatzen dute, zeinaren arabera aldatzen zaizkien beren posizioa eta mugimendua, eta horregatik, kontzientziarako lehen urrats gisakotzat har daiteke. Hori horrela izanik, nahiz eta landareek ez izan oraindik kanpo-munduaz inolako kontzientziarik, baizik eta beren buruen halako gozamen iluntzat hartu behar den beren baitan dagoen kontzientziaren antzeko soila, badakusagu, hala ere, guztiak argiaren bila dabiltzala, askok egunero beren lore edo hostoak eguzkira bihurtzen dituztela, igokariak ukitzen ez dituen sostengu batera doazela arrastaka, eta espezie batzuek, azkenik, suminkortasun moduko bat ageri dutela; nondik inolako zalantzarik gabe ondorioztatzen den lotura eta erlazio bat dagoela beren ingurugiroa eta mugimenduen artean, nahiz eta tarterik gabe elkar ukitzen ez egon, eta hori pertzepzioaren analogo ahultzat har dezakegu. Animalia munduarekin agertzen da lehen aldiz pertzepzio argi eta garbia, hau da, beste gauzen kontzientzia, norbere kontzientziari kontrajarririk, zeina hari esker jaiotzen den lehendabizikoz argiro. Honetan datza hain zuzen ere

animalitasunaren izaera, begetalari kontrajarritako izaera. Animali mota beherenekoetan oso mugatua eta iluna da kanpo-munduaren kontzientzia hori; inteligentzi maila igo ahala gero eta argiago eta hedatuagoa bihurtzen da, animaliaaren beharrianen arabera zuzentzen delarik, eta horrela gertatzen da eskala zoologikoan igo ahala, gizakiarenaganaino iritsi arte, zeinaren gan jotzen duen gorena kanpo-munduaren kontzientziak, beragan agertzen delarik, beraz, beste edonon baino mundu desberdin eta osatuagoa. Baina hemen ere kontzientzi argitasunak ezin zenbatu ahala maila ditu, kaiku kamutsengandik hasi eta jeinuarenaganaino. Buru normaletan beretan ere oraindik kutsu subjektibo nabarmena du kanpoko gauzen pertzepzio objektiboak; oraindik badu ezagutzeak nahimenaren laguntzarako baizik ez existitzearen izaera. Zenbat eta garaiagoa burua, hainbat gehiago galtzen da hori eta hainbat objektibotasun soilagoz errepresentatzen da kanpoko mundua, harik eta azkenean jeinuarenagan objektibitate perfektua lortzen duen arte, zeinari esker sortzen diren gauza banakoetatik beren Ideia Platonikoak, horiek ulertzen dituen ezagutzearen subjektu huts izatera iristen delako. Ezagumen ororen oinarria intuizioa izaki, oinarritzko diferentzia horren eragina nabarmen geratuko da bere koalitatean pentsatze eta aztertze ororen baitan, nondik sortzen den ohizko diferentzia buru arruntaren eta garaiaren artean, eta diferentzia hori edozein abagunetan ageri da eta era berean baita seriotasun ergela ere, animalitasunaren ia parekoa, nahi izatearen laguntzarako bakarrik ezagutzen duten buru arruntena, inteligentzearen kontzientzia alaitzen duen ezagumen gehiegizkoaren joko atergabeari kontrajarririk. -Hemen azaldutako eskala handiaren bi muturrak behatzetik, badirudi sortu dela *Klotz*, enbor edo egur-puska alemanierazko esamolde hiperbolikoa, (gizakiari aplikatua) eta ingelesez *blockhead*, bloke-buru.

Beste ondorio bat gehiago, alabaina, behin gizakiaren baitan entelegu eta nahimenaren artean, eta ondorioz zioa eta egintzaren artean banaketa garbia egin eta gero, egintzetako bakoitzean askatasun itxura engainuzkoa egotea da. Begetalean kitzikatzailak diren kausek inorganikoan ondorioak sortzen dituzten tokian, ez dago askatasun-itxura txikienik ere, lokarri kausalaren sinpletasunarengatik; baina animali bizitzara joz gero, zeinean agertzen den zio gisa ordura arte kausa edo kitzikari zena, bigarren mundu bat, beraz, errepresentazioarena aurkeztuz, eta kausa batean eta ondorioa bestean geratuz, jadanik ez da ordura arte bezain begibistakoa bien arteko lotura kausala, ezta haren beharrian ere. Animaliaaren baitan, zeinaren errepresentazio intuiziozko hutsa erdigunean dagoen kitzikariaren ondorengo funtzio organikoan eta gizonaren jardun jasoaren artean, ez dago lotura beharrezko hura kontutan ez hartzerik; animaliaaren iharduna hutsezina da zio intuituaren aurrean, baldin eta ez bazaio beste kontra-zio hura bezain intuitua edo trebaketa kontrajartzen, hala ere, horretatik bereizita dago jadanik nahimen-egintzaren errepresentazioa, bere kabuz bakarrik kontzientzian sartuz. Baina gizakiarenagan, errepresentazioa kontzeptu izatera jadanik igo eta buruan daraman pentsamenduzko mundu ikusezin batek jarduteko zioak eta kontra-zioak eskaintzen dizkiolarik, presentetik eta eremu sentikorretik bere eskuko eginez, gizakiarenagan ez dago jadanik lotura hura ezagutzerik kanpo-behaketaren bitartez, eta barnekoa bera ere gogoeta abstraktu eta helduaren bitartez bakarrik lortzen da. Kanpo-behaketaren begietarako, izan ere, kontzeptuzko motibazio horrek intenzionalaren izaera hartzen du bere mugimendu guztietan, independentzi kutsua erakutsiz, zeinak lehen begiratuan bereizten dituen animalien mugimenduetatik; baina barrenean hemendik ateratzen den gauza bakarra da animaliak ez dituen errepresentazio gisako batzuen bidez diharduela gizakiak; eta bakoitzak bere buruaz duen kontzientzian, erarik arartekogabeenean nahimen-egintza ezagutzen du; aldiz, eskuarki oso erdizka eta sarritan berariaz lausotuta, zioa. Prozesu horrek, beraz, benetako askatasun harekiko kontzientziarekin bat datorrelarik, zeina dagokion nahimenari bere baitango gauza eta fenomenoaz kanpo gisa, nahimen-egintzan ezereen baitan ez dagoen eta librea, hau da, oinarrigabea den itxura engainuzkoa sortzen du; nahiz eta egia berez izan, izaera eta zio errekonozitu bat emanik, hainbesteko beharrianenez jarraitzen zaiola egintza, mekanikak irakasten dizkigun alterazioak bezala, edo **Kanten** adierazpide bat erabiltzearen, aski ezagunak balira izaera eta zioa, egintza ilargi-eklipsea bezain ongi iragarri ahal izango litzatekeen, edo, Kantenaz hain bestelakoa den autoritate bat hemen ezartzeko, **Danterekin** esango dugu, zeina Buridan baino zaharragoa den:

*Intra duo cibi, distanti e moventi*

*D'un modo, prima si morria di fame*

*Che liber'uomo l'un recasse a' denti.*<sup>30</sup>

Parad. IV. 1.

# ASTRONOMIA FISIKOA

Neure doktrinaren ezein parterentzat ezingo nukeen berrespen gutxiago espero zientzia enpirikoen aldetik, Kanten bere baitango gauza nahimena delako oinarritzko egiarentzat baino, natura inorganikoari berari ere aplikaturik, eta bertan oinarritzko osagaietan ekinean dabilen, geure baitan nahimen gisa ezagutzen dugun horren berorren identikoa baizik delakoarentzat. - Eta oraindik poz handiagoa eman dit ikusteak nola enpiriko gailen batek, egiaren indarrak abaildurik, bere zientziaren testuinguruan paradoxazko proposizio hori esatera iritsi den. **Sir John Herschel** da hori eta bere *Treatise on Astronomy*, 1833an argitaratua eta 1849an bigarren edizio gehitua izan duen horretan, "Outlines of Astronomy" titulupean sostengatu du esandakoa. Berak astronomoa izaki, lurrean grabitateak duen egiteko partzial eta zakarrarengatik ez ezik, -baita espazioan dagokion nobleagoarengatik ere, non zero-gorputzak elkarrekin jolas egiten duten, elkarri errondan ibiltzen zaizkion, eta iruzur egiten dioten, baina ukipen zakarrera iritsi gabe, baizik eta distantzia egokia gordez, seriotasunez beren minuetoa segitzen dute, esferen harmoniarako, -**Sir John Herschel** honela mintzo da lehen edizioko 7. kapituluko 371. pasartean, non grabitazio-legea ezartzen ahalegintzen den:

"Ezagutzen ditugun gorputz guztiak, airean jaso eta gero jareginez gero, lurraren gainazalera jaisten dira zuzenean goitik behera. Beraz, indar edo indarketa batek tira egiten die, nonbait existitzen den kontzientzia baten edo **nahimen** baten zuzeneko edo zeharkako emaitza denak, nahiz eta bera susmatzeko gai ez garen: indar horri deitzen diogu **grabitate**."

*"All bodies which we are acquainted, when raised into the air and quietly abandoned, descend to the earth's surface in lines perpendicular to it. They are therefore urged thereto by a force or effort, the direct or indirect result of a consciousness and a will existing somewhere, though beyond our power to trace, which force we term gravity"* 31.

1833ko urriko *Edinburgh Review*-eko **Herschelen** erreseinagilea, ingelesa den aldetik ezertaz baino lehenago Moisesen kontakizuna arriskuan ez jartzeaz arduratzen delarik<sup>32</sup>, izugarri txunditzen da pasarte horretaz, eta arrazoiz ohartarazten du, hemen begibistan dagoela Jainko ahalguztidunaren nahimenik ez dela aipatzen, zeinak atera baitu izatera materia bere propietate guztiekin, eta ez dio proposizioari ihes egiten utzi nahi eta ukatu egiten du aurreko pasartearen ondorio denik, zeinaren bitartez **Herschelek** oinarritu nahi zuen. Nik uste dut pasarte horren ondorioa dela noski (zeren kontzeptu baten jatorriak determinatzen baitu bere edukia); baina premisa hori faltsua dela. Kausalitate-kontzeptuaren jatorria esperientzia delako baieztapena da hain zuzen ere eta kanpoko gorputzen baitan geure ahaleginez obratzean hartzen duguna hain zuzen ere. Ingalaterra bezalako tokietan, oraindik filosofia kantiarraren egunak argitu ez duenetan soilik, pentsa liteke esperientziatik datorren kausalitate-kontzepturik (alde batera utzirik Kanten doktrinei iseka egiten dieten eta niri inolako jaramonik egiten ez didaten filosofia-irakasleak); eta gutxiago oraindik pentsa liteke, baldin eta kontzeptu horren apriorizkotasunaren nire froga, Kantenaz bestelakoa dena, ezagutuz gero, zeina oinarritzen den kausalitatearen ezaguera kanpo-munduaren beraren intuizioaren aurre-baldintza ezinbestekoa izatean, eta horretara iristen da adimenak buruturiko **iragaitzatik** zentzumen-organoko sentsaziotik bere **kausara**, zeina halaber *a priori* intuituriko espazioan **objektu** gisa aurkezten zaigun. Alabaina, objektuaren intuizioak gure berarekiko obratze kontzientearen aurretikoa nola izan behar duen, ezin liteke horren esperientzia izan kausalitate-kontzeptuaren iturria, zerena eta nik gauzen baitan obratu aurretik, haiek nigan obratu izan behar baitute zio gisa. Eta orain arteko guzti honi buruzkoa neure obra nagusiko 4. kapituluan, 38-42. orrialdeetan (3. edizioan 41-46. orrialdeetan) xeheki azaldu dut eta Beharbesteko Arrazoiaren Traktatuaren 2. edizioan, 74. orrialdeko 21. pasartean (3. edizioan 79. orrialdean), non aurkitzen duen ezeztapen berezia **Herschelek** bereturiko iritziak, eta horregatik ez daukat hemen berriz ere horretan sartu beharrik. Baina suposizio hori enpirikoki ezeztatzerik ere badago, zerena hartatik segiko litzatekeen beso-zangorik gabe jaiotako gizakiak ez lukeela kausalitatearen berririk izango, eta ondorioz, ezta kanpo-munduari buruzko intuiziorik ere. Hori jadanik naturak berak ezeztatu du, gisa horretako gertakari zorigaitzeko batez, zeina iturritik jaso dudana, neure obra nagusian jadanik aipaturiko kapituluan, 40. orrialdean (3. edizioan 44. orrialdean). - Aipatzen ari garen Herschelen esaldian berriz ere gertatu da, antza, premisa faltsuetatik egiazko ondorioa atera izanaren kasua: eta hori begi-kolpe zuzenaz egia bat arartekogabe ikusten dugunean jazotzen da,

baina bere oinarriak bilatu eta argitzen hastean huts egiten dugu, horiek kontzientzia argira ekartzeko gai ez garelarik. Zeren jatorrizko ulerkuntza orotan, konbikzioa frogaren aurretik dator: hori haren ondoren asmatzen da beti.

Materia isurkariak, bere parte guztien mugikortasun perfektuari esker, grabitatearen arartekogabeko agerpena sortarazten du kasu bakoitzean soliduak egin lezakeen baino nabariago. Horregatik, apperça horretan parte hartzeko, zeina den **Herschelen** esaldiaren egiazko iturria, aski da erreka bati harkaitzen gainera oldarrean nola erortzen den arretaz begiratzea, eta ahalegin erabakior hori, zarramaltza hori, indar-egintzarik gabe berez gerta ote daitekeen galdetzea, eta nahimenik gabeko indar-egintzarik gabe pentsa ote daitekeen. Eta jatorriz mugituriko, arartekogabeko lehen indar batez jabetzen garenean bezala, bere barne funtsa nahimena dela pentsatzera beharturik aurkitzen gara. -Beraz finko geratzen da hemen **Herschel**, orain arte aipatu ditudan alor desberdinetako enpiriko guztiak bezala, bere ikerketan eramana aurkitu zela fisikoak bere atzean metafisikoa dena besterik ez daukan tokira, zeinak gelditzera behartu zuen, eta berak ere, beste guztiek bezala, muga horretaz haraindi **nahimena** besterik ezin izan zuen ikusi.

Gainerakoan hemen **Herschel**, enpiriko horien arteko gehienak bezala, nahimena eta kontzientzia banaezinak diren iritzikoa da. Eta errakuntza horretaz eta nire doktrinaren bitartez berorren zuzenketaz gorago aski luzatu naizenez gero, hemen ez dago horretara berriro itzuli beharrik.

Mende honen hasieratik beretik egotzi nahi izan zaio **bizia** inorganikoari; oso faltsuki orde. Bizia eta organikoa kontzeptu elkartrukagarriak dira: heriotzarekin utzi egiten dio organikoak organiko izateari. Natura guztian ez dago zehatzago ezarritako mugarik organikoa eta inorganikoaren artekoa baino, hau da, forma funtsezkoa eta iraunkorra, materia akzidentala eta aldakorra, -eta honen alderantzitara gertatzen denaren artekoa. Hemen ez dira mugak kulunkatzen, agian animalia eta landareen, isurkari eta solido, gasa eta lurrinaren artean bezala; beraz horiek ezabatu nahi izatea alferrik geure kontzeptuetara nahasmendua eraman nahi izatea besterik ez da. Aitzitik bizigabeari, inorganikoari **nahimena** egozten lehena neu izan naiz; zeren niretzat ez baita, orain arteko iritziaren arabera, nahimena ezagutzearen akzidente eta horrenbestez materiarena; baizik eta bizia bera nahimenaren agerpen da. Ezagutzea, aitzitik, benetan biziaren akzidente bat da eta hori materiarena. Baina materia bera nahimenaren agerpenen hautemangarritasuna besterik ez da. Horregatik ahalegin bakoitzean, zeinak naturatik izaki material bat sortarazten eta egiazki berori eratzen duen, edo bertan agertuz azaltzen den, **nahi izate** bat aitortu beharra dago, beraz ez dago inolako materiarik nahimen-kanporatzerik gabe. Nahimen-kanporatze apalena eta ondorioz orokorra grabitatea da: horregatik deitu izan zaio materiaren funtsezko indarra.

Natura kontsideratzeko ohizko eran suposatu izan da mugimenduaren bi printzipio erabat desberdin daudela, baita gorputz baten mugimenduak **jatorri bikoitza** izan dezakeela ere, edo barrutik irteten dela, **nahimenari** egotziz, edo kanpotik, **kausaren** bitartez sortuz. Oinarrizko iritzi hori eskuarki bere kabuz ulertzen den zerbait bezala suposatu eta abagune jakinetan bakarrik nabarmenarazi behar izaten dena bezala hartu izan da: baina ziurtasun handiagorako, garai antzinako eta modernoenetako pasarte batzuk erakutsiko ditugu. Jadanik **Platonek Fedro**-n berez mugitzen denaren eta (arimaren) eta mugimendua kanpotik bakarrik hartzen duenaren (gorputzaren) arteko oposizioa ezartzen du, -

το ὅφ' αὐτοῦ κινούμενον καὶ το, ὡ ἐξ ὧθεν το κινεῖσθαι. *De Legibus* 10. liburuan berriro antitesi bera aurkitzen dugu<sup>33</sup>. -**Aristotelese** ere ezartzen du oinarrizko printzipioa, Fisika VII, 2-an: *ἅπαν το φερόμενον ἢ αὐτοῦ κινεῖται, ἢ ὑπ' ἄλλου (quidquid fertur a se movetur, aut ab alio)*. Hurrengo liburuan, 4. eta 5. kapituluetan, kontrajartze berera itzultzen da eta berorri ondorengo ikerketak lotzen dizkio, eta ezbai handitan sartzten da kontrajartze horren faltsutasunaren ondorioz<sup>34</sup>. -Eta garai berriagoetan hor dator J. J. Rousseau guztiz xalo eta sinpleki kontrajartze berarekin *profession de foi du vicair Savoyard* ospetsuarekin (baita *Emile*, IV, 27. or, Bip.): *j'apperçois dans les corps deux sortes de mouvement, savoir: mouvement communiqué, et mouvement spontané ou volontaire: dans le premier la cause motrice est étrangère ou volontaire: dans le premier la cause motrice est étrangère au corps mû; et dans le second elle est en lui même*. -Jadanik gure egunotan, bere estilo hanpatu horrekin, honela mintzatzen da **Burdach** (*Physiol.* 4. vol., 323. or.): "mugimenduaren oinarri determinatzailea mugitzen den

horren barruan edo kanpoan datza. Materia kanpo-existentzia da, mugimendu-indarrak ditu, baina espazio-erlazio eta kanpoko erreakzio jakin batzuetan bakarrik jartzen ditu ekinean: anima bakarrik da barne jardunkor bakarra, eta gorputz animatuak soilik aurkitzen du bere baitan, kanpo-erlazio mekanikoez aparte, mugitzeko aukera eta bere kabuz mugitzen da."

Baina nik orain, behin Abelardok bezala, zera esan behar dut: *si omnes patres sic, at ego non sic*: zeren eta oinarrizko iritzi horren kontra, nahiz eta zahar eta orokorra izan, mugimenduaren bi sorburu desberdin **ez** daudelako baitago nire doktrina; **ez** dela egia barrutik sortzen dela, nahimenari egozten zaion kasuan, edo kanpotik, non kausetatik sortzen den; baizik eta biak banaezinak direla eta gorputzaren mugimendu orotan gertatzen dela. Zeren eta **nahimenetik** sortzen dela aitortzen den mugimenduak **kausa** bat auresuposatzen baitu: eta ezagumena duten izakietan hori zioa da eta hori gabe ezinezkoa da mugimendua beraietan ere. Eta bestalde, kanpoko **kausaz** gorputz batean eragina dela aitortzen den mugimendua, bere baitan bere **nahimenaren** agerpen da, zeina kausak eragina baizik ez den. Beraz, mugimendu ororen printzipio bakar bat besterik ez dago, printzipio erabakar, orokor eta salbuespen gabea: bere barne-baldintza **nahimena** da, bere kanpo-abagunea **kausa**, zeina mugituaren egituraren arabera kitzikari edo zio erara agertzen den.

Gauzetan enpirikoki *a posteriori* baizik ezagutzen ez den guztia, nahimena da bere baitan: aitzitik gauzak *a priori* determinagarriak diren neurrian, **errepresentazioari**, fenomeno hutsari dagozkio. Horregatik gutxitzen da naturako fenomenoaren ulergarritasuna nahimena argiago agertzen den neurrian, hau da, izakien eskaileran gorago dauden neurrian: aitzitik, hainbat ulergarritasun handiagoa dute, zenbat eta eduki enpiriko gutxiago izan; zeren hainbat gehiago gelditzen baitira errepresentazio hutsaren eremuan, zeinen guk ezaguturiko *a priori* formak ulergarritasunaren printzipio diren. Horren arabera kontzebigarritasun erabateko eta guztizkoa eremu horretan guztiz irauten den bitartean bakarrik izaten da, errepresentazio hutsarekin, eduki enpirikorik gabe, forma hutsa bere aurrean duela; beraz *a priori* zientzietan, aritmetika, geometria, foronomia eta logikan: horietan dena mailarik gorenean atzemangarri da, ikuspuntuak erabat argi eta beharbestekoak dira, eta ez dute ezeren faltarik sentiarazten; beraz ezinezko zaigu ezer bestetara gerta litekeenik pentsatzea: eta hori dena dator guk hemen geure enteleguko formekin bakarrik jardun behar izatetik. Horrela, bada, zenbat eta ulergarritasun handiagoa dagoen erlazio batean, hainbat gehiago dirau horrek fenomeno huts izaten eta ez du bere baitango izakiarekin zerikusirik. Matematika aplikatuak, mekanikak, hidraulikak eta abarrek nahimenaren objektibazioko mailarik behearena kontsideratzen dute, non oraindik gehiena errepresentazio hutsaren eremuan dagoen, baina jadanik badauka osagai enpiriko bat, zeinean atzemangarritasun, gardentasun guztia lausotzen den eta zeinarekin argiezinezkoa sartzen den. Fisika eta kimikaren atal batzuek bakarrik onartzen dute, arrazoi beragatik, trataera matematikoa: izakien eskaileraren gorenean erabat galtzen da aukera hori; hain zuzen ere fenomenoaren edukian forma gainditzien duelako. Eduki hori nahimena da, aposteriorizkoa, bere baitango gauza, librea, oinarrigabea. Eta "Landare-fisiologia" kapituluan erakutsi dut nola gero eta argiago bereiztu eta banatzen diren izaki bizi eta ezagueradunetan zioa eta nahimen-egintza, errepresentatzea eta nahi izatea, zenbat eta izakien eskaileran gorago igo. Era berean bereizten dira gero eta gehiago, neurri beraren arabera, naturako erreinu inorganikoan kausa eta ondorioa, eta neurri berean sartzen da enpirikotasun hutsa, zeina ere nahimenaren fenomeno den, gero eta argiago, baina horrekin ulergarritasuna urritu egiten da. Horrek azalpen xehea merezi du eta arreta guztia jartzeko eskatzen diot irakurleari; izan ere oso egokia baita nire doktrinaren oinarrizko pentsamenduak, nola hautemangarritasunari hala ebidentziari dagokienez, argitasun batean jartzeko. Horixe da nik egin dezakedan guztia: kontrakoa egitea, garaikideek nire pentsamenduei erretolika delako harrera hobe egitea ez dago nire ahalean; bakarrik neure burua kontsolatzen dut neure garaiko pertsona ez naizela pentsatuz.

Naturaren mailarik behearenean kausa eta ondorioa erabat homogenoak eta erabat parekoak dira; horregatik ulertzen dugu horien lotura kausala: adibidez, beste baten kontra talka egiten duen bola baten mugimenduaren kausa, honen mugimendua da, besteak hartu adina galtzen duena. Hemen daukagu kausalitatearen ahalik eta atzemangarritasunik handiena. Horretan oraindik dagoen misterioa mugimendua -gorpuzgabea den zerbait- gorputz batetik bestera transmititu ahal izatera mugatzen da. Hain da txikia harmena gisa honetako gorputzetan, non erabat eta osoki kausara joan behar den eragindako ondorioaren bila. Gauza bera gertatzen da ondorio zeharo

mekanikoekin ere, eta beti berehala horrela ez ulertzea alboko inguruabarrek estaltzen digutelako edota kausa eta ondorio askoren lotura konplikatuak nahasten gaituelako besterik ez da: berez kausalitate mekanikoa oso ulergarria da nonahi, baita mailarik gorenean ere, zeren hemen kausa eta ondorioa ez baitira **koalitatiboki** desberdin, eta **koantitatiboki** direnean, balankaren kasuan bezala, gauza sinpleki azalgarria da espazio eta denborazko erlazio soilez. Baina pisuak elkarreraginean hasten direnean, bigarren misterio bat, grabitatea gehitzen zaie: eta gorputz elastikoek badihardute, elastikotasuna. -Besterik gertatzen da, ordea, izakien eskaileran zerbait gora egiten badugu. Berokuntza kausa gisa, eta dilatazioa, likidotzea, hegazkortzea edo kristaltzea ondorio gisa, ez dira analogoak, eta horregatik ez da ulergarria beren erlazio kausala. Kausalitatearen atzemangarritasuna gutxitu egin da: berotasun gutxiagoz likidotzen dena, hegazkortsu egiten da berotasuna gehituz gero; berotasun gutxiagoz kristaltzen dena, gehiagoz urtu egiten da. Berotasunak bigundu egiten du argizaria eta buztina gogortu; argiak zuritu egiten du argizaria, zilar-kloruroa belztu. Bi gatzek batabestea deskonposatzen badute, beste bi berri eratzen dituzte; horrela misterio sakona zaigu hautapen-kidetasuna, eta bi gorputz berrien propietateak ez dira beren osagai banatuaren propietateen batura. Oraindik segi dezakegu konbinazioak egiten eta gorputz berriak nondik sortzen diren egiaztatu, konposatuak berriro bereiz dezakegu, kantitate bera ekoitziz. Horrela hemen kausa eta ondorioaren artean heterogenotasun eta inkomentsurabilitate ohargarriak sartu dira: kausalitatea misterioitsu bihurtu da. Gainera bi gauzak gertatzen dira baldin eta elektrizitatearen edo pila voltaikoaren ondorioak beren kausekin erkatzen baditugu, beirakia igurtzitzea edo plakak metatu eta herdoiltzearekin. Hemen ezabatu egiten da kausa eta ondorioaren arteko antzekotasun oro; kausalitatea estalki lodipean ezkututzen da, zeina kentzeko Davy, Ampère, Faraday bezalako gizonek neke handiekin ahalegindu behar izan duten. Gauza bakarra aurkitu dute: ondorioak sortzeko dituzten lege soilak aurkitu dituzte  $+E$  eta  $-E$ , komunikazioa, banaketa, kolpea, piztea, deskonposatzea, karga, isolatzea, deskarga, korrante elektrikoa eta antzekoetara bihurturik, zeinetara bihurtzen dugun ondorioa, nahiz eta gogara gidatzen duten: baina prozesuak berak ezezagun,  $x$  bat izaten dira. Hemen, beraz, kausa eta ondorioa erabat heterogeno dira, beren lotura ulertezina, eta gorputzek harmen handia erakusten dute eragin kausalerako, zeinaren funtsa misterio zaigun. Baderitzagu, gainera, gorago goazen heinean, areago dagoela ondorioan eta gutxiago kausan. Hau guztia oraindik gehiago gertatzen da erreinu organikoraino igotzen garenean, non agertzen den bizi-fenomenoa. Baldin eta, Txinan egin ohi denez, zulo bat egur ustelez bete, zuhaitz beraren hostoz estali eta gatz-disoluzioa behin eta berriz isurtzen bazaio, perretxiko jangarritzko begetazio aberatsa sortzen da. Urez bustitako belar ondu apur batek bizkor mugitzen diren infusoriozko mundu bat eskaintzen digu. Bai heterogenoak direla hemen ondorioa eta kausa, eta zenbat gehiago dirudien hartan dagoela honetan baino areago. Mendeak, eta milaka urte ere izan ditzakeen haziaren eta zuhaitzaren artean; lurraren eta ezin zenbatu ahala landareren zuku bereziaren eta hain desberdinen artean, sendagarriak, pozointsuak, elikagarriak, lurtzoru bera eustazpi dutenak, eguzki-izpi bera argigarri, eta euri-zaparrada bera ureztagarri dutenak: horien artean ez dago antzekotasunik eta horregatik ezta ulergarritasunik ere guretzat. Zeren hemen kausalitatea potentzia gorenean sartzen baita, hau da, kitzikari eta harmen bezala. Kausa eta ondorio eskema bakarrik gelditu zaigu: hau kausatzat ezagutzen dugu, eta hura ondoriotzat, baina kausalitatearen modu eta eraz ez dakigu ezer. Eta ez da bakarrik ez aurkitzen inolako antzekotasun koalitatiborik kausa eta ondorioaren artean, ezta erlazio koantitatiborik ere: ondorioa kausa baino gero eta garrantzitsuago agertzen da, kitzikariarena hazi gabe beronen graduaren arabera, baizik eta sarritan alderantziz gertatzen da. Eta izaki ezagutzaileen erreinuan sartzen bagara, egintza eta objektuaren artean, zeina errepresentazio gisa eragiten duen, ez dago inolako antzekotasunik ez erlazorik. Errepresentazio **sentikorretara** mugaturiko animalietan, oraindik beharrezkoa da zio gisa diharduen objektuaren presentzia, aldiuneko eta iraunkor bihurtuz (bezaketan, hau da, beldurak bortxaturiko azturan izan ezik): zeren eta animaliak ezin baitu bere baitan kontzepturik eraman, uneko inpresiotik bere eskuko egingo duenik, gogoeta-ahaltasuna emanez eta intentziazko egintzarako gaituz. Gizakia horretarako gai da. Osoa da izaki arrazoidunetan zioa, ez zerbait presentea, sentikorra, existentzia eta erreala den heinean baizik eta kontzeptu hutsa, zerebroan bakarrik existentzia aktuala duena, baina pertzepzio anitzetatik ateratzen duena, igarotako urteetako esperientzietatik edo hitzez transmititurikotik ere bai. Kausa eta ondorioaren arteko banaketa hain handia bihurtu da eta ondorioa kausarekiko



erlazioan hainbeste hazi da, non adimen landugabeari iruditzen zaion kausarik ez dagoela, nahimen-egintza ez dagoela ezeren baitan, oinarrigabea dela, hau da, librea. Horrexegatik aurkezten dira gure gorputzeko mugimenduak, baldin eta kanpotik erreflexionatuz begiztatzen baditugu, kausarik gabe gertatuko balira bezala, hau da, benetako mirariak balira bezala. Esperientziak eta gogoetak bakarrik erakusten digute mugimendu hauek, beste guztiak bezala, kausa baten bitartez bakarrik direla posible, hemen zio deitzen dugunaren bitartez, eta mailaketa hartan, kausa errealitate materialean bakarrik ondorioaren atzetik geratu dela, aitzitik errealitate dinamikoan, hau da, energian berarekin parez pareko urratsak eman dituela. -Maila horretan, naturako gorena den horretan ere, beste edozeinetan baino gehiago abandonatu gaitu kausaren ulergarritasunak. Eskema hutsa bakarrik gelditu zaigu, modu erabat orokorrean hartua, eta gogoetarik helduena behar da eskemak edonora daraman aplikagarritasun eta beharrezkotasuna ezagutzeko.

Alabaina, -Posilippoko haitzuloan ibiliz, gero eta ilunpe handiagoa aurkitzen den bezala, harik eta erdia gainditu ondoren, beste muturreko egunargia bidea argitzen hasten den arte, gauza bera gertatzen da hemen ere, -non kanpoaldera zuzentzen den adimenaren argia, bere kausalitate-formarekin, ilunpearen menpean egon ondoren, azkenean erlantzahul eta lauso bat ematen hasten den; eta hemen erabat beste gisa bateko azalpena egokitzen da, guztiz beste alde batetikoa, geure baitatik abiatzen den azalpena, eta geure epaileok epaitu beharreko objektuak izatearen halabeharrezko inguruabarragatik aurkezten zaiguna. Kanpo-pertzepzioarako eta bertan ihardukorra den adimenerako pixkanaka gehituz joan da lotura kausalaren ulermenaren zailtasuna, hasieran hain argia zen harena, zeina egintza animalietan azkenerako hain zalantzazkoa bihurtu den, non mirari gisako zerbait gisa hartu behar diren: baina orain, guztiz beste alde batetik, behatzailearen alde beretik egintza haietan nahimena, kanpo-pertzepzioak eskaini diezaiokeen ezer baino ezagunago eta fidagarriagoa zaion nahimena *agens* delako arartekogabeko argibidea datorkio. Ezaguera honek soilik izan behar du filosofoentzat ikerketarako gako natura ezagumengabearen prozesu guztiak barrenenean ikertzeko, zeinetan azalpen kausala asebetegarriagoa zen azkenik begiztatuetan baino, eta hainbat argiagoa zenbat eta hauek urrunagotzen zen, baina beraietan beti x ezezagun bat gelditzen zelarik, guk inoiz erabat prozesuaren barrualdea argituz ez genuela, ezta talkaz mugituan edo grabitateak erakarritako gorputzetan ere. X hori gero eta hedatuago egin zen, azkenik, azalpen kausal oro erabat baztertuz, mailarik gorenekoetan; baina beronek gutxien balio zezakeenean, gero nahimen gisa agertzen da Mefistofelesen pareko, zeina saiakuntza adituen ondorioz, txakur eskerga bihurturik ateratzen baita, haren muina zen eta bera. **X honen identitatea** eskailmailarik beherenetan ere, non ahulki baizik agertzen ez den, gero beste igoago batzuetan, non bere ilunpea gero eta gehiago hedatzen den, eta azkenik, gorenean, non dena gerizatu zuen, eta bukaeran, geure agerpen propioan, autokontzientziari nahimen bezala agertzen zaion puntuan, ezagutzea hemen egindako kontsiderazioen ondorioz erabat ezinezkoa da. Gure ezagueraren bi lehen iturri desberdinak, kanpokoa eta barrukoa, puntu honetan gogoetaren bidez lotu egin behar dira. Lotura honetatik bakarrik sortzen da naturaren ulermena eta norbere buruarena: zeren naturaren barrena gure enteleguari, zeinari berez bakarrik kanpoalde hutsa atzemangarri zaion irekitzen baitzaion, eta filosofia hain luzaz bila dabilen misterioa argiturik gelditzen da. Orduan gelditzen da benetan argi zer den egiazki erreala eta zer ideala (bere baitango gauza eta fenomenoak); eta horrenbestez, Descartesen filosofiak ardatz-tzat daukan auzi nagusia, aipaturiko bi elementu horiek duten erlazioa, zeinen erabateko aniztasuna azaldu duen Kantek ahalik eta sakontasun handienaz, paregabeko zorrotzasunez, eta zeinen erabateko identitatea baieztatzen duten txoriburu batzuek, intuizio intelektualaren kreditupean. Baldin eta ezabatzen bada azterketa hori, benetan eta egiazki egiarako ate bakar eta meharra dena, inoiz ez da Naturaren barne-funtsa ulertzea lortuko, zeinerako inola ere beste biderik ez dagoen; aitzitik errakuntza konponezin batean erotzen da gainera. Izan ere, lehen esan denez, mugimenduaren bi printzipio zeharo desberdin onartzen dira zeinen artean zedarri finkoa dagoen: kausazko eta nahimenezko mugimendua. Lehenak ulertezin dirau beti, bere barrenari dagokionez, zeren eta beratzaz ematen diren azalpenek zenbat eta gure ikasgaia gorenago dagoen hainbat eta gehiago bere baitan biltzen den x ebatzez horretara gidatzen baikaituzte, eta bigarrena, nahimenezko mugimendua, kausalitate-printzipiotik erabat aldendurik bezala dago bertan, oinarri gabe bezala, egintza bakoitzaren askatasun bezala, eta, beraz, erabat Naturari kontrajarria eta inola ere ezin

azalduzko bezala. Kontrara, baldin eta ezagueraren jadanik demostraturiko barruko eta kanpoko elkarketa burutzen bada, biek elkar ukitzen duten tokian, ezagutu egiten ditugu, akzidentezko aniztasun guztiak gorabehera, bi identitate, hau da, kausalitateak bere buruarekiko duena maila guztietan eta hasieran ezezaguna den X-arena (hau da, indar naturalen eta bizi-agerpenena) gure baitako nahimenarekin. Esan nahi dut aurrena kausalitatearen funts identikoa ezagutzen dugula forma desberdinetan, zeinak maila desberdinetan hartu behar duen, eta zeina agertzen den kausa mekaniko, kimiko, fisiko bezala, kitzikari bezala, intuiziozko zio bezala, zio abstraktu eta pentsatu bezala; bat eta bera bezala ezagutzen dugu, bai beste batekin talka egiten duen gorputzak komunikatzen duen adina mugimendu galtzen duen tokian, eta bai pentsamenduak pentsamenduaren borroka egiten duen tokian eta pentsamendu garaileak, ziorik indartsuenak bezala, gizakia mugimenduan jartzen du, mugimendu hau talkaturiko bola baino beharrezkotasun gutxiagoz sortzen ez delarik. Gu geu mugituak garen tokian, eta horregatik prozesuaren barrena sakon eta erabat ezaguna zaigun tokian egon ordez barne-argi horrek itsuturik eta nahasturik gelditzeko, eta naturan agertzen zaigun beste lotura kausal guztitik arrotzeko, hartarako sarrera betirako geure buruari itxiz, horren ordez kanpora zuzentzen dugu barrutik hartutako ezaguera berria, haren gako gisa, horrela bigarren identitatea, gure nahimenarena ezagutuz, orain arte ezezaguna izan den x harekin, zeina edozein azalpen kausaletan sobera gelditzen den. Esan dezagun, beraz, nahiz eta ondorioa eragiten duen kausa haztagarriena izan, oraindik dagoen misterio hura, x hura, edo prozesuak egiazko barreneko duena, egiazko *agens*-a, agerpen horren bere baitangoa, -zeina errepresentazio eta berorren forma eta legeen arabera bakarrik ematen zaigun- funtsean barrenean eta arartekogabe nahimentzat ezagutzen dugun hori berori den, geure gorputzeko egintzetan, eta zeina pertzepzio eta errepresentazio gisa ere ematen zaigun. Horixe da (egin nahi dituzuen pariztak!) egiazko filosofiaren oinarria; eta mende honek ikusten ez badu, ondorengoek ikusiko dute. *Tempo è galant-uomo! (se nessun' altro)*. -Eta bere maila guztietan, baita gorenekoetan ere, kausalitatearen funtsa ezagutzen bagenuen, zeinak bere argitasunik handiena nahimenaren objektibazioko mailarik beherenetan (hau da, Naturan) lortzen duen, bestalde nahimenaren funtsa ere ezagutzen dugu berriro maila guztietan, baita sakonenetan ere, nahiz eta gorenean kokaturik ezaguera hori geuk arartekogabe lortzen dugun. Errakuntza zaharrak dio: nahimena dagoen tokian ez dago jadanik kausalitaterik; eta kausalitatea dagoen tokian, ez dago nahimenik. Baina guk diogu: kausalitatea dagoen toki guztietan, han dago nahimena; eta nahimenak ez dihardu inoiz kausalitaterik gabe. Beraz *punctum controversiae* da ea nahimena eta kausalitatea, prozesu bat eta berean, aldi berean eta batera egon daitezkeen eta behar duten. Honen ezaguera, nonnahi gertatzen delarik ere, zeharo bi era desberdinen bidez kausalitatea eta nahimena ezagutzen direlako inguruabarrak zailtzen du: erabat kanpotiko, erabat arartekogabea eta adimenaren bitartezko kausalitatea; eta erabat barrutik eta erabat arartekoduna, eta ondorioz, zenbat eta argiagoa izan kasu bakoitzean bataren ezaguera, hainbat ilunagoa da bestearena. Hemendik dakigu kausalitatea atzemangarriena den tokian, hantxe dela nahimenaren funtsa gutxien, eta nahimenak inolako zalantzarik gabe bere burua iragartzen duen tokian, hainbestearaino iluntzen da kausalitatea, non adimen landugabea ukatzera ausar daitezkeen. - Alabaina kausalitatea, Kantengandik ikasi dugunez, adimenaren beraren forma *a priori* ezaugarria besterik ez da, baita **errepresentazioaren** funtsa ere, bere horretan, zeina munduaren aurpegietako bata den: beste aurpegia **nahimena** da: bere baitango gauza da. Bata bestearekiko alderantzizko erlazioan dagoen kausalitatea eta nahimenaren argitze hori, biak txandaka agertze eta aldentze hori honetan datza: zenbat eta gehiago gauza bat fenomeno soil gisa, hau da, errepresentazio gisa ematen zaigun, hainbat argiago agertzen da errepresentazioaren, hau da, kausalitatearen apriorizko forma; horrela gertatzen da Natura bizigabea: -eta alderantziz, zenbat eta nahimenaz arartekogabeago jabetzen garen, hainbat gehiago aldentzen da errepresentazioaren forma, kausalitatea; berdin gertatzen zaigu guri ere. Horrela, zenbat eta hurbilago etortzen zaigun munduaren aurpegi bat, hainbat gehiago galtzen dugu bestea begietatik.

# LINGUISTIKA

Izenburu honen pean neronek azken urteotan egindako eta dirudienez orain arte inork kontutan hartu ez duen oharrikaspen baten berri ematea beste helbururik ez dut. Horretaz jabetzeak merezi duelakoaren lekuko **Senekaren** esaldi hau daukagu: "*Mira in quibusdam rebus verborum proprietas est, et consuetudo sermonis antiqui quaedam efficacissimis notis signat.*" *Epist.* 81. Eta **Lichtenberge**k dio: "Ongi pentsatzen bada, jakituria handia aurkitzen da hizkuntzaren barruan. Egiantzik ez du dena barruan daukala uste izateak; baina bai jakituria handia barruan dagoelakoak."

Hizkuntza askotan, eta behar bada guztietan, adierazten da ezagumengabeko eta baita bizigabeko gorputzen egintza, nahi izatearen bitartez, eta nahimena ere egozten zaie; aitzitik inoiz ez ezagutzerik, iruditzerik, hautematerik, pentsatzerik: ez dut ezagutzen horrelakorik bere baitan daukan adierazpiderik.

Hala dio Senekak (*Quaest. nat. II, 24*) goitik behera amildutako tximistaren suaz: "*In his, ignibus accidit, quod arboribus: quarum cacumina, si tenera sunt, ita deorsum trahi possunt, ut etiam terram attingant; sed quum permiseris, in locum suum exsiliunt. Itaque non est quod eum spectes cujusque rei habitum, qui illi non ex voluntate est. Si ignem permittis ire quo velit, coelum repetet.*" Zentzu orokorrangoan dio **Pliniok**: "*Nec quaerenda in ulla parte naturae ratio, sed voluntas.* (*Hist. nat. 37, 15.*) Grekoak ez digu adibide gutxiago eskaintzen: Aristotelesek pisua azaltzean dio (*De coelo, II, c. 13*) (*parva quaedam terrae pars, si elevata dimittitur, fertur, neque vult manere*). Eta hurrengo kapituluan: (*unumquodque autem tale dicere oportet, quale natura sua esse vult, et quod est; sed non id quod violentia et praeter naturam est*). Oso esanguratsua eta linguistiko soila baino zerbait gehiago da Aristotelesek, *Ethica magna I, 14*. kapituluan, non berariaz izaki bizigabeez (gora jotzen duen suaz eta, eta behera jotzen duen lurraz) eta bizidunez hitz egiten duen, dio, behartuak izan litezkeela beren naturaren, edo nahimenaren aurka zerbait egitera:  $\alpha\alpha\alpha\ \phi\upsilon\sigma\iota\nu\ \tau\iota,\ \eta\ \alpha\alpha\alpha\ \alpha\ \beta\omicron\upsilon\lambda\omicron\nu\tau\alpha\iota\ \pi\omega\iota\epsilon\iota\nu$ , -en parafraresetzat oso zuzenki  $\alpha\alpha\alpha\ \alpha\ \beta\omicron\upsilon\lambda\omicron\nu\tau\alpha\iota$  aurkeztuz. -Anakreontek 29. odan,  $\epsilon\iota\varsigma\ \beta\alpha\beta\upsilon\lambda\lambda\omicron\nu$ , non bere maitearen irudia finkatzen duen, hau dio ileez: (*capillorum cirros incomposite jungens, sine utut volunt jacere*). Alemanez dio **Bürgerrek**: "Behera **nahi** du sabelak, ez gora. "Eguneroko bizitzan ere sarri esaten dugu: "ura irakiten dago; gainezka egin nahi du", - "ontziak leher egin nahi du", -eskailerak ez du zutik egon nahi." -*Le feu ne veut pas brûler*; -*la corde, une fois tordue, veut toujours se retordre*. -Ingeleseaz nahi izan aditza gainerako aditz guztien etorkizun-laguntzaile bihurtu da, horrenbestez adierazten delarik egintza ororen oinarrian nahi izatea dagoela. Gainerakoan ezaguera eta bizirik gabeko izakien ahalegina berariaz *to want*-ez izendatzen da, giza gurari eta ahalegin oro adierazten duen hitza delarik: *the water wants to get out*; -*the steam wants to make itself way through...* -Gauza bera italieraz: *vuol piovere*; -*quest' orologio non vuol andare*. -Gainera hizkuntza horretan hain dago sakon sartua nahi izatearen kontzeptua, non eskakizun oro, beharrian oro izendatzeko erabiltzen den: *vi vuol un contrapeso*; -*vi vuol pazienza*.

Sanskritoaren enborreko hizkuntza guztiez hain bestelakoa den txineran ere hemen ongi datorren eta oso adierazkorra den adibide bat aurkitzen dugu. *Y-Kingen* iruzkinak, Aita Regisen itzulpen zehatzaren arabera, hau dio: *Yang, seu materia coelestis, vult rursus ingredi, vel (ut verbis doctoris Tsching-tse utar) vult rursus esse in superiore loco; scilicet illius naturae ratio ita fert, seu innata lex (Y-king ed. J. Mohl, vol. I, 341 or.)*.

Erabakiorragoa da, linguistiko soila baino, prozesu kimikoko joanairaren ulerkuntza sakon eta sentituaren adierazpide gisa **Liebigek** bere "Nekazaritzari aplikaturiko Kimika", 394 orrialdean dioena: "aldehido bat jaiotzen dela azido sulfurikoa oxigenoarekin elkartzen den **irrika** berarekin azido azetikoa sortzeko." -Eta berriz ere bere *Fisiologiari aplikaturiko Kimika*-n: "aldehidoak, **irrika handiarekin** oxigenoa airetik ateratzen duenak". Eta nola, fenomeno beraz ari dela, adierazpide hori bi aldiz erabiltzen duen, ez da halabeharrezkoa, baizik eta adierazpide hori gauzari berari dagokiolako bakarrik<sup>35</sup>.

Hizkuntzak berak, gure pentsamenduen bitarteko arartekogabeena den horrek ere, barne-ahalegin oro nahi izate bezala pentsatzera beharturik gaudelako zantzuak ematen dizkigu baina inola ere ez die gauzei ezagumenik egozten. Hizkuntzek puntu honetan salbuespenik gabe ageri

duten adostasuna tropo hutsa ez, baizik eta sakon errotutako gauzen sentipenaren adierazpide bat determinatzen delakoaren lekuko da hemen.

# ANIMALI MAGNETISMOA ETA MAGIA

1818an nire obra nagusia agertu zenean, animali magnetismoak oraindik bizi laburra zuen. Berorren azalpenari buruz, eta parte pasiboari, pazientearekin gertatzen denari buruz, argiren bat sortuta zegoen, zeren eta **Reilek** zerebro- eta ganglio-sistemen artean nabarmendutako kontrajartzea bihurtu baitzen azalpen-printzipio; halere parte aktiboa, benetako agentea, zeinaren bitartez magnetizatzaileak fenomeno horiek eragiten dituen, erabat ilunpetan zegoen. Eskura zeuden azalpen-printzipio guztietan, Mesmerren erara, dena blaitzen zuen eter kosmikoa haztatzen zen, edo Stieglitzek bezala, **kausatzat** hartutako magnetizatzailearen larrumintzaren lurrinketa eta beste horrelako batzuk. Batzuetan nerbio-izpirituraino, gauza ezezagun bat izendatzeko hitza besterik ez deneraino igotzen ziren. Ia ez zegoen inor egia argitzen hasiko zenik inizatuen praxiaren arabera. Ni neure aldetik oraindik oso urrun nengoen magnetismotik neure doktrinarentzat zuzeneko berrespenera espero izatetik.

Baina *dies diem docet*, eta ordudanik irakasmaistra handia den esperientziak argitara eman du, *agens* hain sakon hark, zeina magnetizatzailearengandik irtenez, efektuak eragiten dituen, naturaren joanira erregularrari itxuraz hain kontrajarriak, non erabat desenkusatzekoa den haiek hain luzaz zalantzan jarri izana, sinesgogortasun setatsua eta, besteak beste, Franklin eta Lavoisier kide zituen batzordearen epaia, eta hitz batean, lehen eta bigarren aldian haren kontra esan den guztia (ikerketarik gabe arestian Ingalaterran nagusi den auriritzi gordin eta tentela izan ezik), -zera diot, agente hori magnetizatzailearen **nahimena** besterik ez dela. Uste dut, gaur egun, praktika eta teoria elkartzen dituztenen artean ez dela izango zalantza txikienik ere, eta horregatik alferrikakotzat daukat hori berresten duten magnetizatzaileen esaldi ugariak aipatzea<sup>36</sup>. Beraz **Puysegur** eta magnetizatzaile frantses zaharrek esaten zutena: *veuillez et croyez!*, hau da, nahi izan eta sinets ezazue! denboran zehar bermatu ez ezik, prozesua beraren ikuspen zuzen izateraino garatu da<sup>37</sup>. **Kieserren** *Tellurismoa*-tik, zeina oraindik ere animali magnetismoari buruzko eskuliburu oinarritzko eta xeheena den, gogara ateratzen da ezein egintza magnetiko ez dela eraginkor nahimenik gabe, eta alderantziz, nahimen soilak, kanpoko egintzarik gabe, edozein efektu magnetiko eragin dezakeela. Badirudi manipulazioa bitarteko bat besterik ez dela nahi izate-egintza eta bere norabidea finkatu eta aldi berean gorpuzteko. Zentzu horretan dio Kieserrek (*Tellur. vol. I, 379 or.*): Gizakiaren eskuak, bere agente-iharduera (hau da, nahimena) erarik ikuskorrenean adierazten duten heinean, magnetizatzean organo eragile izatetik sortzen da manipulazio magnetikoa." Oraindik zehaztasun handiagoarekin adierazten du hori **de Lausanne**, frantses magnetizatzaileak *Annales du magnétisme animal, 1814-1816*, 4. koadernoan, non dioen: "*l'action du magnétisme dépend de la seule volonté, il est vrai; mais l'homme ayant une forme extérieure et sensible, tout ce qui est à son usage, tout ce qui doit agir sur lui, doit nécessairement en avoir une, et pour que la volonté agisse, il faut qu'elle emploie un mode d'action.*" Nola nire doktrinaren arabera, organismoa nahimenaren fenomeno hutsa, ikuskortasuna, objektibitatea, eta zinez zerebroan errepresentazio gisa hautemandako nahimena bera baizik ez da; horrela manipulazioaren kanpoko egintza bat dator barruko nahi izate-egintzarekin. Baina hura gabe burutzen den tokian, nolabait era artifizialean gertatzen da, itzulunguru baten bidez, izan ere fantasiak ordeztzen baitu kanpoko egintza, baita presentzia pertsonala ere: horregatik izaten da askoz zailago eta gutxitan lortzen du helburua ere. Horren ondorioz dio Kieserrek "Lo egizu!" edo "halako egin behar duzu!" hitzak esateak eragin askoz indartsuagoa duela sonanbuluarengan magnetizatzailearen barneko nahi izateak baino. -Aitzitik manipulazioa eta kanpoko egintza oro har, zinez bitarteko hutsezinak dira magnetizatzailearen nahimena finkatu eta ihardunarazteko, izan ere kanpoko egintzak inolako nahimenik gabe ezinezkoak baitira, gorputza eta bere organoak nahimenaren ikuskortasuna baizik ez diren heinean. Horrela ulertzen da batzuetan magnetizatzaileak bere nahimenaren ahalegin kontzienterik gabe eta hartan ia pentsatu ere egin gabe magnetizatzea, eta gainera efektua izatea. Ezta inola ere nahi izatearen kontzientzia, berorri buruzko gogoeta, baizik eta nahi izate garbia, errepresentazio orotatik ahal bezainbat bereizia magnetikoki eragiten duena. Horregatik aurkitzen ditugu Kieserrek magnetizatzailearentzat emandako preskripzioen artean (*Tellur. vol. I, 400 or. eta hh.*) berariaz debekatzea medikuaren eta pazientearen pentsatsamendu eta gogoeta guztiak, elkarrekiko egintza eta pairamenduaz, errepresentazioek sortarazten dituzten inpresio guztiak, bien arteko elkarriketa guztiak, presentzia arrotz oro, egunargia bera

eta abar ere bai, eta ahalik eta inkontzienteen egoten ahalegin dadila gomendatzen du, sinpatiazko trataeretan ere eskatzen denez. Horren guztiaren egiazko arrazoia da hemen nahimenak diharduela bere jatorrizkotasunean, bere baitango gauza gisa; eta horrek eskatzen du ahalik eta gehien errepresentazioa baztertzea hartaz bestelako, sekundarioa den eremu gisa. Magnetizatzean zinez diharduena nahimena delako eta kanpoko egintza oro eroailu soil baizik ez delakoaren egiazko adibideak magnetismoari buruzko idatzi berri eta hoberen guztietan aurkitzen dira, eta alferrikako xehekeria litzateke horiek hemen errepikatzea: halere bat aipatu nahi dut, ez bereziki ohargarria delako, baizik eta aparteko batengandik datorrelako eta bere testigantzak interes txit berezia duelako: Jean Paulek dio gutun batean ( "*Jean Paulen bizitzako egia*" 8. bol., 120. orrialdean inprimatua): "ia bi aldiz lo eragin diot K. Andreari, jendetza handi baten erdian, eta inork ohartu gabeko nahimen **irmozko** begirada hutsez, eta aurretik bihotz-taupadak eta zurbiltzea izan zuen, S.-k lagundu behar izateraino". Nahiz eta gaur egun ohizko manipulazioaren ordezkariak eskatuak hartze eta edukitze soil bat bakarrik egiten den, hark finko begiratzen duen bitartean, ordezkariak arrakasta handiarekin egiten delarik; hain zuzen ere kanpoko egintza hori nahimena norabide jakin batean finkatzeko egokia delako. Baina nahimen batek beste baten baitan izan dezakeen arartegabeko ahalmen hori beste ezerk baino hobeki azaltzen dute **Dupotet** jaunak eta bere dizipuluek egindako saio miresgarriak, zeinak Parisen jendaurrean eta bere nahimen hutsez, keinu banaka batzuen eustazpiarekin, pertsona arrotzak bere gogara makurraraztea eta kontortsiorik aditugabeenak egitea bera ere bai. Horri buruzko txosten laburra itxuraz duintasun osoz egindako idatzitxo batean eskaintzen da:

"Magnetismoaren mundu miresgarriari buruzko lehen begirada". Karl Scholl, 185338. Aipatzen ari garen egia dela-eta, beste era bateko adibide bat "Dresdengo Augusta K. sonanbuluari buruzko jakinarazpenak", 1843, 53. orrialdean berak esaten duena da: "Erdi-lotan nengoen; anaiak ezaguna zuen pieza bat jo nahi izan zuen. Atsegin ez nuenez gero, ez jotzeko erregutu nion. Halere, ahaleginak egin zituen, baina nik neure nahimen finko kontrajarria gauza hain urrunera eramanez, non eginahalak eginik ere piezaz oroitzeko gauza izan ez zen." - Baina gauzak gorena harrapatzen du nahimenaren arartegabeko ahalmen hori gorputz bizigabeetaraino hedatzen denean. Denik eta sinestezinena badirudi ere, oso jatorri desberdineko bi txosten ditugu gai horretaz. Lehen aipaturiko liburuak 115, 116 eta 318. orrialdeetan, lekukoen berri emanez, kontatzen du sonanbulu horrek bruxularen orratza batean 7° eta beste batean 4° gradutaraino, eta esperimendua lau alditaraino errepikatu zelarik, eskurik ezertarako erabili gabe, nahimen hutsez, begirada orratzean finkatzearen bitartez nola aldatu zuen. - Britannia aldizkarian, 1851eko urriaren 23ko Galignani's *Messenger*-en berri ematen da, nola Parisko Prudence Bernard sonanbulua, Londresen egin zen ageriko bilera batean, buruari alde batera eta bestera eragite hutsez bruxula baten orratza nola behartu zuen mugimendu horri jarraitzea; horretan **Brewster** jauna, fisikariaren semea eta jendarteko beste bi jaun aritu ziren zinegin gisa (*acted as jurors*).

Ikusten dugu, bada, nola nik bere baitango gauza, existentzia guztian erreal bakar, naturaren muintzat ezarri dudan, giza banakotik abiatutik, animalia magnetismoan eta beronen gainetik lotura kausalaren, hau da, Natur joanairaren legearen arabera argitu ezin daitezkeen gauzak burutzen dituela, eta lege hori nolabait ere ezabatu egiten duela, *actio in distans* eraginkor bat obratuz, horrenbestez naturaren gain domeinu naturagaindiko bat, hau da, metafisiko bat erakutsiz; -ez dakit beraz nire doktrina erantzutako beste zer berrespen egiazkoagorik espero litekeen. Hainbestearaino da non nire doktrina zalantzarik gabe ezagutzen ez duen magnetizatzaile bat, Szapary kondea, bultzaturik aurkitzen da bere liburuaren "Animalia magnetismoa, gorputz bizidunak eta bizi-esentziari buruzko hitz bat" tituluarik, 1840, azalpen gisa, honako hitz ohargarri hauek gehitza: "edo animalia korrante magnetikoa elementua, eta **nahimena izpiritu- eta gorputz-bizitza ororen printzipio** delako frogatzen da fisika." -Horrela animalia magnetismoa **metafisika praktiko** gisa aurkeztu zaigu, zeina Verulameko Baconek jadanik, zientzien bere sailkapenean (*Instaur. magna L. III*) **magia** izendatzen zuen: metafisika enpiriko edo esperimental da. -Nola gainera animalia magnetismoan nahimena bere baitango gauza gisa agertzen den, fenomeno soilari bakarrik dagokion *principum individuationis*-a (espazioa eta denbora) berehalakoan eragotzia ikusten dugu: banakoak bereizten dituzten mugak hautsi egiten dira; magnetizatzailea eta sonanbuluaren artean espazioak ez du inolako bereizpenik ezartzen, pentsamendu eta nahimen-mugimenduzko elkartasuna sortzen delarik; argi-ikuspenezko

egoerak hartzen du fenomeno soilari dagokiona, espazio eta denborak baldintzaturiko erlazioei, hurbiltasuna eta urruntasuna, presentea eta etorkizunari dagokiena.

Gauzen egoera horren ondorioz, pixkanaka, beraiei kontrajarritako hainbeste arrazoi eta aurrititzi gorabehera indartuz joan da animala magnetismoa eta bere fenomenoak behialako magiaren parte batekiko identikoak diren iritzia, arte sekretu sonatu harekikoa, zeinaren errealitateaz sinetsirik egon diren garai guztietan zehar ez bakarrik hain gogor pertsegituak izan diren mende kristauak, baizik eta lurbira guztiko beste hainbeste herri ere bai, basak baztertu gabe, eta zeinaren erabilpen kaltegarriak jadanik erromatarren hamabi taulek<sup>39</sup>, Moisesen liburuak eta Platonek berak ere legeen hamaikagarren liburuan herio-zigorra ezartzen baitzuten. Zeinen seriooki hartzen zen, Antoninoena bezalako erromatar garai txit argiztatu batean ere bizitza mehatxatuz egin zizkieten aztigintza-salakuntzen kontra Apuleiok egindako epai-defentsa bikainak erakusten du (*Oratio de magia*, p. 104, *Bip.*) eta hartan egozpena beregandik aldentzen saiatzen da, baina ez du inondik ere magiaren ahaltsuna ukatzen, aitzitik Erdi Aroko sorginen prozesuetan agertu ohi diren bezalako xehetasun hutsaletan sartzen da. Joan den mendea bakarrik da Europan fede horrekiko salbuespen, Baltazar Becker, Thomasius eta beste batzuek sorginen kontrako prozesu krudelei ateak ixteko asmo jatorrarekin magia oro ezinezkoa zela baieztatzearen ondorioz. Iritzi horrek, mende horretako filosofiak ere faboraturik, nagusi izatea lortu zuen, nahiz eta klase ikasi eta argiztatuetan bakarrik. Herriak ez dio inoiz magian sinesteari utzi, ezta Ingalaterran ere, nongo klase argiztatuek, aitzitik, erlijio-gauzetan kaskartzen dituen ikazkin-fedea dutenek badakiten San Tomasen edo Thomasiusen erako sinesgogortasun kordokaezina elkartzen talka eta kontratalekaren edo azido eta alkalien legeetatik irteten diren gertakari guztiei buruz, eta beren herrikide handiarekin batera ez dute aitortu nahi beren filosofiak amets egin ditzakeen baino gauza gehiago dagoela zeru-lurretan. Magia zaharraren adar bat nabari egon da herrian, eguneroko jardunean, bere asmo mesedegilearengatik, hain zuzen ere sinpatiazko sendaketena, errealitate hori nekez zalantzan jar daitekeelarik. Arruntenetako bat garatxoaren sendaketa sinpatikoa da, zeinaren eraginkortasuna berretsi zuen, esperientzia propioz, Verulameko Bacon arretatsu eta enpirikoak (*Silva silvarum* § 997); gainera hain sarria den disipularen araoketa arrakastarekin egina ere hor dugu, erraza gertatzen delarik horretaz komentzitzea: halaber sukarrarena ere maiz lortzen da eta abar<sup>40</sup>. -Ez du inolako azalpenik behar, orain arte magnetismoaz esandakoaren ondoren, hemen zinezko *agens*-a ez direla zentzurik gabeko hitz eta zeremoniak, baizik eta magnetizatzean, sendaketa egiten duenaren nahimena delakoak. Sinpatiazko sendaketen adibideak Kieserren "Animala magnetismoaren Artxiboa-n" aurkitzen dira 5. bol., 3. koad., 106. or.; 8 bol., 3. koad., 145. or.; 9. bol., 2. koad., 172. or., eta 9. bol., 1. koad., 128. or. "Bitarteko eta sendaketa sinpatikoak", 1842, **Most** doktorearen liburua ere erabilgarria da gai horren lehen ezagupidea izateko<sup>41</sup>. -Horrela, bada, bi gertakari hauek, animala magnetismoa eta sendaketa sinpatikoak enpirikoki ziurtatzen dute fisikoari kontrajarritako egintza magikoaren ahaltsuna, joan den mendeak hain biribil errefusatu zuena, fisikoa, lokarri kausal kontzebigarriak sortutako efektua besterik ahalgarritzat onartu nahi izan ez zuelarik.

Inguruabar zorionsua da, gure egunotan gauzak ikusteko modu horren berrespena medikuen zientziazatik irten izana, zeren horrek bermatu egiten baitu iritziaren penduluak alderantzizko zentzuan bultzada handi bat hartuko ez duelakoa eta garai zakarretako superstizioan berriro itzuliko ez garelakoa. Ez da, ordea, esan denez, magiaren parte bat animala magnetismoaren eta sinpatiazko sendaketen bitartez salbatu dena: oraindik askoz gehiago besarkatzen zuen, zeinaren parte handi bat epai kondenatzaileek hedatuki menperatu zuten edo haren baitan jarri zuten, beste parte bat, ordea, animala magnetismoarekin zuen analogiarengatik gutxienez ahalgarritzat jo izan zela. Animala magnetismoak eta sendaketa sinpatikoak osasuna zuzpertzten duten inpresio mesedegarriak bakarrik ematen dituzte, Espainian *saludadores* deritzatenen obratzat magiaren historian aurkezten zaizkigun antzekoak (*Delrio, disq. mag. L. III. P. 2. q. 4 s. 7 - eta Bodinus, Mag. daemon: III, 2*), zeinek ere Elizaren epai kondenatzaileak jasan behar izan zituzten; aitzitik magia askoz sarriago erabiltzen zen asmo kaltegarriarekin. Analogiaren arabera, egiantzekoa baino zerbait gehiago da bere baitako indarrak, gizabanako arrotzaren baitan arartekogabe jardunez, eragin sendagarria obra dezakeenak, beraren baitan, gutxienez hainbesteko ahalmenez era kaltegarri eta deuseztailean ere obratu ahal izatea. Eta baldin magia zaharraren parteren batek nonbait errealiterik izan badu, animala magnetismo eta sendaketa

sinpatikoetara muga daitekeenaz aparte, *maleficium* eta *fascinatio* izendatzen zen hura eta sorgin-prozesu gehienetarako bide eman zuena izan zen noski. Lehen aipaturiko **Mosten** liburuan badira gertakari pare bat *maleficium* horien artean kontatu beharrekoak (40, 41. or. eta N° 89, 91 eta 97. etakoak hain zuzen ere); baita Kieserren Artxihoan ere, 9tik 12ra bitarteko bolumenetan, Bende Bensenek kontaturiko gaixoen historietan, badira batez ere txakurrei kutsatu eta hilgarri gertatu zitzaizkien gaitzen kasuak. *Fascinatio* -a jadanik Demokritok ezaguna zuela eta gertakari gisa azaldu nahi izan zuela Plutarkoren *Symposiaca quaestiones*, qu. V, 7, 6an ikusten dugu. Kontakizun horiek egiazkotzat hartzen badira, jadanik badugu sorginen krimenaren gakoa, zeren haiek suharki pertsegitzea ez baitzitekeen erabat arrazoigabea izan. Eta nahiz eta kasurik gehienetan errakuntza eta larregikeria batean oinarria izan, ez ditugu horregatik hain itsutzat jo behar geure arbasoak hainbesteko lehiaz eta hainbeste mendetan zehar ahalgarri ere ez zen krimen baten pertsegitzailatzat uste izateko. Ulergarri zaigu era berean, ikuspuntu horretatik, zergatik herriak temati egozten dizkion nonahi eta gaur egunera arte zenbait gaixotasun malefizioari (begizkoari) eta horretatik apartatzerik ez dagoen. Eta nahiz orain aldien aurrerapenak bultzatu gaituen arte kreditugabetu haren parte bat joan den mendeak uste izan zuen bezain hutsaltzat jotzera, inon ez da hemen baino beharrezkoago Nettesheimeko Agrippa, Wierus Bodinus, Delrio, Bindsfeldt eta abarren idatzietan aurkitzen ditugun bezalako gezur, engainu eta tentelkeriazko erretoilatik egiazen batzuk ateratzeko arreta apur bat. Zeren gezurra eta engainua, munduan nonahi ugari izaki, ez dute inon naturako legeak ustez bertan behera utzi eta ezabatu direnean adinako eremu librerik. Eta horregatik ikusten dugu magian egiazkoa izan litekeenaren oinarri meharraren gainean ipuin abenturatsu eta karikatura bitxienean gainean eraikinik garaiena, eta berorren ondorioz ankerkeria odoltsuenak burutzen direla mendeetan zehar; eta horretan ikusten dugu nola nagusitzen zaion gogoeta psikologikoa giza enteleguaren harmenari zentzugabekeria sinesgaitzenerako eta giza bihotzak duen prestutasuna hura ankerkeriaz zigilatzeke.

Gaur egun Alemanian ikasien artean magiari buruzko epaia aldatu duena, ez da inondik ere animali magnetismoa bakarrik; baizik eta aldaketa hori bere oinarri sakonean Kantek burututako filosofiaren eraldakuntzak prestatu du, zeinak honetan eta beste alor batzuetan ezartzen duen oinarritzko diferentzia alemaniar kulturaren eta Europako beste batzuen artean. -Sinpatia sekretu guztiez, edo efektu magikoez aurretiaz irribarre egin ahal izateko mundua erabat ulergarri aurkitu behar da. Baina hori, begirada guztiz azalekoaz begiratzen dionari bakarrik gerta lekiok, susmorik ere ez duenari enigma eta ulergaitzasunezko itsaso batean murgildurik aurkitzen garela eta ez ditugula arartekogabe ez gauzak eta ez geure burua errotik ezagutzen eta ulertzen. Honen alderantzizko iritziak egiten du ia gizon handi guztiek, garaia eta naziotasuna alde batera utzirik, superstizio-kutsu bat azaldu izana. Gure ezagutzeko era naturala gauzak beren baitan arartekogabe guri emateko modukoa izango balitz eta ondorioz gauzen erlazio eta zerikusi erabat egiazkoak, orduan baimendurik geundek *a priori* eta ondorioz baldintzagabe etorkizunaren aurrejakite oro, ausente edo hiltzorikoen, eta baita ere hildakoen agerpen oro, eta eragin magiko oro errefusatzen. Baina Kantek irakasten duenez guk ezagutzen duguna fenomeno hutsak badira, zeinen forma eta legeak beren baitango gauzetara hedatzen ez diren; beraz horrelako errefusaketa bat bistan dago garaiz lehen letorkeela, zeren apriorizkotasuna fenomenoetara bakarrik mugatzen duten legeetan oinarritzen baita, aitzitik bere baitango gauzak, zeinen artekoa izan behar duen gure barne-niak berak ere, haietaz kanpo gelditzen da. Baina beren baitango gauza horiek dira hain zuzen ere, aipaturiko prozesuak sortaraz ditzaketen erlazioak gurekiko eduki ditzaketenak, eta horietaz gero aposteriorizko erabakia itxaron behar da, aurrea hartu gabe. Ingelesak eta frantsesak prozesu horiek *a priori* errefusatzen tematzea funtsean oraindik Lockeren filosofiaren menpean daudelako da, zeinaren arabera bere baitango gauza sentsaziotik ateraz bakarrik ezagutzen dugun: ondorioz baldintzatugabetzat hartzen direlarik mundu materialaren legeak eta *influxus physicus*-a bakarrik baliaraziz. Sinesten dute, beraz, fisika batean, baina ez metafisika batean, eta ez dute "magia naturala" delakoa besterik estatuitzen, esamolde horrek "fisika naturgaindikoak" bezalako *contradictio in adjecto* bat bere baitan daukalarik, hala eta guztiz ere ezin zenbatu ahala alditan benetan erabiltzen da hura, eta azken hori berriz behin bakarrik, txantxetan, Lichtenbergekek. Herriak, aitzitik, oro har naturgaindiko eraginetarako duen fede lasterraz, bere erara adierazten du, nahiz eta sentitua bakarrik izan, hauteman eta ulertzen duguna ez beren baitango gauzak baizik eta fenomeno



soilak direlako komentzimendua. Eta hori gehiegi dela norbaitek esan ez dezan, Kanten *Ohituren Oinarriztapenerako Metafisika*-tik pasarte bat transkribatuko dut hemen: "Bada oharpen bat, zeina egiteak gogoeta sotilik eskatzen ez duen, baizik eta adimenik arruntenak egin dezakeen, nahiz eta, bere erara, judizioaren bereizketa ilun batez, berak sentimendu deitzen duenaz: oharpena da gure nahimenaz aparte gertatzen zaizkigun errepresentazio guztiek (zentzumenenak bezalakoak) ez dizkigute ematen objektuak ezagutzera, afektatzen gaituzten erara izan ezik, beren baitan zer izan litezkeen ezezagun gelditzen zaigularik, eta errepresentazio gisa horretaz denaz bezainbatean, adimenari eman diezaiokegun arreta eta argitasun zorrotzenarekin ere, **fenomenoaren** ezaguerara bakarrik iritsi ahal izango gara, inoiz ez **bere baitango gauzarenera**. Bereizketa hori egin ondoren, berez dator, fenomenoaren atzean fenomeno ez den beste zerbait, bere baitango gauza hain zuzen, aitortu eta onartu behar izatea." (3. edizioa, 105. or.)

Baldin irakurtzen bada D. Tiedemannen magiaren historia, *Disputatio de quaestione, quae fuerit artium magicarum origo*, Marb. 1787, titulupean idatzia, Gotingako Sozietateak saritua, harrigarri gertatzen da nolako saiamenaz, ezbehar guztiak gorabehera, segi dituen gizadiak alde eta aldi oro, magiaren pentsamenduak, eta hortik ateratzen da, arrazoi sakonen bat izan behar duela gizakiaren naturan, gauzetan oro har ez bada ere, hautazko apeta hutsa izan ez daitekeena. Nahiz eta magiaren definizioa ematerakoan idazleak bat ez datozen, halere funtsezko beren pentsamendua onartu beharra dago. Aldi guztietan eta herrialde guztietan nagusi izan da gorputzen lokarri kausalaren bitartez munduan alterazioak sortzeko arauzko arteaz aparte, izan bide dela erabat bestelakoa den bat, lokarri kausalean ez datzana; nondik ateratzen den itxuraz bere bitartekoak zentzugabeak agertzen direla baldin eta lehen artearen zentzuan hartzen badira, izan ere nahi den efekturako erabilitako kausaren desegokitasuna begietara nabarmentzen baita, eta bien arteko lokarri kausala ere ezinezkoa zela. Soilik hemen egiten zen aurreuposamendua zen *nexum physicum*-a oinarritzen duen kanpoko lokarriaz aparte mundu honetako fenomenoaren artean, oraindik beste bat izan behar duela, bere baitango esentziaz beste gauza guztietara hedatzen dena eta aldi berean lurpeko lokarri bat, zeinaren bidez fenomenoaren puntu **batetik** arartekogabe beste edozeinen baitan eragina izan litekeen, *nexum metaphysicum* baten bitartez; beraz, posible izan behar zuela barrutik gauzen baitan burututako egintzak, kanpotik burutzen den ohizkoaren ordeztu, fenomenoak fenomenoaren baitan duen egintza, bere baitango esentziaren bidez, bat eta bera baita fenomeno guztietan; zeren *natura naturata* garenez kausalki egintza dugunez, gai izan behar dugu halaber *natura naturans* bezala ere egintza izateko, eta une baterako mikrokosmoa makrokosmoa bezala baliaraz genezakeela; zeren nahiz eta oso finkoak izan indibiduazioaren eta bereizketaren hormak, tarteka komunikazioa, banbalinen atzetik bada ere, edo mahaiaren azpitik ezkutuko joko bezala, izaten uzteko moduan; eta argi-ikuspen sonanbulikoan **ezagutzearen** isolamenduaren ezabaketa bat gertatzen den bezala, **nahimenaren** isolamendu indibidualaren ezabaketa bat ere gerta daiteke. Horrelako ideia bat ezin liteke enpirikoki sortu, ezta esperientziaren bitartezko baieztapena ere ezin liteke izan berori garai desberdinetan zehar herrialde guztietan eutsi diona ere, zeren kasurik gehienetan kontrakoa izan bide baitu esperientzia. Beraz uste dut gizadi osoan hain orokorra, bai, eta hainbeste esperientzia kontrajarri eta giza adimen komuna gorabehera iraungigabe dirauen ideien jatorria oso sakonean bilatu behar dela, bere baitango nahimenaren oroaharen barne-sentipenean, gizakiaren barne-funtsa eta aldi berean natura osoarena ere baden nahimen horretan, eta horri lotzen zaion aurreuposamenduan, oroahal hori, behin gutxienez eta moduren batean gizabanakoak baliaraz dezakeela. Ez zen inor gai ikertu eta bereizteko zer izan zitekeen posible nahimen horretan bere baitango gauza bezala, eta zer fenomeno indibidual gisa; baizik eta besterik gabe onartzen zen, gai zela, inguruabar jakinetan, indibiduazioaren hesiak urratzeko: zeren sentipen hark setaz egiten baitzion kontra esperientziatik ateratako ezaguerari:

"Nire bularrean bizi den Jainkoa,  
gauza da nire barrena inarrostekeo,  
Nire indarren gainean dagoena,  
ez da gai kanporantz ezer mugitzeko."

Azaldutako ideia nagusien arabera, magiako saio guztietan erabilitako bitarteko fisikoa beti zerbait metafisikoaren eroale bezala hartu izan dela aurkitzen dugu; zeren, bestalde, nabarmen baitzegoen ez zezakeela inolako erlazorik izan lortu nahi zen efektuarekin: eroale horiek hitz

arrotzak, egintza sinbolikoak, figura irudikatuak, argizarizko imajinak eta abar ziren. Eta jatorrizko sentipen haren arabera, ikusten dugu eroailu horietan helarazitakoa azkenean hari korapilatzen zitzaion **nahimenaren** egintza bat zela. Horretarako abagune txit naturala aldian-aldian norbere gorputzeko mugimenduan hautematen zen nahimenaren eragin guztiz esplikaezina, eta nabarmenki metafisikoa zen: eta ez ote zitekeen hori, pentsatzen zen, beste gorputzetara ere heda? Gainera, gizabanako bakoitzean nahimena aurkitzen deneko isolamendua gainditzeko bidea aurkitzea, nahi duenaren beraren gorputzaren gainetik nahimenaren arartekogabeko eremua zabaltzea, hori zen magiaren eginkizuna.

Halere, asko falta zen oinarritzko ideia hori, itxuraz magiaren benetako sortzaile zirudiena, kontzientzia argi izatera iritsi eta *in abstracto* ezagutua izateko, eta asko falta zen oraindik magiak bere burua ulertu izateko. Antzinagoko mendeetako idazle pentsatzaile eta ikasietan bakarrik aurkitzen dugu, aipuen bidez berehala aditzera emango dudanez, **nahimenean** bertan indar magikoa dagoelako ideia argia eta zeinu eta egintza xelebreak, lagungarri dituzten hitz zentzugabeekin batera eta demonioentzako arao- eta lotura-bitartekotzat erabiltzen direnak, **nahimenaren** eroailu eta finkabide soil direla, zeinen bitartez magikoki obratu behar duen nahi izatezko egintza desira huts izateari utzi eta egintza bihurtzen den, *corpus* bat hartzen duen (Parazelsok dioenez), eta neurri bateraino nahimen indibidualaren azalpen espresua ematen zaio, zeina nahimen orokor, bere baitango nahimen gisa baliarazten duen. Zeren egintza magiko, sendaketa sinpatiko orotan, edo zernahi delakotan, kanpoko egintza (lotura-bidea), magnetizatzean ferekuak diren hori, funtsezkoena ez den hori, eroailua baizik, hori da benetako *agens* bakarra den nahimenak gorputzen munduan bere norabidea eta finkapena lortzeko eta errealitatean sartzeko erabiltzen duen eroalea: horregatik, eskuarki, ezinbestekoa izaten da. - Garai hartako gainerako idazleengan, magiaren oinarritzko pentsamendu haren arabera, irmo ezarrita ageri den xede bakarra, aukeramenaren bidez naturaren gain erabateko nagusitasuna lortzea da. Baina ezin ziren iritsi jauntasun horrek arartekogabea izan behar zuelako ideiara, baizik eta **bitartezkotzat** zeukaten. Zeren landa-erlijioek nonahi ezarri baitzuten natura jainko eta demonioen nagusitasunaren pean. Horiek beren nahimenaren arabera makurraraztea, beren zerbitzura mugiaraztea, baita behartzea ere aztiaren egitekoa zen, eta beroni egozten zioten lor zezakeen guztia; Mesmerrek berak ere hasiera batean magnetizazioaren arrakasta eskuetan zeuzkan barra magnetikoei egotzi zien bezala, egiazko *agens*-a zen bere nahimenari egotzi beharrean. Horrela hartu zuten gauza herri politeista guztietan eta horrela ulertzen dute Plotinok<sup>42</sup> eta bereziki Jamblikhok ere magia **theurgia** gisa; esamolde hori Porfiriok erabili zuen lehenik. Interpretazio hori politeismoari, aristokrazia jainkozko horri ongi zetorkiona zen, izan ere naturako indar desberdinen gaineko nagusitasuna beste hainbeste jainko eta *daimonen* artean banatzen baitzuen, zeinak, gutxienez parterik handienez, naturako indar pertsonifikatuak bakarrik ziren, eta zeinetarik aztiak zein bata, zein besteak beretzat irabazten edo bere zerbitzuan jartzen zituen. Monarkia jainkozkoan bakarrik, non natura osoa bakar bati esaneko zaion, ideia ausartegia izango zatekeen, berorrek alkartasun pribatuan sartzea, edo berorren gain nagusitasuna lortu nahi izatea. Horregatik judaismoa, kristautasuna edo islama nagusi izan ziren tokian, interpretazio horri Jainko bakarraren oroahala jarri zitzaion aurrez aurre, eta aztia ez zen ausartzen horri kontra egitera. Orduan deabruarengana, errebelde edo Ahrimanen ondorengoengana ihes egitea bakarrik gelditu zitzaion, zeinari oraindik ere ahalmenen bat egozten zitzaion naturaren gain, eta berarekin tratua egin eta horrela bere laguntza ziurtatzen zuen. Horixe zen "magia beltza". Horren alderantzizkoa, zuria, aztia deabruarekin adiskidetzen ez zenekoa zen, baizik eta Jainko bakarraren baimena eta lankidetzat bera ere, aingeruen erreguz, bilatzen zituenekoa, eta sarritan orde haren izen eta titulu hebertar arraroenak aipatuz, Adonai eta abar bezalakoak, deabruak deitu eta esanera behartzen zituen, bere aldetik ezer agindu gabe: Infernu-bortxaketa zeritzan horri<sup>43</sup>. Baina gauzaren interpretazio eta jantzidura soil horiek hainbestearaino hartzen ziren beraren esentziatzat eta prozesu objektibotzat, non iharduera propioz ez, baizik eta bigarren eskutik magia ezagutzen zuten idazle guztiek, Bodinus, Delrio, Bindsfeldt eta abarrek haren esentzia determinatzen duten esanez ez dela indar naturalen bitartezko obratzea, ezta bide naturalezkoa ere, baizik eta deabruaren laguntzazkoa. Hori izan da eta oraindik ere bada nonahi baliozko iritzi orokorra, tokian tokiko landa-erlijioek modifikatua; hori izan zen begizkoen kontrako legearen eta sorgin-prozesuena: era berean, eskuarki, zuzentzen ziren bere kontra magiaren ahalgarritasunari buruzko eragozpenak. Gauzaren

horrelako kontzepzio eta interpretazio **objektiboak** derrigor gertatu beharrekoak ziren, bai Antzinatean eta bai Erdi Aroan, Europa osoan nagusi zen eta Descartesez lehen aldiz inarrosi zuen errealismo deliberatuarengatik. Ordura arte gizakiak ez zuen ikasi espekulazioa bere barneko sakonera misteriosuetara zuzentzen, baizik eta dena kanpoan bilatzen zuen. Eta bere baitan aurkitu zuen nahimena naturaren jaun bihurtzea, hain zen ideia ausarta, non txunditu egingo zatekeen horretaz: horregatik izaki fikziozkoen jaun ere egin zuten, zeinei nagusi zen superstizioak naturaren gain ahala egozten zion, horrela hura gutxienez naturaren jaun bitartezko bihurtzeko. Gainerakoan, era guztietako *daimon* eta jainkoak beti hipostasiak izaten dira, zeinen bitartez kolore eta sekta orotako fededunek **metafisikoa**, Naturaren **atzean** dagoena, bere existentzian eta osieran esku hartuz eta horrela hura menperatuz atzemangarri bihurtzen duten. Horrela, bada, magiak daimonen laguntzaz obratzen duela esaten denean, ideia horren azpian dagoen zentzua da ez dela bide fisikozko baizik metafisikozko obratze bat, ez dela naturala, baizik eta naturaz gaindiko obratze bat. Baldin ezagutzen badugu magiaren errealitatearen alde mintzo den horretan dagoen benetako izate apurrean, hau da, animala magnetismoan eta sendaketa sinpatikoetan, nahimenaren obratze arartekogabea baizik ez dena, zeinak kanporatzen duen hemen bere indar arartekogabea nahi duen gizabanakoagandik at, beste kasu guztietan barruan bezala; eta ikusten badugu, aipu erabakior eta bikoiztasunik gabeekin laster erakutsi eta frogatuko dudanez, antzinako magian iniziatu guztiek efektu guztiak sozietatearen **nahimenetik** bakarrik ateratzen dituztela, nire doktrinaren adibide biziki enpiriko gertatuko da metafisikoa orokorrean, errepresentazioaz kanpo existitzen den bakarra, munduaren bere baitango gauza geure baitan **nahimen** izenarekin ezagutzen duguna besterik ez dela.

Horrela, bada, azti haiek pentsatzen bazuten nahimenak batzuetan Naturaren gain obra dezakeen nagusitasuna bitartezko soila, *daimonen* laguntzazkoa dela, hori ezin zitekeen inolako eragozpen izan bere egintzaren, noiznahi eta nonahi gerta zitekeela ere. Zeren gisa horretako gauzetan aktibo izaki bere baitango nahimena, bere jatorrizkotasunean eta, beraz, errepresentaziotik bereizia, ezin dute baliogabetu beren egintza enteleguaren kontzeptu faltsuek, baizik eta hemen teoria eta praktika bereizi egiten dira, haren faltsutasunak honi trabarik egin gabe, eta praktikarako teoria zehatz bat gaitu ere gabe. Mesmerrek hasiera batean bere eskuan zeraman ziritxo magnetikoari egotzi zion bere egintza, eta gero animala magnetismoaren miraria teoria materialista batez azaldu zuen, denera sartzen den jariakin fin batez, hala eta guztiz ere ahal txundigarri obratzeari utzi gabe. Ezagutu dut baserri-jabe bat, zeinaren nekazariak aspaldidanik ohiturik zeuden nagusi onberak sukarraldiak arao batez iraiztera: eta nahiz eta bera gisa horretako gauzen ezintasunaz sinetsirik zegoen, bere onberatasunez egiten zuen hori, usariozko erara, nekazariak nahi zutena, eta sarritan atarramendu onarekin, nekazarien konfidantza irmoari egozten ziolarik, eta bururatu gabe, horrelako uste sendoak arrakastatsu bihurtu behar zuela sarritan gaixo fidakorrengan alferrekikakoa zen medizina.

Alabaina, teurgia eta daimonomagia gauzaren interpretazio eta jantxidura huts baizik ez baziren, azal hutsa, gehienak horrekintxe geratzen baziren ere, ez da horregatik jenderik falta izan, barrura begiratzuz, ongi ezagutu dutenak eragin magiko batzuetan obratzen zuena **nahimena** besterik ez zela. Baina sakon ikusi zuten horiek ez ditugu magiaren arrotz eta etsaikor ere agertu ziren horien artean bilatu behar, eta hain zuzen ere horietxenak dira gaiari buruzko libururik gehienak: auzitegi eta testiguen entzutetik bakarrik magia ezagutzen duten jendeak dira, beraz, haren kanpoaldeak bakarrik deskribatzen dutenak, eta zuhurki agian aitortu zitzaizkien prozedurak berak ere isiltzen dituztenak sorginkeria bizio nardagarria ez hedatzeko. Horietakoak dira Bodinus, Delrio, Bindsfeld eta besteak. Aitzitik, superstizioa nagusi zen garai hartako filosofo eta natur ikertzaileengana jo behar dugu gauzaren benetako esentziari buruz ondorioak bilatu nahi baditugu. Horien esaldietatik agertzen da beste inondik baino argiago magian, animala magnetismoan bezala benetako *agens*-a **nahimena** besterik ez dela. Hori frogatzeko aipu batzuk eman beharrean nago<sup>44</sup>. Bereziki, ordea, **Teofraсто Parazelso** da magiaren barneko esentziaz argibide gehien ematen dituenen, beste edozertaz eman ditzakeenez eta ez da beldurtzen bere prozedurak deskribatzeaz (bi folio-tomotan Strassburgen argitaratutako bere idaztien arabera, 1603) Bol. 1, 91, 353 hh. eta 780 orr. - Bol. 2, 362, 496 orr. - Bol 1, 19. orrialdean dio: "Argizarizko irudietan ohartzen gara horretaz; horrela, neure nahimenean beste baten kontrako etsaigoa badaramat, *medium*, hau da, gorpuz baten

bitartez burutu behar du etsaigoak. Litekeena da, beraz, nire izpirituak, gorputzaren laguntzarik gabe, neure ezpataren bitartez beste bat zulatu edo zauritzea neure **barneko gurariz**. Litekeena da, halaber, nik neure **nahimenaren** bitartez neure arerioaren izpiritua irudira ekartzea eta bertan bihurritu eta habailtzea neure gogara. -Jakín behar duzue, nahimenaren egintza puntu handia dela medikuntzan. Zeren bere buruari ezer onik opa ez eta gorrotoa dionari, litekeena baita, bere burua madarikatuz opa dion hori gertatzea. Izan ere madarikazioa izpirituaren epaiz baitator. Era berean, litekeena da gaixotasunetan irudiak arautzea eta abar... Efektu bera lortzen da abereengan ere, eta haietan gizakiarengana baino askoz errazago, zeren gizakiaren izpiritua hobeki defendatzen baita abereena baino."

375. orrialdean: "Horretatik segitzen da irudi batek bestea sorgintzen duela: ez karakterearen indarrarengatik edo antzeko zerbaitengatik, argizari birjinaren bitartez, baizik eta imajinazioak bere konstelazio propioa gainditzten duela, bere zeruaren, hau da, gizakiaren nahia betetzeko bitarteko bihurtzen dela."

334. orrialdean: "Gizakiaren imajinatze oro bihotzetik dator: bihotza da eguzkia mikrokosmoan. Eta gizakiaren imajinatze oro mikrokosmoko eguzki txikitik mundu handiko eguzkira doa, makrokosmoaren bihotzera. Horrela mikrokosmoaren imajinazioa materialtzen den hazi bat da eta abar".

364. orrialdean: "Aski ezaguna zaizue zer egiten duen imajinazio zorrotzak, obra magiko ororen hasiera baita".

789. orrialdean: "Horrela nire pentsamendua ere helburu baten ikuspena da. Baina ez dut haizu begia neure eskuez hara bihurtzea; baizik eta imajinazioak bihurtzen du nahi dudana aldera. Horrela ulertu behar da ibiltzea ere: desiratzen dut, proposatzen dut, eta mugitzen da nire gorputza, eta zenbat eta ziurragoa nire pentsamendua, hainbat eta ziurragoa korrika egingo dudala. Horrela imajinazioa bakarrik da nire korrikaren mugiarazlea."

837. orrialdean: "Imajinazioa, nire kontra erabiltzen dena, hain zorrozki erabil daiteke non beste baten imajinazioz hil naitekeen."

2. bol., 274. orrialdean: "Imajinazioa gurari eta irrikatik sortzen da: gurariak inbidia, gorrotoa ematen du, zeren gerta ez daitezen guraria baituzu. Eta guraria baduzu, orduan imajinazioaren obra ere jarraitzen zaio. Gurari horrek lasterra, gutziatsua, suharra izan behar du, haurdun dagoen emakumearena bezalakoa eta abar. -Madarikazio komuna eskuarki egia bihurtzen da: zergatik? Bihotzetik irteten delako: eta bihotzetik-irtetea datza eta sortzen da hazia. Aitaren eta amaren madarikazioak ere bihotzetik irteten dira. Jende behartsuaren madarikazioa ere imajinazio da eta abar. Presoaren madarikazioa ere, imajinazio baizik ez dena, bihotzetik irteten da. ... Horrela, bada, batek bere imajinazioaz bestea zastakatu, elbarritu, etab., nahi badu, lehenik gauza eta tresna bere barrura erakarri behar du, hala agian sar dezake orduan, zeren barrura datorrena gero berriz kanpora baitaiteke, eskuez gertatuko balitz bezala pentsamenduaren bitartez, ... Emakumeek gainditu egiten dituzte gizonak imajinatze horretan: ... amorruan suharragoak baitira."

298. orrialdean: "Magia jakituria ezkutu handi bat da; arrazoimena ageriko zoramen handi bat den bezala. ... Aztiaren kontra ez du ezein armadurak babesten, zeren barneko gizakia, biziaren izpiritua zauritzen baitu. ... Azti batzuek gogoan duten gizaki baten itxurarekin irudia egiten dute, eta orratza sartzen diote oinzoletan: gizakia ikustezinki erasanik eta habaildurik gelditzen da, orratza atera arte."

307. orrialdean: "Jakín beharra daukagu, fedeaz eta geure imajinazio indartsuaz, gizaki jakín baten izpiritua irudi batera ekar dezakegula. ... Ez da inolako araorik behar, eta zeremoniak, zirkuluak egitea, larrutaria, zigiluak eta abar tximino-jokoak eta sedukzioak besterik ez dira. -Homunkulu eta irudiak egiten dira eta abar...eta horietan burutzen dira gizakiaren eragiketa, indar eta nahimenak. ... Gauza handia da gizakiaren gogamena, inork adieraz ez dezakeena: Jainkoa bera betiereko eta iraungiezina den bezala, baita gizakiaren gogamena ere. Guk, gizakiok, geure gogamena ongi ezagutuko bagenu, ezer ez litzaiguke ezinezko izango lurrean. ... Astroetatik datorren imajinazio perfektua gogamenean jaiotzen da."

513. orrialdean: Imajinazioa berretsi eta osatu egiten da egiazki gertatuko den fedeaz, zeren zalantza orok hautsi egiten baitu obra. Fedea sendotu egin behar du imajinazioa, zeren fedea errebertxatu egiten baitu nahimena. ... Baina gizakiak beti perfektuki ez imajinatzeak, perfektuki ez sinesteak egiten du arteak ziurrez deitu behar izatea, nahiz eta ziurrak eta erabat egokiak

izan." -Azken pasarte honen argibidetzat Campanellaren *de sensu rerum et magia* liburuko eman aipu batek balio dezake: "*Efficiunt alii ne homo possit futuere, si tantum credat: non enim potest facere quod non credit posse facere.* (L. IV, c. 18.)

Zentzu berean mintzo da Agrippa Nettesheimeko *De occulta philosophia Lib. I, c. 66*: "*Non minus subjicitur corpus alieno animo, quam alieno corpori*; eta c. 67: "*Quidquid dictat animus fortissime odientis habet efficaciam nocendi eta destruendi; similiter in ceteris, quae affectat animo fortissimo desiderio. Omnia enim quae tunc agit et dictat ex characteribus, figuris, verbis, gestibus eta ejusmodi, omnia sunt adjuvantia appetitum animae et acquirunt mirabiles quasdam virtutes, tum ab anima laborantis in illa hora, quando ipsam appetitus ejusmodi maxime invadit, tum ab influxu coelesti animum tunc taliter movente.*" - c. 68: "*Inest hominum animis virtus quaedam immutandi et ligandi res et homines ad id quod desiderat, et omnes res obediunt illi, quando fertur in magnum excessum alicujus passionis, vel virtutis, in tantum, ut superet eos, quos ligat. Radix ejusmodi ligationis ipsa est affectio animae vehemens et exterminata.*"

Gauza bera dio Julio Zesar Vaninnok, *De admir. naturae arcan. L. IV. dial. 5. 435.* orrialdean: "*Vehementem imaginationem, cui spiritus eta sanguis obediunt, rem mente conceptam realiter efficere, non solum intra, sed et extra 45*".

Era berean mintzo da **Joh. Bapt. van Helmont**, zeina gogor ahalegindu den deabruaren eragina magian ahalik eta gehien gezurtatzen, nahimenari egozteko. *Ortus medicinae* bere obren bilduma handitik pasarte batzuk aipatuko ditut, idatzi bakoitzaren berri emanez:

**Recepta injecta** §. 12. *Quum hostis naturae (diabolus) ipsam applicationem complere ex se nequeat, suscitatur ideam fortis desiderii et odii in saga, ut, mutuatis istis mentalibus et liberis mediis, transferat suum velle per quod quodque afficere intendit 47. Quorsum imprimis etiam execrationes, cum idea desiderii et terroris, odiosissimis suis scrofis praescribit.* - §.13. *Quippe desiderium istud, ut est passio imaginantis, ita quoque creat ideam, non quidem inanem, sed executivam atque incantamenti motivam.* - §. 19. *prout jam demonstravi, quod vis incantamenti potissima pendeat ab idea naturali sagae.*

**De injectis materialibus.** § 15. *Saga, per ens naturale, imaginative forma ideam libeam, naturalem et nocuam.* - *Sagae operantur virtute naturali.* - *Homo etiam dimittit medium aliud executivum, emanativum et mandativum ad incantandum hominem; quod medium est Idea fortis desiderii. Est nempe desiderio inseparabile ferri circa optata.*

**De sympatheticis mediis.** §. 2. *Idae scilicet desiderii, per modum influentiarum coelestium, jaciuntur in proprium objectum, utcunque localiter remotum. Diriguntur nempe a desiderio objectum sibi specificante.*

**De magnetica vulnerum curatione.** §. 76. *Igitur in sanguine est quaedam potestas exstatica, quae, si quando ardenti desiderio excita fuerit, etiam ad absens aliquod objectum, exterioris hominis spiritu deducenda sit: ea autem potestas in exteriori homine latet, velut in potentia; nec ducitur ad actum, nisi excitetur, accensa imaginatione ferventi desiderio, vel arte aliqua pari.* - §. 98. *Anima, prorsus spiritus, nequaquam posset spiritum vitalem (corporeum equidem), multo minus carnem et ossa movere aut concitare, nisi vis illi quaepiam naturalis, magica tamen et spiritualis, ex anima in spiritum et corpus descenderet. Cedo, quo pacto obediret spiritus corporeus jussui animae, nisi jussus spiritum, et deinceps corpus movendo foret? At extemplo contra hanc magicam motricem objicies, istam esse intra concretum sibi, suumque hospitium naturale, idcirco hanc etsi magam vocitemus, tantum erit nominis detorsio eta abusus, siquidem vera eta superstitiosa magica non ex anima basin desumit; cuam eadem haec nil quidquam valeat, extra corpus suum movere, alterare aut ciere. Respondeo, vim eta magicam illam naturalem animae, quae extra se agat, virtute imaginis Dei, latere jam obscuram in homine, velut obdormire (post praeveraricationem), excitationisque indigam: quae eadem, utut somnolenta, ac velut ebria, alioqui sit in nobis quotidie: sufficit tamen ad obeunda munia in corpore suo: dormit itaque scientia eta potestas magica, et solo nutu actrix in homine.* - §. 102. *Satan itaque vim magicam hanc excitat (secus dormientem et scientia exterioris hominis impremitam) in suis mancipiis, et inservit eadem illis, ensis vice in manu potentis, id est sagae. Nec aliud prorsus Satan ad homicidium affert, praeter excitationem dictae potestatis somnolentae.* - §. 106. *Saga in stabulo absente occidit equum: virtus quaedam naturalis a spiritu sagae, et non a Satana, derivatur, quae opprimat vel strangulet spiritum vitale equi.* - §.

139. *Spiritus voco magnetismi patronos, non qui ex coelo demittuntur, multoque minus de infernalibus sermo est; sed de iis, qui fiunt in ipso homine, sicut ex silice ignis: ex voluntate hominis nempe aliquantillum spiritus vitalis influentis desumitur, et id ipsum assumit idealem entitatem, tanquam formam ad complementum. Qua nacta perfectione, spiritus mediam sortem inter corpora et non corpora assumit. Mittitur autem eo, quo voluntas ipsum dirigit: idealis igitur entitas - - - nullis stringitur locorum, temporum aut dimensionum imperiis, ea nec daemon est, nec ejus ullus effectus; sed spiritualis quaedam est actio illius, nobis plane naturalis et vernacula. - §. 168. Ingens mysterium propalare hactenus distuli, ostendere videlicet, ad manum in hominem sitam esse energiam, qua, solo nutu et phantasia sua, queat agere extra se et imprimere virtutem aliquam, influentiam deinceps perseverantem, et agentem in objectum longissime absens.*

P. Pomponazzik ere (*De incantationibus. Opera Basil. 1567. p. 44*) badio: "Sic contigit, tales esse homines, qui habeant ejusmodi vires in potentia, et per imaginativam et desiderativam cum actu operantur, talis virtus exit ad actum, et afficit sanguinem et spiritum, quae per evaporationem petunt ad extra et produciunt tales effectus.

Gisa honetako ondorio oso ohargarriak eman dituen **Jane Leade** da, **Pordargerren** ikaslea, teosofo mistikoa eta bisionaria Ingalaterran, Cromwellen garaietan. Oso bide berezi batetik iritsi zen magiara. Mistiko guztien oinarritzko ezaugarria norbere nia Jainkoarekin bategiten irakastea denez, berdin egin zuen **Jane Leadek** ere. Baina berak dioenez giza nahimena jainkozkoarekin bategitearen ondorioz, honen oroahalean partaide dela, horrela botere magikoa lortuz. Beste azziek deabruarekiko itunaren ondoriozkoztat zeukatena, berak Jainkoarekin bategiteari egozten dio, bere magia zentzurik gorenean magia zuria delarik. Gainerakoan horrek ez du alderik sortzen ez emaitzetan eta ez praktikan. Jane barnekoi eta misterioetsua zen, bere garaiari zegokionez, baina, halere, nabari da hori ez zela korolario teoriko soil bat, baizik eta geroko ezaguera eta esperientzietatik sortua zela. Pasarte nagusia bere *Agerkunde*en *agerkunde*-n dago, eta batez ere "nahimen abandonatuaren ahala" deskribatzen duen orrialdean. Liburu horretatik aipatzen du **Horstek** magiari buruzko bere bibliotekan vol. 1, 325. orrialdean ondorengo pasarte hitzez hitzeko aipua baino laburbilduma areago dena, eta nagusiki 119. orrialdeko §.87 eta 88tik jasorik dagoena: "Indar magikoak bere jabe dena sorkuntza, hau da, landare, animalia eta mineralen erreinua menperatu eta berrizatzeko egoeran jartzen du; beraz, **asko** badira lankide indar magiko **bakarrean** Natura paradisuzko bihur liteke. ... Nola iristen gara indar magiko horretara? Jaiotza berrian fedearen bitartez, hau da, gure **nahimenak** jainkozko **nahimenarekiko** duen adostasunaren bitartez. Zeren fedea mundua azpiratzen baitigu, gure **nahimenak** jainkozkoarekiko duen adostasunak ondoriotzat duen heinean, Paulok dioenez, dena gurea eta gure esaneko izatea." Honeraino **Horst**. -Jane Leaderren aipaturiko obran aditzera ematen da Kristok bere nahimenaren ahalez burutu dituela mirariak, legendunari esatean: "**Nahi** dut, garbi gera zaitez". Batzuetan, ordea, beragan fedea zutela konturatzen zen eta haien nahimenaren baitan uzten zuen, "zer **nahi** duzue egin dezadan?" esaten zien bitartean, zeren ez baitzukeen beraiegan gutxiago obratuko jaunak beraientzat beren nahimenean egitea nahi zutena baino. Merezi du gure Salbatzailearen hitz horiei ohar gakizkien, **magia gorena nahimenean dagoenez gero**, Txit Gorenaren nahimenarekin elkartasunean jartzen den heinean, eta bi gupil horiek batera badoaz eta aldi berean bat badira, orduan dira eta abar. 132. orrialdean dio: "Zeren Jainkoarekin bat eginik dagoen nahimenari zer kontrajar lekiok? Horrelako nahimena hainbesteko ahalarekin dago, non erabat bere asmo guztiak betetzen dituen. Ez da **inolako nahimen biluzi**, bere jantziaren, indarraren faltan dagoena; baizik eta indar gaindiezina darama, zeinaz erauzi eta landatu, hil eta bizia eman, lotu eta askatu, sendatu eta kalte egin dezakeen; ahal horrek libre jaiotako errege-nahimenean dena kontzentratu eta biltzen du, eta ahal hori Izpiritu Santuarekin bat egin ondoren edo berarekin izpiritu eta esentzia batean elkartutakoan bakarrik ezagutuko dugu." 133. orrialdean dio: "Nahimen ugari eta askotarikoak, arimaren esentzia nahastutik jaioko direnak, ito edo zanpatu egin behar ditugu, eta sakonera amildegizkoetan galdu, nondik irten eta sortuko den **nahimen birjina**, inoiz ezeren morroi izan ez dena, baizik eta erabat libre eta garbi, indar ahalorodunarekin harremanetan dagoena, eta hutsik egin gabe beraren antz-antzeko fruitu eta ondorioak ekarriko dituen, ... nondik Izpiritu Santuaren olio irazekia **magiak** bere baitatik jaurtitzen dituen txingarretan sutzen duen."

**Jakob Böhmek** ere bere "Sei puntuen argibidea-n", V. puntuan magiaz hitz egiten du azaldutako zentzuan. Besteak beste dio: "Magia da esentzia guztien esentziaren ama, zeren bere burua egiten baitu eta **gurarietan** ulertzen da. -Magia zuzena ez da ezein esentzia, baizik eta esentziaren **izpiritu gurarizkoa**. -*In Summa*: magia **nahimen** izpirituan obratzea da." Nahimena magiaren egiazko *agens*-a delako ikuspuntuaren berrespen edo, edozein kasutan, azalpen gisa anekdota bakan eta bitxi bat sar daiteke hemen, **Avizenagandik** hartuz Campanellak *De sensu rerum eta magia*, L. IV, c. 18an kontatzen duena: "*Mulieres quaedam condixerunt, ut irent animi gratia in viridarium. Una earum non ivit. Ceterae colludentes arangium acceperunt et perforabant eum stilis acutis, dicentes: ita perforamus mulierem talem, quae nobiscum venire detrectavit, et, projecto arangio intra fontem, abierunt. Postmodum mulierem illam dolentem invenerunt, quod se transfigi quasi clavis acutis sentiret, ab ea hora, qua arangium ceterae perforarunt: et cruciata est valde donec arangii clavos extraxerunt imprecantes bona et salutem.*"

**Krusensternek** *Munduarien inguruko bidaia*, 12. ed. 1812, 1. atala, 249 orr. eta hh.etan sorginkeria hiltzailearen deskribapen oso ohargarri eta xehea eskaintzen digu, zeina batzuetan arrakastarekin burutzen duten Nuckahiwa irlako basokoen apaizek, eta zeinen prozedurak sinpatiazko gure sendaketarenaren antz-antzekoak diren<sup>48</sup>. Bereziki ohargarria da, zeren hemengo gaia, europar tradizio orotik urrun dagoelarik, orokorrean gauza bera bezala agertzen baita. Konpara bedi berorrekin, batez ere **Bende Bendsenek** animalia magnetismorako Kieserren Artxiboan, bol. 9, 1. atalean, 128-132. orrialdeetako oharrean buruko minez kontatzen duena, nola berak beste bat berari moztutako ileekin sorgindu zuen; eta honela amaitzen du oharra: "Sorginkeriako artea deitua, nik hartaz dudana esperientzian, **nahimenaren efektu txar batekin** elkaturik kalterako obratuko duen bitarteko magnetiko bat prestatzea eta ezartzea besterik ez da; hori da Satanekiko ituna." Idazle guzti hauen adostasuna, bai beren artean, eta bai azken garaiotan animalia magnetismoak sortu dituen komentzimenduekiko, eta baita zentzu horretan nire doktrina espekulatibotik atera diren ondorioekiko oso fenomeno ohargarria da. Kontua da arrakastarekin edo gabe, egin diren magiazko saio guztiei oinarri izateko balio die nire metafisikaren aurrerapenak, beraietan kausalitate-legea fenomenoaren lokarria besterik ez dela, hartatik aparte gelditzen delarik gauzen beren baitango esentzia, eta litekeena bada naturaren gain egintza **arartekogabe** bat, barrutik **nahimenaren** beraren bitartez bakarrik burutu daiteke. Baconen sailkapenaren arabera, magia metafisika praktikotzat hartu nahiko balitz, orduan ziurra litzateke bere erlaziora hobekien moldatzen den metafisika teorikoa mundua errepresentazio eta nahimen hartzen duen nire ebazpena litzatekeela eta ez besterik.

Elizak garai guztietan magia pertsegitu izan dueneko suhar krudela, eta zeinaren Aitasantuaren *malleus maleficarum*-ek lekukotasun ikaragarria ematen duen, ez dirudi hartan sarri elkartzen ziren asmo gaizkileetan bakarrik zetzanik, ezta deabruari bertan suposatzen zitzaion zereginetan ere; baizik eta parte batean magiak lehen indarra bere iturburu egiazkora bihurtzen zuelako susmo eta kezka ilun batetik sortzen zen, Elizak berari naturaz kanpoko leku bat izendatu zionean<sup>49</sup>. Suposamendu hori berretsi egiten du apezzeria ingeles aurrearduratzailleak animalia magnetismoari<sup>50</sup> dion gorrotoak ere, baita mahai birakari errugabeekiko agertu izan duen suhar biziak ere, zeinen kontra, arrazoi beragatik, beren anatemak jaurtitzeari Frantziakoak eta Alemaniakoak berak ere utzi ez dion<sup>51</sup>.

# SINOLOGIA

Ezer ez da arartekogabeago mintzo Txinako zibilizazioaren egoera garaiaz, nola bere populazioaren trinkotasun ia sinestezina, zeina, Gützlaffen datuen arabera, jadanik 367 milioi biztanletan jo daitekeen<sup>52</sup>. Izan ere, garaiak eta herrialdeak erkatzen baditugu zibilizazioa eta populazioa batera doazela ikusten baitugu.

17. eta 18. mendeetako misiolari jesuitak, konparatiboki berria zen beren fedezko doktrina antzina-antzinako herri hari eramateko suhar bizian, eta bertan beste fede goiztiarrago baten aztarnak bilatzeko ahalegin alferrean, ez ziren iritsi bertan nagusi zena funtsez ezagutzera. Hortik dator Europak gure egunotara arte Txinako erlijio-egoeraz ezaguerarik ez izana. Badakigu, esaterako, badagoela Naturaren kultu nazional bat, guztiek gurtzen dutena, eta garairik antzinakoenetatik datorrena, uste denez oraindik sua aurkitu gabe zegoen garaietatikoa, zeren animali sakrifizioak gordinik eskaintzen baitziren. Kultu horretakoak dira enperadoreak eta dignatari handiek, sasoi jakinetan, eta gertakari handien ostean ageriki eskaintzen dituztenak. Batez ere zero urdinari eta lurrari eskaintzen zaizkio, hari neguko solstizioan eta honi udakoan, eta gero Naturako potentzia posible guztiei, hala nola itsasoari, mendiei, ibaiei, haizeari, ostotsari, euriari, suari eta abarri, zeinetako bakoitzaren aurrean jeinu bat dagoen, ezin zenbatu ahala tenplo dituen; bestalde badituzte horrelakoak probintzia, hiri, herri, kale, familia-ehortzoki bakoitzak, eta merkatari-ganga bakoitzak ere badu bere aurrean jeinua; azken horiek kultu pribatua bakarrik hartzen dute. Gainera, behialako enperadore handiari dinastien sortzaileei eskaintzen zaie ageriko kultua, baita heroiei ere, hau da, doktrinaren edo egintzaren bitartez gizadi (txinatarraren) ongile izan direnei. Horiek ere badituzte tenploak: Konfuziok berak bakarrik 1.650 ditu. Hortik dator hainbeste tenplu txiki izatea Txina osoan zehar. Heroien kultu pribatu horri lotzen zaio familia jator bakoitzak beren aurrekoei, hilobien gainean, eskaintzen diena. -Naturaren eta heroien kultu orokor honetaz aparte, eta ikuspegi dogmatikoago batekin, hiru erlijio-doktrina daude Txinan. Lehenik, **Taosseearena**, Laotse, Konfuzioren garaikide zahar batek sortua. Arrazoimenaren doktrina da, barneko mundu-ordena edo gauza guztien barneko printzipio, Bat handia, gapirio guztiei eusten dien eta, halere, gainean dagokien habe nagusia (**taiki**) (egiazki dena barrentzen duen mundu-arima), eta Taoaren doktrina, hau da, osasunerako **bidearena**, hau da, munduaren eta bere saminaren salbamenerakoa. Doktrina horren azalpen bat, bere iturritik **Stanislas Julienek** eskuratu digu 1842an, **Laotseu Taoteking**-aren itzulpenean; hartatik ikusten dugu Tao doktrinaren zentzua eta izpiritua guztiz bat datorrela budismoarenarekin. Halere, badirudi sekta hori oso bazterturik dagoela eta bere doktrina **Taosseea** gutxietsirik aurkitzen dela. -Bigarrenik, Konfuzioren jakituria aurkitzen dugu, zeinari batez ere ikasi eta merkatariak datxezkion: itzulpenetatik epaitu behar bada filosofia moral, arrunt, zabal eta nagusiki politikoa da, metafisika sostengatzailerik gabea, zeinak duen zer bait aspergarri eta zozoa bere baitan. -Azkenik, nazioko masa handiarentzat, hor dago Budaren doktrina jaso eta maitakorra, zeinaren izena edo, hobeki esateko titulua, Txinan **Fo** edo **Fuh** adierazten den, aldiz garaikor-bikaina gehiago deitzen da Tartarian, bere familia-izenaren arabera, Shakiamuni, eta birmanoen artean Burkhan-Bakshi eta Zeylanen batez ere Gótama eta Tatágata, baina jatorriz Siddharta printzea deitzen zitzaion<sup>53</sup>. Erlijio hori, bere barne-bikaintasunarengatik, eta dituen fededunen kopuru ugariarengatik, munduko gailenentzat jo behar dena, Asiaren parte handiengan da nagusi eta Spence Hardy, bere ikertzailerik modernoenaren arabera, 369 milioi fededun ditu, beraz beste edozeinek baino askozaz gehiago. -Txinako hiru erlijio horiek, zeinetarik hedatuena budismoa den, estatuaren inolako laguntzarik gabe eusten diote beren buruari, eta horrek asko esan nahi du beren alde, oso urrun daude elkarren kontra borrokan ibiltzetik, aitzitik, bakean bizi dira elkarrekin, eta areago oraindik, agian elkarrekiko eraginez badute batabestearekin halako adostasun bat, halako molde, non esatera zaharra den "hiru doktrinak bat bakarria direla". Enperadoreak, halako den heinean, hirurak aitortzen ditu; enperadore asko, azken aldietaraino, budismoari bereziki atxikiak izan dira; horregatik bere errespetu sakona Dalai-Lamaren aurrean eta baita Teshu-Lama beraren aurrean ere aitortu izan dute, zeinari inolako zalantzarik gabe lehentasuna onartzen dioten. -Hiru erlijio horiek ez dira ez monoteistak, ez politeistak eta, budismoa gutxienez, ezta panteista ere, zeren Budak ez baitu teofaniatzat hartu bekatuan eta sufrimenduan murgilduriko mundua, nongo izakiak, heriotzan eroriak, une labur batez bakarrik dirauten, bata



bestea irensten duen bitartean. Orokorrean panteismo hitzak kontraesan bat dauka bere baitan, zeren bere burua gainditzen duen kontzeptu bat izendatzen baitu, eta horregatik, benetan ulertzen dutenek esamolde kunplitu bat bezala bakarrik har dezakete; beraz, joan den mendeko filosofo zorrotz eta burutsuei ere ez zitzaion otu Spinoza ateotzat hartzerik munduari *Deus* deitzeagatik; aitzitik, gure garaiotako txantxazko filosofoen, hitzak bakarrik ezagutzen dituztenen egitekoa izan da, ateo izan ez zelako eta akosmismoaren aurkikuntza hori: txantxetari halakoak! Baina nik aurreko bat ezartzeko asmorik gabe aholkatuko nuke besterik esan nahi denean, beste izen bat ere erabiltzeko, munduari mundu eta jainkoei jainko deituz.

Europarrak, Txinako erlijioaren egoeraz berriak biltzen ahalegintzen direnean, horretarako ohizkoa denez eta lehenago, antzeko inguruabarretan, grekoek eta erromatarrek egin dutenez, haiek beren etxeko fedearikiko dituzten ukipen-guneetatik abiatuz egin dute hori. Eta nola beren pentsamoldean erlijioaren kontzeptua teismoarekin ia identifikatzen den, edo gutxienez hain hurbil hazi diren, non hartatik erraz bereizten ez den, eta Asiaren ezaguera zehatza lortu baino lehen European *e consensu gentium* argudioaren xederako, munduko herri guztiek Jainko bakarra, edo gutxienez Jainko goren eta sortzaile bakar bat gurtzen zutelako iritzi faltsua barreiatu zen<sup>54</sup>, eta herrialde batean aurkitu zirenean tenpluak, apaizak, komentu mordoak eta erlijiozko usuarioak praktika sarrian, beren aurriritzi irmotik, han ere teismoa aurkitu behar zela ondoriotu zuten, nahiz eta era arrotzean izan. Baina gero beren itxaropena huts egina ikustean halako gauzari buruz ideiarik ez zutela, ezta hitzik ere hura adierazteko, naturala zen, ikerketak egiten zituzteneko izpirituaren arabera, erlijio haiei buruzko beren lehen berria areago egotea ez zeukatenean haien eduki positiboan baino, zeinean zaila izan behar baitzuen orientatzea europar buruentzat, batipat, eta arrazoi askorengatik, adibidez, baikortasunean heziak direlako eta han existentzia bera ere gaizkitzat hartzen da eta mundua saminaren eszenatokitzat, zeinean ez aurkitzea hobe litzatekeen. Hori gertatzen zen, gainera, nola budismoak hala hinduismoak funtsezkoa duten idealismoarengatik, ikuspuntu hori, European zenbait filosofo eskerbaren paradoxa seriotan nekez har litekeentzat jotzen dena, Asian herri-fede izateraino mamitu da, zeren Hindostanean orokorra baita **Mayaren** doktrina gisa, orokorra da Tibetean ere, Eliza budistaren egoitza nagusian, eta hainbesteraino da herritarra, non ospakizun handi batean komedia erlijiozko bat antzesten den, zeinean Dalai-Lama artzadeabruarekin eztabaidan agertzen den: hark idealismoa defendatzen du, honek errerealismoa, besteak beste, honako hauek esanez: "Ezaguera ororen bost iturrietatik (zentzuetatik) hautematen dena ez da lilura, eta zuk irakasten duzuna ez da egia." Eztabaida luzearen ondoren azkenean auzia dadotara jokatzu erabakitzen da: errerealistak, hau da, deabruak, galdu egiten du eta guztien iseka artean pertsegitzen dute<sup>55</sup>. Pentsamolde ororen oinarritzko diferentzia hori kontutan hartzen bada desenkusagarritzat joko da eta naturaltzat ere bai, europarrek Asiako erlijioak ikertzean, aurrena alderdi negatiboak, gauzari arrotzak zitzaizkion puntuei begi ematea, eta horregatik haiei buruzko datu mordo batekin, baina ezaguera positiborik ematen ez digutenekin aurkitzen gara, datu guzti horiek budista eta txinatarrei orokorrean arrotz zaien monoteismora mugatzen direlarik, juduena bakarrik baita doktrina hori. Esaterako *Lettres édifiantes*-en (*édit. de 1819, Vol. 8, p. 46*) esaten da: "budistak, zeinen arimen transmigrazioari buruzko iritzia orokorki onartua izan den, ateismoz errudun jotzen dira" eta *Asiatic Researches*-en (Vol. 6, p. 225) "Birmanoen erlijioak (hau da, Budismoak) nazio bezala aurkezten digu, zeina jadanik ongi pasatu den bizimodu basaren zakartasunetik, eta bizitzako egintza guztietan iritzi erlijiosoen oso menpean aurkitzen den, baina, halere, Izaki Gorenaren, munduaren sortzaile eta iraunarazlearen ezaguerarik ez du. Guztiarekin ere, bere alegiek gomendatzen duten sistema morala agian giza generoan predikatzen diren beste erlijio-doktrinen arteko beste edozeinenak bezain onak dira." - Toki berean, 258 orrialdean, dio: "Gotamaren (hau da, Budaren) jarraitzaileak, zehatz hitz egiteko, ateoak dira." - Toki berean, 180. orrialdean: "Gotamaren sektak mundua sortu duen izaki jainkozko batean sinestea guztiz dongetzat (*impious*) dauka". - Toki berean, 268 orrialdean, Buchananek kontatzen du Zaradoak, Avako budisten apaiz nagusiak, Atulik bere erlijioari buruzko idatzi batean, zeina apezpiku katoliko bati eman zion, "sei heresia kondanagarrien artean mundua eta gauzak sortu dituen izaki bat dagoelakoa eta gurtua izateko duina den bakarra delakoa sartzen zuen." Erabat gauza bera kontatzen du **Sangermanok** bere *Description of the Burmese Empire*, Rome 1833, 81. orrialdean, eta sei heresia txarrenen aipamena hitz hauekin amaitzen du: "iruzurgile horietako azkenak irakasten zuen izaki goren

bat dagoela, munduaren eta bertan dauden gauza guztien sortzailea, eta hori bakarrik dela duin gurtua izateko" (*the last of the impostors taught that there exists a Supreme Being, the Creator of the world and all things in it, and he alone is worthy of adoration*). Colebrook-ek ere, bere *Transactions of the R. Asiat. Society*, Vol. 1ean eta baita bere *Miscellaneous essays*-en inprimaturiko *Essay on the philosophy of the Hindus*, 236 orrialdean dio: "Jaina eta Budaren sektak egiazki ateoak dira, munduaren sortzailerik edo probidentzia goren gobernatzailerik ezagutzen ez duten heinean." -Gauza bera dio J. J. Schmidt-ek ere *Mongol eta tibetarrei buruzko Ikerketak*, 180. orrialdean: "Budismoaren sistemak ez du inola ezagutzen izaki jainkozko bakar, sortugabe betierekorik, aldi guztien aurretik dagoenik eta ikuskorra eta ikustezina den guztia sortu duenik: ideia hori erabat arrotz zaie, eta liburu budatiarretan ez da horren aztarna txikienik ere ageri." -Ez dugu gutxiago ikusten **Morrison** sinologo jakintsua bere *Chinese Dictionary*, Makao, 1815, e. h. u., bol. I., 217. orrialdean jainko baten aztarnak dogma txinatarretan aurkitzen, eta horren alde dagoela dirudien guztia ahalik eta era faboragarrienean azaltzen, eta hala eta guztiz ere, aitortzen du ez dela horrelakorik argiro aurkitzen. Obra horretan bertan, 268. orrialdean eta hurrengoetan, **Thung** eta **Tsing** hitzak azaltzean, hau da, atsedena eta mugimendua, txinatar kosmogoniaren oinarri diren kontzeptuak, berriro ikerketa hari ekin eta hitz hauek esanez amaitzen du: "agian ezinezkoa da, sistema hori ateismo-errutik jaregitea." - Oraindik orain **Uphamek** ere dio bere *History and Doctrine of Buddhism*, Lond. 1829, 102. orrialdean: "Budismoak gobernatzaile moral, gidari, edo sortzailerik gabe aurkezten digu mundua." **Neumann** sinologo alemaniarrek ere dio, aurrerago xehekiago zehaztuko den obra batean, 10., 11. orrialdean: "Txinan, nongo hizkuntzan ez mahomatarrek, ez kristauak ez zuten hitzik aurkitu jainkotasunaren kontzeptu teologikoa izendatzeko." ... "Jainkoa, arima, izpiritua hitzak, materiati aparteko zerbait bezala eta bere nahieraren arabera eraentzen duena bezala, ez dira ezagunak txinatar hizkuntzan." ... "Hain estuki loturik hazi da ideien joanaira hori hizkuntzarekin, non ezinezkoa den txinerara itzultzea, itzulinguru handirik gabe, Genesis liburuko lehen bertsikulua, benetan txinera izateari utzi gabe." -Hain zuzen ere horregatik argitaratu du Sir George Staunton-ek 1848an liburu bat honako tituluarekin: *Eskritura Santuak txinerara itzultzean Jainkoa* hitza egokien adierazteko moduari buruzko ikerketa" (*An inquiry into the proper mode of rendering the word God in translating the Sacred Scriptures into the Chinese language* 56).

Azalpen eta aipu horiekin pasarte guztiz ohargarria, zeinaren berri ematea den kapitulu honen helburua, hasi eta argitu besterik ez dut egin nahi izan, zeren irakurleari ikerketa haiek egin zireneko ikuspuntua aurkeztu baitiot, horrela objektuarekiko duen erlazioa argituz. Izan ere, europarrak Txinan aipaturiko bidetik eta esandako zentzuan ikerketan hasi zirenean, eta beren galderak gauza guztien printzipio gorenera eta mundua gobernatzen duen ahalera eta abarrera zuzentzean, sarritan **Tien** (ingel. T'hëen) hitzaz izendatzen dena igorri zituzten. Hitz horren esanahi hurbilena "zeru" da, Morrisonek ere bere hiztegian ematen digunez. baina aski ezaguna da zentzu tropikoan ere erabiltzen dela eta orduan zentzu metafisikoa hartzen duela. Jadantik *Lettres édifiantes*-en (*édit. de 1819, Vol. II., p. 461*) honako azalpen hau aurkitzen dugu horri buruz: "**Hing-tien** da zeru material eta ikuskorra; **Chin-tien** izpiritual eta ikustezina." Bere aldetik, Sonnerat-ek, bere Ekialdeko India eta Txinarako Bidaia, 4. lib., 1. kapituluaren dio: "jesuitek gainerako misiolariekin eztabaida izan zutenean, ea **Tien** hitzak zerua edo Jainkoa esan nahi zuen, txinatarrek arrotz hauek jende artegatzen jo eta Makaora bidali zituzten." Nolanahi ere europarrek hitz honekin txinatar metafisikak beren fede propioarekiko zuen analogia hain hisituki bilatuaren arrastoan jartzea bakarrik espero zezaketen, eta gisa horretako ikerketek gidatu dute, zalantzarik gabe, "Sorkuntzaren teoria txinatarra" izeneko entseiu batean azalduarik ageri zaigun emaitzara, zeina *Asiatic Journal*, Vol. 22. Anno 1826koan aurkitzen den. Bertan aipaturiko **Txu-fu-tzez**, **Txu-hi izena** ere hartzen duenaz, ohartarazten dut gure aroko XII. mendean bizi izan zela eta txinatar jakitunik handiena zela, zeren antzinakoen jakituria guztia bildu eta sistematizatu baitzuen. Bere obra gaur eguneko txinatar irakaskuntzaren oinarria da eta bere autoritateak pisu handia du. Aipaturiko pasartean, 41 eta 42. orrialdeetan, hau ere badio: "Izan liteke irudipena **Tien** hitzak "handienen artean gorena" edo "lurrean handia den guztia gainera" adierazten duela: baina hizkuntz erabileran bere esanahiaren zehazkabetasuna, inolako konparaziorik gabe, europar hizkuntzetan **zeru** hitzak daukana baino askoz handiagoa da." ...

"Dio Txu-fu-tzek: zeruak **gizaki bat** duela (hau da, izaki jakintsu bat), krimenak epaitu eta ebazten dituen, inola ere, ezin esan daitekeen zerbait dela; baina bestaldetik ere ez dagoela aitortzerik, ezer ez dagoenik, gauza horien gain kontrol goren bat obratzen duenik."

"Autore horri berorri galdetu zitzaion **zeruaren bihotzaz**, eta ea inteligena den ala ez, eta erantzun zuen: ez dagoela esaterik Naturaren izpiritua inteligentziagabea denik; baina ez duela giza pentsamenarekin inolako antzik."...

"Bere autoritateetako beste baten arabera **Tieni** gobernatzailea edo jauna (Txu) deritzo, ahal gorenaren kontzeptuarengatik, eta beste bat honela mintzo da hartaz: <baldin zeruak (Tien) inolako izpiritu arretadunik ez balu, orduan gertatuko litzateke behiarengandik zaldia jaioko litzatekeela eta muxikondoak udare-lorea ekarriko lukeela.> **-Bestalde esaten da zeruaren izpiritua giza generoaren nahimenetik atera ahal daitekeela!**" (Ingeles itzultzaileak bere miresmena adierazi nahi izan du harridura-zeinuak erabiliz.) Hemen jartzen dut testua:

*The word **Teen** would seem to denote "the highest of the great" or "above all what is great on earth": but in practise its vagueness of signification is beyond all comparison greater, than that of the term **Heaven** in European languages ... Choo-foo-tze tells us that "to affirm, that heaven has a **man** (i. e. a sapient being) there to judge and determine crimes, should not by any means be said; nor, on the other hand, must it be affirmed, that there is nothing at all to exercise a supreme control over these things." The same author being ask'd about **the heart of heaven**, whether it was intelligent or not, answer'd: it must not be said that the mind of nature is unintelligent, but it does not resemble the cogitations of man.*

...

*According to one of their authorities, **Teen** is call'd ruler or sovereign (choo), from the idea of the supreme control, and another expresses himself thus: "had heaven (Teen) no designing mind, then it must happen, that the cow might bring forth a horse, and on the peach-tree be produced the blossom of the pear". On the other hand it is said, that **the mind of Heaven is deducible from what is the Will of mankind!***

Azken ondorio honek nire doktrinarekin duen adostasuna ohargarri eta txundigarria da, non pasarte nire obra agertu eta zortzi urte geroago inprimatu izan ez balitz, hutsik egin gabe esan zatekeen bertatik hartua nuela neure ideia nagusia. Jakina da hiru direla ideia berrien aurkako babes-armak: haietaz ez jabetzea, ez baliaraztea, eta azkenik aitortzea, aspaldidanik existitu direla. Baina nire ideia nagusiak txinatar autoritate horrekiko duen independentzia, aipaturiko arrazoiengatik, ongi finkaturik dago: zeren espero dut sinetsiko zaidala ez dudala ezagutzen txinatar hizkuntza, eta ondorioz ez naizela gai izan jatorrizko beste obra batzuetatik, besteentzat ezezagunak direnetatik neure erabilerarako ideiak ateratzeko. Geroko ikerketetatik atera ahal izan dut oso litekeena eta ia ziurra dela aipaturiko pasarte Morrisonen Hiztegi Txinatarretik ateratakoa izatea, non aurkitzen den Tien zeinuaren azpian: hori egiaztatzeko abagunea falta dut<sup>57</sup>. **-Illgenen** Teologia Historikorako Aldizkarian, vol. 7, 1837koan, **Neumannen** artikulua bat dator: "Txinatarren natura eta erlijioari buruzko filosofia, **Txu-hiren** obraren arabera", eta bertan 60.etik 63.era, pasarte batzuk ageri dira, zeinak hemen aipaturiko *Asiatic Journal*-ekoen iturri berekoak diren. Baina Alemanian hain sarri aurkitzen den erabakitasunik gabeko adierazpenez idatzirik daude, eta garbi ulertzeari traba egiten dio. Gainera ohartzen da, Txu-hiren itzultzaile horrek ez duela testua osoki ulertu; baina horregatik ez zaio inolako kritikarik egin behar, europarrontzat hizkuntza hori zailtasun handikoa dela eta bitarteko lagungarriak askiezak direla kontutan izanik. Bitartean ez dugu hortik nahi dugun argibide lortzen. Kotsolatu beharra daukagu espero izanez, Txinarekiko merkataritza libre bihurtu denez gero, ingelesez batek egunen batean ondorio zehatzago eta oinarrituagoak emango dizkigula goiko pasarte hain laburtasun deitoragarrian azaldutako dogmaz.

# ETIKAREN AIPAMENA

Nire doktrinaren gainerako atalen berrespena oraingo nire asmoaz kanpo gelditzen da. Zilegi bekit, halere, amaitzeko etikaren aipamen orokor bat egitea.

Antzinatik ezagutu izan dute herri guztiek, munduak bere esanahi fisikoaz gainera baduela morala den beste bat ere. Guztiarekin ere puntu horren kontzientzia lauso batera bakarrik iritsi izan da, zeinak, bere adierazpena bilatuz, askotariko irudiz eta mitoz bere burua jantzi duen. Horiek dira erlijioak. Filosofoak, beren aldetik, aldi guztietan ahalegindu dira arazoa argiro ulertzen, eta beren sistema guztiak, guztiz materialistak direnak albora utzirik, bat datoz gainerako beren desberdintasunak gorabehera, garrantzitsuena, areago, existentzia osoko funtsezko bakarra dena, esanahi propioa, ardatza bera, *pointe* delakoa (*sit venia verbo*) giza egintzaren moralitatean dagoela. Baina horren zentzuaz, modu eta eraz, horren posibilitateaz hitz egiten denean, berriro guztiak ezadostasun handienez jartzen dira eta iluntasunezko amildegia bat daukate beren aurrean. Hortik dator morala predikatzea erraza izatea, baina morala oinarritzea zaila izatea. Izan ere, puntu hori kontzientziaz finkatzen denez gero, sistemaren froga-harri bihurtzen da, metafisikari arrazoiz eskatzean etikaren sostengu izan dadila; eta orain sortzen da, esperientzia guztiaren kontra, gauzen ordena fisikoa moraletik bereizitzat erakustearen arazo zaila, indarren artean elkarrekiko lotura bat aurkitzea, zeinek, betiereko natur legeen arabera obratuz, munduari egomena ematen dioten, eta giza bularrean dagoen moralitateari ere bai. Hemen hoberenek ere porrot egin dute. **Spinozak** sarritan sofismen bitartez bertuteen doktrina bat itsasten dio bere panteismo fatalistari, baina sarriagotan uzten du bertan behera. **Kantek**, bere arrazoimen teorikoa azkenera eramanez ondoren, *deus ex machina* bezala inperatibo kategorikoa aurkeztzen du kontzeptu soiletatik aterata<sup>58</sup>, eta berorrek egin behar absolutu bat, zeinaren falta agerian jarri zen, **Fichtek**, bapikatzea gainditzetzat beti hartzen duenak, Christian-Wolfiari zabalera eta astuntasunez printzipio hori hedatu zuenean **fatalismo moraleko** sistema oso bihurtu arte bere *Moral-sistema*-n, zeina laburrago azalduz dagoen *Zientziaren doktrina zirroborro orokor batean*, 1810, bere azken liburuskari.

Ikuspuntu honetatik ukaezina da existentzia ororen errealtatea eta Natura osoaren sustraia nahimenez jartzen duen sistema bat eta horretan munduaren bihotza erakusten duenak, bere kontra aurrituz gogor bat gutxienez izatea, zeren bide zuzen eta sinpletik, eta eskura edukiz ere bai, etikara joan baino lehen, besteek lehia bizian eta beti okerreko bideetatik bilatu duten. Eta egia da Naturan obratzen eta iharduten duen eta gure enteleguari mundu sentigarri hori errepresentatzen dion indarra, gure baitako nahimenarekiko identikoa dena, kontutan harturik bakarrik lor daitekeela. Jatorriz etikoa den metafisika, etikaren gaia, nahimenaz eraikia dena, bakarrik da etikaren sostengu erreala eta arartekogabea; horregatik nik, Spinozak baino arrazoi gehiagorekin izenda nezakeen neure metafisika "etika", zeinak berarengan ia ironia bat dirudien eta esan liteke izen hori *lucus a non lucendo* bezala ematen zaiola, zeren sofismaz bakarrik erlazionatu ahal izan baitzuen morala, zeinatik kontsekuenteki inoiz ez baitzitekeen erne: eta ukatuz ere bai zuzenki kasurik gehienetan ausardiarik handienarekin (adibidez *Eth. IV, prop. 37, Schol. 2*). Oro har, deblauki aitor dezaket, inoiz ez dela sistema filosofikorik izan nire baino zati bakarragoan ebakirik, gehikin eta adabakirik gabeagorik. Bere hitzaurrean esana daukadanez, ideia bakar baten garapena da, zeinaz antzinako aJplou" oJ mu? o" th" alh?eia" e? u beste behin ere berresten den. -Berehalaxe hartu behar da kontutan, askatasuna eta erantzukizuna, etika ororen bi zutabe horiek, nahimenaren aseitatea onartu gabe hitzez berrets litekeela, baina ez dagoela horrela soilik pentsatzerik. Hori eztabaidatu nahi duenak, eskolastikoek ezarritako *operari sequitur esse* axioma baztertu behar du lehenik (hau da, izaki bakoitzaren erakuntzatik datorrela bere egintza), edo bere ondorioa *unde esse inde operari* faltsua dela erakutsi. Erantzukizunak askatasuna dauka baldintzat eta horrek jatorrizkotasuna. Izan ere, nahi badut naizelako da: horregatik izan egin behar dut nahi izan baino lehen. Horregatik nahimenaren aseitatea da seriozki pentsaturiko etikaren lehen baldintza, eta arrazoiz dio Spinozak: *ea res libera dicitur, quae ex sola suae naturae necessitate existit, et a se sola ad agendum determinatur* (*Eth. I, def. 7*).

Izatea eta esentziarekiko dependentzia, egiteko askatasunari loturik kontraesana da. Baldin Prometeok bere sorkariei egiten dutenarengatik haserre egin nahiko balie, horiek arrazoiz erantzun liezaioke: izan ginen heinean bakarrik jardun genezakeen: zeren erakuntzatik baitator

obratzea. Gure egintza txarra bada, gure erakuntzan hori zegoelako da: "zeure obra duzu: zigor ezazu zeure burua"<sup>59</sup>. Gauza bera gertatzen da gure egiazko esentziaren heriotzaren bidezko suntsiezintasunarekin ere, zeina ez dagoen seriozki hartzerik aseitaterik gabe, nekez egin litekeenez nahimena eta enteleguaren artean funtsezko bereizketarik gabe ere. Azken puntu hori nire filosofiakoa da; lehena funtsean jadanik Aristotelesek azaldu zuen (*De coelo*, I, 12), non xeheki erakusten duen, sortugabea bakarrik dela iraungiezina, eta bi kontzeptuk elkar baldintzatzen dutela: (*haec mutuo se sequuntur, atque ingenerabile est incorruptibile, et incorruptibile ingenerabile. ... generabile enim et corruptibile mutuo se sequuntur. -si generabile est, et corruptibile esse necesse est*). Hala ulertu zuten, antzinako filosofoen artean, arimaren hilezkortasuna irakatsi zuten guztiek, eta inori ez zitzaion bururatu iraupen amaigaberik esentzia **sortu** bati egotzi nahi izaterik.

Kontrako iritziak sortzen duen nahasmenduaren lekuko dira Elizan preexistentzianista, kreazionista eta traduzianistek izandako eztabaidak.

Halaber, etikarekin zerikusia duen puntu bat da sistema filosofiko guztien optimismoa, zeina obligatutzat ezin den inon falta: zeren munduak entzun nahi baitu atsegina eta bikaina dela, eta filosofoek atseginak izan nahi dute munduarekiko. Nirekin besterik gertatzen da: ikusi dut zer zaion atsegin munduari eta horregatik, berorri atsegin izateko, ez naiz egiaren zidorretik urrats bat ere saihestuko. Beraz puntu horretan ere aldendu egiten da nire sistema gainerakoetatik eta bakarrik gelditzen da. Baina gertatzen da horiek guztiek beren demostrazioa burutu ondoren eta mundurik hoberenaren kanta abestu dutenean, orduan dator, sistemaren atzetik, fantasmaren mendekatzaileraren gisara, hilobietako izpiritu bat bezala, Don Juanen harritzko gonbidatua bezala, gaizkiaren jatorriari buruzko galdera, gaizki izugarri eta izengabeari buruzkoa, munduan dagoen samin lazkarri eta bihotz-erdiragarriari buruzkoa: -eta mututu egiten dira, eta hitzak besterik ez dute, hitz huts, ozenak, hain kontu zorrotza ordaintzeko. Aitzitik sistema baten oinarrian gaizkiaren izatea munduarenarekin txirikordatzaren denean, orduan ez dago mamu horri beldurra izan beharrik; haur txertatuak gorrinari izan behar ez dion bezala. Horixe da kasua, orde, baldin askatasuna *operari*-n beharrean *esse*-n ezartzen bada eta hartatik txarra, gaizkia eta mundua irten badira. -Gainerakoan, bidezkoa da, pertsona serioari bezala, onar diezadaten benetan ezagutzen ditudan gauzez bakarrik hitz egiten dudala eta zentzu erabat zehatza ematen diedan hitzak besterik ez ditudala erabiltzen, zeren horrela bakarrik komunika baitaiteke inor besteekin segurtasunez, eta **Vauvenarghek** arrazoi osoa du esatean *la clarté est la bonne foi des philosophes*. Horrela, bada, nik diodanean "nahimena, bizitzeko nahimena", hori ez da inolako *ens rationis*, ez da nik sortutako hipostasirik, ezta esanahi zalantzakor eta lausoa duen hitza ere; aitzitik zer den galdetzen didanari bere barnerako bidea erakusten diot, non aurkituko duen osorik, tamaina eskergan *ens realissimum* egiazko bat bezala. Ez dut azaldu, beraz, mundua ezezagunaren bidez, baizik eta dagoen ezagunenaren bidez, eta gainerako guztiaren aldean zeharo bestelako era batez ezaguna denaren bidez. Azkenik, nire etikaren emaitza aszetikoari aurpegiratu zaion paradoxari dagokionez, gainerakoan nire doktrinen epaile hain aldekoa duan **Jean Pauli** behaztopagarri gertatu zaiona, izan ere emaitza horrek eraman baitzuen 1820an asmo onezko liburu bat nire kontra idaztera **Rätze** jauna (zeinak ez baitzekien nire kontra balio duen bakarra segregazio-metodoa dela), eta harrez gero nire filosofiari egindako kritika etengabeen gaia izan dena; arren eskatzen dut, kontinente zahar honen ipar-mendebaldeko zokoan bakarrik dei dakiola paradoxazko, eta herrialde protestanteak diren hauetan bakarrik, aitzitik Asia osoan, islam higuigarriak ezpataz eta suz gizadiaren antzinako erlijio sakonak nonahi suntsitu ez dituen tokian, lehenago izango luke emaitza horrek hutsalkeria delako kritikari aurre egin beharra<sup>60</sup>. Beraz kontsolatu egiten naiz nire etika *Veda Santuen Upanishade*kiko, eta baita Budaren erlijio unibertsalarekiko ere ortodoxoa izateaz, eta antzinako kristautasun benetakoarekin ere kontrajarrita ez egoteaz. Gainerako heresi akusazio guztien kontra altzairuturik nago eta saremaila hirukuna daukat bularraren inguruan.

# KONKLUSIOA

Traktatu honetan egindako berrespen, neurri batean ohargarriei, zeinak eskaini dizkioten zientzia enpirikoek nire doktrinari berau agertu denetik, baina horretaz aparte ere bai, zalantzarik ez dago beste asko gehituko zaizkiela nire ezaguerara iritsi ez direnak, zeren hizkuntza guztietan hain ihardunkor landu den natur zientzietako literaturaren parte hain urria izaki, hura xeheki ikasteko denbora, abagunea eta pazientzia ematen baitu. Baina hemen jadanik azalduak konfidantza ematen dit denbora nire filosofiaren alde doala uste izateko, eta pozkario bihotz-adoregarritz ikusten dut, nola urteak igaro ahala zientzia enpirikoak pixkanaka lekuko batere susmagarriak ez izatetik hamazazpi urtez "profesioko filosofoek" isiltasun zuhur eta hautsigabearen pean eduki duten doktrinaren alde jartzen ari diren (batzuek izendapen hori, baita "lanbide filosofikoarena" ere ematen diete xaloki beren buruei), beren politikan iniziatu gabea den Jean Pauli<sup>61</sup> hartaz hitz egiten utzirik. Laudatzeari amarrutsu iritzi bide diote, eta kontra egiteari, ongi pentsatuta, ez diote batere seguruaren itxurarik hartu nonbait, izan ere publikoa, "lanbidekoa eta profesiokoa ez dena", kontura bailiteke oso seriooki filosofo daitekeela, ulergaitz eta aspergarri izan gabe: eta horretarako, nola inork ez duen isilduz bere burua salatzen, hain gogokoa duten segregazio-metodoan konprometitu behar izan dute, merituaren kontrako bitarteko ziurtzat, eta halako moldez moldatu dira, non oraingo inguruabarretan ez dagoen filosofia hori ongi kalifikaturik katedratik irakatsia izan dadin, zeina beren iritzi ezkutukoaren arabera, filosofia ororen xede egiazko eta azkena den, -hainbestearino eta hain ziurra da hori, non Olinpo gainetik behera egia biluzia jaitsiko balitz, eta ikusiko balitz ekarritakoa ez datorrela bat gaur eguneko inguruabarrek sorturiko eskakizunekin eta aurretik ezarritakoaren xedeekin, "profesio eta lanbideko" jaunek ez lukete denborarik galduko, noski, ninfa prestuez horrekin, baizik eta kunplimenduz lehenbailehen Olinpora itzularaziko lukete, erabat mututu eta beren konpendioetan geldituko lirateke lasai-lasai. Zeren, jakina, edertasun biluzi hori, sirena erakargarri hori, arriorik gabeko emaztegai hori gortetzen duenak uko egin behar dio Estatu- edo katedra-filosofo izateari. Gehienera ere, teilazpi-filosofo izatera iritsiko da. Baina ordainez, jantxakur bihurtuko diren lanbidezko ikasle-publiko baten lekuan banako bakan, hautatu eta pentsalariz eratuko den beste bat izango du, zeinak han-hemenka jendetza ugariaren artean sakabanaturik, denboraren joanairan isolaturik agertzen diren, naturaren jolas bat bezala ia. Eta han, urrunean, ondorengotza eskertu bat nabaritzen da. Baina ez dute inolako susmorik izan behar egiaaren edertasun eta maitagarritasunaz, hari segitzeak ematen duen plazeraz, hartaz gozatzeak ematen duen atseginaz, imajinatu dezaketene haren aurpegia ikusi duenak bertan behera utzi, ukatu, desitxuratu dezakeela, txalo prostituituarengatik, edo beren enplegu, beren diru edo errege-kontseilari tituluengatik. Lehenago leunduko nituzke lenteak Spinozak bezala, edo aterako nuke ura Kleantesek bezala. Gainerakoan, nahiago dutena egin dezakete: egia ez da bestelakotuko "lanbideari" atsegin emateko. Izan ere, seriooki landuriko filosofiari oso estu datozkio Unibertsitateak, Estatuak zientziak bere ardurapean dauzkaneko horiek. Agian berarekin zientzia sekretuen tartean kontatua izan dadin lortuko da, bitartean haren faltsifikazio hura, Unibertsitateetako *ancilla theologiae* eskolastikoaren *doublette* txar hura, zeinaren egia filosofikoaren irizpide gorena printzerri-katixima den, hainbat ozenago durundiatzen entzungo den ikasgeletan. -*You, that way; we, this way* 62.- *Shakesp. L. L. L. the end.*